

TXOSTENA

27

ADINEKO EMAKUMEEN

AUTONOMIA EUSKADIN ETA

AHALDUNTZE-PROZESUEI

EGIN DIEN EKARPENA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ADINEKO EMAKUMEEN
AUTONOMIA EUSKADIN
ETA AHALDUNTZE-
-PROZESUEI EGIN
DIEN EKARPENA**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2012

IZENBURUA	“Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dien ekarpena”
EDITOREA ETA EGILEA:	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
TALDE TEKNIKOA:	Adimen Investigación: Marce Masa, Patxi Alija, Estibaliz Ibáñez, Aurelio Alonso eta Estibaliz Berroeta.
MAKETATZAILEA ETA JARRAIPENA:	ARRIN. Comunicación y Diseño
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
DATA:	Junio 2012
DESKRIBATZAILEAK:	Adineko emakumeak, ahalduntzea, genero ikerketa, ikerketa, inkestak, datu estatistikoak, Euskadi
ALE-ZENBAKIA:	500
INPRIMAKETA:	Gráficas Ulzama
ISBN :	84-89630-38-0 978-84-89630-38-3
L.G.:	VI-0505/12

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. SARRERA	11
2. HELBURUAK	15
2.1. Helburu nagusia	17
2.2. Helburu espezifikoak	17
3. IKERKETAREN DISEINUA	19
3.1. Ikerketa-ildo bati jarraipena ematea	21
3.2. Zenbait arrazoi bat etortzea taldea aukeratzeko	21
3.3. Aztertutako kolektiboaren heterogeneotasuna hartzea abiapuntu: zahartzaroa eta adineko pertsonak; eta adineko pertsonak eta adineko emakumeak	22
3.4. Ikerketa aitzindaria eta konplexua	22
3.5. Ahalduentze kontzeptua testuinguruan jartzea	23
3.6. Testuinguru soziohistorikoa eta emakumeen belaunaldi horren sozializazioa	25
3.7. Estrategia metodologikoa: metodo kualitatiboa eta kuantitatiboa ondoz ondo erabiltzea	26
3.8. Ikerketaren faseak	26
3.8.1. Testuinguruan jartzea, bibliografiaren bidez	26
3.8.2. Sakoneko elkarriketak	27
3.8.3. Eztabaida-taldeak	27
3.8.4. Etxean betetzeko galdetegiak, unibertsoa eta lagina	28
3.8.5. Informazio kuantitatiboaren sistematizazioa	30
3.9. Landa-lanari buruzko oharrak	31
3.10. Txostenaren egitura	32
4. EGITURAZKO LAU ELEMENTU, ABIAPUNTU GISA	35
4.1. Bi adin-taldetan segmentatzea: landa-lanaren ondoreneko aukera bat	37
4.2. Ezkonduak edo alargunak	39
4.3. Lehen mailako ikasketen nagusitasuna	40
4.4. Jarduera-ibilbideak heldu-bizitzan: "besteentzat-izatea"	41
4.4.1. Produkzio-arloan parte hartzea	43
4.4.2. Etxeko-familiako arloan soilik parte hartzea	46
5. GAUR EGUN ADINEKOAK DIREN EMAKUMEEN ESPERIENTZIAK	49
5.1. Bizileku-autonomia handia	51
5.2. Ahalduentze-ekonomiko formal txikia	55
5.3. Baina ahalduentze-maila handia ekonomiaren benetako kudeaketan	58
5.4. Norberaren autonomia: balio preziatuena, gaur eta bihar	61
5.5. 65 urte beteta izatea: jarraipena eta aukera, ez oztopo	63

5.6.	Ohiko gizarte-jarduerak: denboraren banaketa.....	67
5.7.	Parte-hartze indibiduala, antolatua eta instituzionala.....	71
5.8.	Emakumeen mugimenduak: interesa, parte-hartzea eta ekarpenak.....	76
5.9.	Zaintzaileak eta zainduak	78
5.9.1.	Biloben zaintzaileak: rolaren jarraipena, orain amona moduan	79
5.9.2.	Beste senide batzuen zaintza: beraien erabakia	81
5.9.3.	Beste emakume batzuek zaintzen dituzten adineko emakumeak.....	83
5.9.4.	Zaintzaren balantzea: esperientzia desberdina adinaren arabera...	84
6.	NORBERAREN AUTONOMIA ALDERATUA: IBILBIDE BIOGRAFIKOAREN BERRIRAKURKETA	87
6.1.	Agentetza bilatuz "bizi izan garen bezala zahartzen gara" esaldiari.....	89
6.2.	Identitatearen jarraitasuna hautematen dute gehienek.....	90
6.3.	Autonomia indibidual maila alderatuak.....	91
6.4.	Osasun txarra izatea: norbanakoaren autonomiarako oztopo nagusia	94
6.5.	Aldaketak denboraren erabileran: kudeaketa eta denbora izatea.....	95
6.5.1.	Denbora gehiago dutela egiaztatzea.....	95
6.5.2.	Baina liberatutako denbora da, ez lortutakoa.....	99
6.6.	Adineko emakume direnetik erabaki berriak hartu dituzten emakumeak ...	101
7.	AHALDUNTZEAREN SOZIALIZAZIOA: BELAUNALDIKO ETA GENEROKO ONDAREA	105
7.1.	Onartzea emakumeak alor guztietan parte-hartze aktiboa izatea.....	108
7.2.	Ondorengo belaunaldietako emakumeak autonomoagoak dira	111
7.3.	Adineko emakumeak: ahalduntzearen agente aktiboak.....	112
7.4.	Lan arloan parte hartzea: autonomia indibidualaren bermea.....	114
8.	AHALDUNTZEAREN TIPOLOGIA BATERANTZ.....	119
9.	ONDORIOAK	127
	BIBLIOGRAFIA.....	135
	ERANSKINA	141
1.E.	Taulen eta grafikoen aurkibidea.....	143
2.E.	Galdetegia	148



AURKEZPENA



Gizarte baten errealitatea zein den jakitea lehen urratsa da gizartea eraldatzen saiatzeko. Horregatik ahalegintzen da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea gure erkidegoko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak zeintzuk diren jakitea ahalbidetzen duten azterlanak egiten. Esandakoaren erakusgarri da "Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dien ekarpena" azterlana. Emakundek nerabeei buruzko ikerketa-ildo bati ekin zion 2009. urtean, ahalduntze-prozesuak EAEko emakumeen eguneroko jardunean nola gauzatzen edo islatzen diren ikusteko. Ikerketa-ildo horren baitan kokatzen da, hain zuzen, aipatu azterlana.

Azterlana Zahartzaro Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte Europarrenden honetan argitaratuko da. Hain zuzen ere, Emakundek azterlan horren alde egiteko arrazoietakoa bat da, besteak beste, Erakundeak

aitortu izana adineko emakumeen kolektiboa ez duela ziur aski beste emakume-kolektibo batzuek bezainbeste artatu. Bizitzaren beste prozesu batzuetan gertatzen den bezala, zahartzaroa, zalantzarik gabe, prozesu desberdina da emakumeentzat eta gizonentzat. Ideia horixe du Susan Sontang-ek: "emakumeak zahartu egiten dira; gizonak, berriz, heldu".

Azterlanaren helburu nagusia izan da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 65 urteko edo gehiagoko emakumeen ahalduntze-prozesua eta negoziazio-ahalmena nola dagoen jakitea, zer nolako autonomia indibiduala duten jakitea eta emakume-kolektibo horrek egun zein praktika sozial egiten duen jakitea. Hirurogeita bost urte bete ondoren, adineko emakumeen belaunaldi horren ahalduntze-prozesuan aldaketarik egon den jakin izan dugu azterlan horri esker.

Eskerrak eman nahi dizkiet azterlan hau ahalbidetu duten lagunei: egileari, Marce Masari, eta, bereziki, galdesortak erantzun dituzten emakumeei, emakumeen horien ekarpenik gabe ezingo baikenuke azterlana egin. Nahiko nuke argitalpen hau hausnarketarako tresna izatea, eta bide-erakusle, bihar-etziko berdintasun-politikak planifikatzerakoan.

Eskerrik asko.

María Silvestre Cabrera

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

SARRERA

Txosten honetan, ikerketa honen emaitzak aurkezten dira: “Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dien ekarpena”. Ikerketaren helburu nagusia da jakitea zein den Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen gaur egungo egoera ahalduntze-prozesuetan eta zer negoziazio-ahalmen duten.

2010. urteko urtarrilaren 1ean, adin-tarte horretako 241.703 emakume zeuden, EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeko adierazleei jarraituz. Une hartan, gure autonomia-erkidego-ko biztanleria osoaren %11,1 ziren. Horrenbestez, talde oso garrantzitsua dira, kopuruaren aldetik, eta zantzu guztien arabera, horrela izaten jarraituko dute. Baina, agian, emakume-talde horren egoerari ez zaio behar lukeen arreta jarri ahalduntzearen ikuspegitik, emakume horien iraganeko eta oraingo erabakien gaineko autonomiaren ikuspegitik, eta ez zaie horren inguruko iritzia eskatu, ez behar beste, bederen.

Ikerketa honek ezagutza-gabezia horri erantzun dio, eta adin-tarte horretako 600 emakumeri egin die galdeketa. Estatistikoki esanguratsua den lagina da, eta 2011. urteko urriaren erdialdetik azaroaren lehenengo egunak bitartean etxez etxe egindako galdetegi baten bidez gauzatu da.

Eta, izan ere, ikerketa hau beste ikerketa-ildo baten esparruan eginda dago: ahalduntze-prozesuak Euskadiko emakumeen eguneroko jardunean nola gauzaten edo islatzen diren jakin nahi duen ikerketa-ildoan. EMAKUNDEk abian jarritakoa da, eta nerabeen taldeekin hasi zuen (EMAKUNDE, 2009). Ikerketa-erronka aitzindaria izateaz gain, oso konplexua ere bada, talde edo belaunaldi jakin batzuetan ahalduntze-agerpenak aurkitzeko ahalegin oro oso konplexua baita. Eta, are konplexuagoa, metodologia-estrategia kuantitatiboa erabiltzen baita adierazleak bilatzeko.

Orain dagokigun kasuan, belaunaldi-ikuspegiak eragin handia izan du –eta txostenean horrela jasota geratzea espero dugu– emakume horiek ahalduntze-mailak lortzean edo maila horiek aplikatzean, ez baita ahaztu behar 1946. urtea baino lehenago jaio zirela. Eta, halaber, adineko pertsonen berezko heterogenotasunari generoak dakarren dimentsioa ere kontuan izan behar da adineko pertsonen belaunaldi horretan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, benetan, ikerketa hau egiten lagundu duten pertsona guztiei, eta bereziki adineko pertsoneri, asko eta asko ikasi baitugu haiengandik, bai landa-lanean jardun dugun bitartean, bai haiei iritzia eta ibilbide biografikoak aztertu ditugunean ere.

2

HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

2.1

1. Jakitea zein den Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ahalduntze-prozesuen eta negoziazio-ahalmenaren egungo egoera.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.2

1. Jakitea hautematen duten autonomia indibidualaren maila, bai oro har, bai maila espezifikotan: etxebizitza, ekonomia, afektua eta abar.
2. Jakitea emakume talde horrek zer jarduera sozial dituen egun, eta bereiztea jarduerak pribatuak-etxeakoak diren edota publikoak-kolektiboak diren kontuan hartuta.
3. Atzera begirako azterketa egitea, ahalduntzeari dagokionez, abiapuntu hartuta ikerketan parte hartu duen adineko emakume-talde honen esperientzia.
4. Aurrera begirako azterketa bat egitea, ahalduntzeari dagokionez.
5. Aztertzea emakume hauetan ea badagoen aldaketarik ahalduntze-mailari dagokionez haien ibilbide biografikoan zehar, eta ikustea egungo bizitza-ziklora (adinekoak) igarotzeak izan duen zerikusirik aldaketa horretan (belaunaldien arteko alderaketa).
6. Ahalduntzearen alderaketa bat egitea hurrengo belaunaldi batzuetako emakumeekin, bizi izandako esperientzia ere baliatuta (belaunaldien arteko eta genero arteko alderaketa).
7. Ezagutza gehiago izatea, ahalduntzea sustatuko duten balizko ekintzak abian jartzeko, EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako V. planaren baitan.
8. Emakundek hasitako ikerketa-ildo bati jarraipena ematea.
9. Dagozkien eragileei gaur egun abian dauden politikak berrorientatzeko proposamenak egitea, edota beste eskaera edo premia batzuk hautematea.

3

IKERKETAREN DISEINUA

Atal honetan, ikerketa honen diseinu teorikoaren eta metodologikoaren oinarri izan diren pieza nagusiak aurkezten ditugu. Kontuan izanik ikerketa hau batez ere aplikatua dela, gure asmoa ez da izan zehatz-mehatz garatzea elementu horietako bakoitza, baizik eta haien funtsezko ezaugarriak aurkeztea, erakusteko zer ikuspegi edo ikuspuntutatik interpretatu diren ikerketa honetako emaitzak.

IKERKETA-ILDO BATI JARRAIPENA EMATEA

3.1

Euskadiko gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, EMAKUNDEk abian jarritako planetan (2006, 2010) ahalduntzea hartzen ari den garrantzia ikusita, erakunde horrek ikerketa-ildo bat jarri du abian, ikusteko nola zertzen diren edo nola islatzen diren ahalduntze-prozesuak Euskadiko emakumeen eguneroko jardueretan.

“Euskadiko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta” txostena (EMAKUNDE, 2009) izan zen azterketa horietako lehena. Helburua zen jakitea zer estrategia zituzten 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek autonomiari eta erabakiak hartzeari dagokionez.

Ahalduntze-mailen adierazleak sortzeko beharra izan zen ikerketa-ildo horietan ezarritako jarraibide nagusietakoa, jakitun izanda, edonola ere, oso konplexua zela apustu metodologiko kuantitatibo hori egitea.

ZENBAIT ARRAZOI BAT ETORTZEA TALDEA AUKERATZEKO

3.2

Zenbait arrazoik eragin dute 65 urteko eta hortik goragoko emakumeen taldea aukeratzea, beste adin-tarte bat ardatz izan beharrean. Lau garrantzitsuenak bakarrik aipatuko ditugu. Lehenengoa da emakumearen erakundeak adineko emakumeen taldeari ez diola, agian, beste emakume-talde batzuei bezainbesteko arreta jarri.

Bigarrena koiunturako arrazoi bat da: 2012. urtea “Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte Europarra” da (EUROPEAN COMMISSION, 2011).

Hirugarren arrazoia da, adineko pertsonen taldea gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari denez eta talde horri gero eta interes handiagoz erreparatzen zaionez –zahartze-prozesuak dakarren erronka demografikoarengatik, ezbairik gabe Euskadiri eragiten dion kontua (EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO, 2005; EUSTAT, 2007 eta 2010; EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, 2011)–, “zahartze aktibo eta osasuntsua” deritzonetik egiten ari diren hurbilpenek zerikusia edo lotura dutela ahalduntze-prozesuekin. Ikerketa hau, beraz, zahartze aktiboaren alorreko lan-ildoaren osagarri bat izango litzateke, bai eta, aldi berean, haren kontrapuntua ere (EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO, 2010; INNOBASQUE, 2011).

Azkenik, ikerketaren gaitzat 65 urteko eta hortik gorako emakumeen taldea hartzearen lau garren arrazoia da jakitea zer egoeratan dauden. Izan ere, zenbaitetan adineko pertsonen

autonomia eman behar zaiela azpimarratu izan da, gizartean duten jarduera edo parte-hartzea handitu behar dela, ziurrenik ongi jakin gabe talde horrek zer-nolako autonomia-maila duen benetan, zenbateraino dauden horrekin gustura, eta, orobat, jakin gabe nahi duten murgildu zahartze aktibo eta osasungarriak sustatutako portaera eta praktika horietan.

**AZTERTUTAKO
KOLEKTIBOAREN
HETEROGENEOTASUNA
HARTZEA ABIAPUNTU:
ZAHARTZAROA ETA ADINEKO
PERTSONAK; ETA ADINEKO
PERTSONAK ETA ADINEKO
EMAKUMEAK**

3.3

LOURDES PÉREZ ORTIZ soziologoak ezin hobeto adierazi bezala “zahartzaroa asko aldatzen ari da. Osasun-egoera oro har hobea izateak eta mendekotasunaren arazoari ezinbestean heldu beharrak ezinbesteko egiten du, inoiz baino gehiago, bi zahartzaro-mota bereiztea: bat autonomia eta bestea erikorra edo baletudinarioa; hots, hirugarren eta laugarren adina. (...) Azken aldaketek adierazten dute egiaz ez dagoela zahartzaro bakarra, zenbait baizik.” (2006a:13)

Ikuspuntu edo ikuspegi honetatik hurbildu gatzazkio adineko emakumeen kolektiboari. Behar-beharrezkoa da planteamendu bakarrak ez egitea zahartzaroaren alorrean, argi baitago –eta horrela adierazi eta frogatu da duela urte askotatik– heterogeneotasuna gero eta agerikoagoa dela adineko pertsonen belaunaldian (FERICGLA, 1992; BAZO; 1997; SÁNCHEZ VERA, 1993; EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO, 2010:163).

Adineko pertsonen taldeko heterogeneotasuna aintzat hartzeko ahaleginean, generoa funtsezko beste elementu bat da. Horrenbestez, zahartze femenino bat dago (PÉREZ ORTIZ, 2003) zahartze maskulino bat dagoen bezalatsu, eta horretaz arduratu egin behar dugu. ANNA FREIXAS psikologoak adierazi bezala, *“orain arte inori ez zaio erraza egiten zahartzea gure gizartean, gaztetetasunaren eredu ideala baitu oinarri, gizakiei balioa jaitzarazten diona bizitza-zikloan aurrera egin ahala. Baina are zailagoa egiten zaie emakumeei zahartzea, gizarte-onarpenaren diseinu patriarkalak gaztetasuna ezinbesteko baldintza bihurtu baitu, eta horrekin batera beste eskakizun batzuk baititu edertasunaren alorrean (azala leuna eta zimurgabea izatea, ile urdinik ez izatea, gorputz argal eta irmoa edukitzea eta abar), eta horrenbestez adinari uko egitea.”* (2002: 253)

**IKERKETA AITZINDARIA
ETA KONPLEXUA**

3.4

Zahartze-prozesuaren estandar bikoitz hori, 1979. urtean Susan Sontag-ek adierazitako “emakumeak zahartu egiten dira eta gizonak, berriz, heldu” ideia hori aintzat hartuta, ezinbestekoa da kontzeptualizatzea zahartze-prozesua erabat desberdina dela emakumeentzat eta gizonentzat (erreferentzia hemendik hartu dugu: FREIXAS, 1997; 31). Horren haritik,

ikerketa honek Anna Freixasek duela jada hoge urte adierazitako ideia izango luke oinarri, adierazten baitzuen beharrezkoa zela *“emakumeei buruzko ikerketak egitea, emakumeei buruzko ezagutza handiagoa eta bereizia izatea, aukeren sorta ireki eta zabalduko duten ikerketak, emakumeak kultura-entitate zabal gisa kontzeptualizatu baitaitezke.”* (1991:77)

Ikerketa espezifikoa, zahartzaroaren eta generoaren arteko lotura muintzat duten ikerketak egiteko beharrak, duela bi hamarkada Freixasek planteatutakoak, ez du emaitza handirik izan orain artean. Egin direnen artean, hauek lirateke aipagarrienak: ARBER ETA GINN, 1996; MAQUIEIRA D'ANGELO, 2002; MINISTERIO DE SANIDAD, POLÍTICA SOCIAL E IGUALDAD, 2011; RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2010; eta SERDIO 2006; eta aipatutako bi autoreenak, hots FREIXAS (1991, 1993, 1997, 2002, 2005, 2006, 2008, 2009) eta PÉREZ ORTIZ (2003, 2005, 2006a; 2006b). Baina, oro har, ikerketa honen esparruan, lan horiek ikerketa testuinguruan jartzeko balio izan dute, ez, ordea, erreferentzia enpiriko moduan, oso urriak baitira –aurrekoak baino urriagoak– ikerketa aplikatuak.

Ikerketa aplikatu edo enpirikoen artean, badira aipatu beharreko bi, oso baliagarriak izan baitzaizkigu gure ikerketa egiteko eta haren ikuspegia zehazteko. Batetik, LOURDES PÉREZ ORTIZ, L. soziologoaren *“La estructura social de la vejez en España. Nuevas y viejas formas de envejecer, 2006. urtekoa; eta hurbilago –denboran eta espazioan– INGEMA FUNDAZIOAK Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarentzat egindakoa: “Euskal Autonomia Erkidegoko 60. urtetik gorako bizi-baldintzei buruzko azterlana”.* 2010.

Horregatik, ikuspegi enpirikotik edo aplikatutik, esan genezake Emakundek sustatutako ikerketa hau berritzailea dela, bai gaiaren aldetik bai metodologiaren aldetik ere. Lehen ikerketetako bat da zuzenean eta adierazle kuantitatiboak erabiliz ahalduntzearen eta adineko emakumeen arteko loturari heltzen saiatzen dena. Eta, izan ere, azterketa gutxik landu dituzte lotura horiek, eta zeharka eta modu ez-sistematikoan, gainera.

Eta zer erronka den ikusita, ez gaitu inondik inora harritzen ez egotea alor horretako ikerketarik. Pertsonen alderdi indibidualenei, subjektiboenei eta, zenbatetan, barru-barrukoen hurbiltzea ez da kontu erraza, eta are konplexuagoa da, gainera, teknika kuantitatibo baten bidez egiten bada, kasu honetan bezala. Ikerketaren hasiera-hasieratik jakitun ginen zailtasun horiek izango genituela ahalduntzearekin eta erabakiak hartzearekin lotuta dauden dimentsioak bilatzeko edo aurkitzeko Euskadin bizi diren 65 urteko edo hortik gorako emakumeengan. Inkestak egingo zituen pertsona-taldearen trebakuntza orokorra eta prestakuntza espezifikoa funtsezko elementua zen. Konfiantza-giroa sortzea eta parte hartzea borondatezkoa izatea ezinbesteko baldintza izan ziren txostenean jasotzen diren emakumeen iritziak, sentimenduak, jarduerak eta balioak jasotzeko orduan.

AHALDUNTZE KONTZEPTUA TESTUINGURUAN JARTZEA

3.5

Sakontasunean lantzeko asmorik gabe, esan daiteke ahalduntze kontzeptua ingelesezko *“empowerment”* hitzetik datorrela, eta botere handiagoa lortzea, sendotzea esan nahi du. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. eta V. plane-tan adierazi bezala, ahalduntzea honetan datza: emakumeak *“banaka eta talde gisa, euren*

egoeraren jabe egitea, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea” (2006:44; 2010:80).

Ahalduntzea kontu integrala edo dimentsioanitza da, lotura duena gizarte-bizitzako alor guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzearekin, eta, horrenbestez norberaren nortasunaren eraketarekin (ROWLANDS, 1997; MOSADALE, 2003; SÁNCHEZ ÁLVAREZ, 2007; FUNDACIÓN ISONOMÍA, 2009). Horregatik, ahalduntzearen “prozesua ez da banakora mugatzen; taldearen eremura ere zabaltzen da” (EMAKUNDE, 2010:81).

Lotura-joko hori, norbanakoaren kontzientzia-hartzea, hura gizartean irudikatzea, eta hartatik eraldaketa politikoa izatea, testu honetan adierazten da MURGUIALDAY ETA VÁZQUEZ (2005:43-44). Ahalduntzea prozesu osatua da ahalduntzea osatzen duten hiru mailak edo azpiprozesuak gauzatzen direnean: “norberaren” boterea (nork berak bere premien eta interesen kontzientzia hartzea), estu-estu lotuta dagoena autonomia kontzeptuarekin; boterea “honekin:”, norberaren bizitzaren gain erabakitzekeo gizarte- edo talde-antolaketa moduren bat dakarrena; eta, azkenik, boterea “honetarako:”, mobilizazio politikoa dakarrena, genero-mendekotasuneko eta genero-desberdintasuneko egiturak aldatzeko.

Guri dagokigun esparruan, beharrezkotzat jotzen dugu ahalduntzeari enpirikoki heltzerakotan ez egitea haren osotasunetik, baizik eta haren hiru mailak edo azpiprozesuak nola gauzatzen diren ikusita. Hori da Emakunderen jokatzeko modua, eta, esaterako, Berdintasunerako V. planean, hori da esku-hartzeko ardatz nagusietako bat (2010:75 eta hurrengoak).

Emakumeek arian-arian lortzen dute beraien bizitzaren gaineko kontrola, eta bidea, nork berak bere buruaren kontzientzia hartzetik (norberaren boterea) gizarte-kontzientziarako (boterea honekin:) eta kontzientzia politikorako (boterea honetarako:) bidea, ez da berdina pertsona guztietan, pertsonaren zirkunstantziaren arabera baita. Ahalduntzearen testuinguruaren arabera ikusmoldea prozesu moduan adierazita zuen MAGDALENA LEÓN ikerlariak (2001:104), eta ikuspegi teoriko horri eutsi zaio Euskadiko nerabeei buruzko ikerketan (EMAKUNDE, 2006), eta Emakunderen 2009ko berdintasunerako foroaren ondorioetan, adierazi baitzen ahalduntze prozesuak aniztasun semantikoa zuela eta esanahi *“desberdina izan dezakeela emakume bakoitzarentzat, nolakoak diren haren premiak eta helburuak, gizarte-testuingurua, bizitzaren unea eta gizarte-ingurunea.”*

Eta ikuspegi berarekin egin nahi izan dugu ikerketa hau. Ikusiko den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ahalduntze-prozesuko etapak identifikatzeko lan konplexuena ez da lehen mailan edo azpiprozesuan izan (alegia, norberaren boterean edo norberaren autonomiaren pertzepzioan), baizik eta bigarrean (gizartekoan) eta, bereziki, hirugarrenean (politikoan). Dena den, hurrengo atalean adieraziko den bezala, belaunaldi bakoitzari, agian, harreman espezifikoak edo testuinguruan jarritakoa eskatu beharko zaio ahalduntze-prozesuaren garapenaren mailan.

**TESTUINGURU
SOZIOHISTORIKOA
ETA EMAKUMEEN
BELAUNALDI HORREN
SOZIALIZAZIOA**

3.6

Ikerketa honetako kezka nagusietako bat izan da, ikerketaren emaitzak interpretatzerakoan, ez ahaztea ikerketak xede duen emakume-taldearen ezaugarri objektiboak eta sozio-logikoak.

Ezin dugu ahaztu 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeak direla, eta ibilbide biografiakoan aldaketa imajinagaitzak bizi izan dituztela, bizitzaren alderdi guzti-guztietan: egunero-koan bizitzeko baldintza materialak, teknologia-berrikuntzak, lorpen sozialak eta politikoak eta abar. Ziurrenik, bi planeta desberdinetan bizi izan dira, gutxienez.

Belaunaldi honetako emakumeak Frankoren diktaduran egin ziren gazte eta heldu. Testuinguru, ingurune edo egitura sozial eta politiko horrek eginkizun oso argia esleitu zion emakumeari: etxerako-izatea, besteentzat-izatea. PILAR FOLGUERA historialariaren azterketek (1993; 1995; 1997) ondo baino hobeto erakusten dute zer eragin izan zuen emakumeengan historiako aldi horretako gizarte-egituraketaren eredu horrek. Eta hezkuntzak –eta hartan parte hartzen zuten eragileek– eginkizun nagusia izan zuen.

Etxeko-familiako arlora mugatutako autonomia zen, ugalketarekin lotutako jardueretara, beste pertsona batzuk zaintzera mugatutakoa, eta neutralizatuta zuten arlo publikoko parte-hartzea –lanaren, politikaren, elkartegintzaren eta antolakuntzaren arloa–, gizonei esleitura baitzegoen. Horixe zen, ikerketa honen xede den emakumeek bizitzan, hein batean edo bestean, izan zuten “testuinguruzko oinarria”.

Duela bi hamarkada jada, alderdi horixe bera azpimarratu zuen ANNA FREIXASEk ere, aipatu zuenean zaila dela gizarte- edo talde-ahalduntzearen prozesuan laguntzea adineko emakume horiei, hots bizitzaren zati handi batean sozializazioaren eta jarduera nagusien helburua ugalketaren arloa izan duten emakumeei. *“Emakumea etxean egon da eta, beraz, ez da botere-zirkuluetan egon. Gizarte-fenomeno horretatik kanpo dago gizona, ez baitu jasaten emakumeak zahartzean jasaten duen diskriminazio bikoitza –emakumea eta zaharra izatea–, eta, beraz, zahartu arren ez dirudi gizonaren boterea eta erakargarritasuna murrizten denik sozialki.”* (1991:74)

Dena dela, analisi edo interpretazio dimentsiobakarrekoegia izango litzateke pentsatzea sistema kulturalak generoko rola, alorrak eta identitateak esleitzerakoan duen pisuak, eraginak edo erabakitze gaitasunak erabat ezeztatzen dutela pertsonen agentetza edo eragiteko gaitasuna, eta kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeena. Egituraren eta agentetzaren arteko loturak aztertzeak gai labai-netan sartzea ekarriko luke, agian, baina erroa edo oinarria gizartearen eta norbanakoaren oreka-joko horretan ditu ahalduntzeak.

Kontziente izanik zenbaterainoko zailtasuna duen bereiztea zein mailatan dugun pertsonok erabakiak autonomiaz hartzeko aukera gure bizitzako testuinguru edo une jakin batean, maila edo ikuspegi hau izango dugu: norbanakoaren aukerak baldintzatuta daudela dioena, ELIASek (1990) planteatutakoaren haritik. Pertsona batek hartzen dituen erabaki guztiak ez dira bere erabakiaren baitan hartutakoak soilik, ez eta bere gizarte-testuinguruaren baitan hartutakoak soilik, elkarrekiko mendekotasuneko sare horren eraginez, aldi berean modelatu eta norbanakoaren agentetzari aukerak ematen dizkion sare horren eraginez.

Guri dagokigun kasuan, berriro diogu ezinbestekoa dela une oro kontuan izatea 65 urteko eta hortik gorako emakume horien sozializazioaren testuingurua, egokiago interpretatzeko ahalduntze-prozesuaren ibilbidea eta egungo egoera. Testuinguruan jarritako ikuspegia da, agian, egokiena jakiteko zer exijentzia-maila eska dakioken pertsona bati, belaunaldi bati, prozesu batean, hala nola ahalduntzean, edota jakiteko zer irismen izan dezakeen prozesu batek.

**ESTRATEGIA
METODOLOGIKOA:
METODO
KUALITATIBOA ETA
KUANTITATIBOA
ONDOZ ONDO
ERABILTZEA**

3.7

Nerabeen taldea ikertuz (2009) Emakundek zenbait taldetan ahalduntzearen egoera zein den jakiteko abian jarritako ikerketa-ildoari jarraitu beharra zegoenez, hurbiltzeko metodologia bera erabili genuen, jakina, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik goragoko emakumeen taldeari heltzeko.

Baina estrategia metodologiko horri jarraitzeko arrazoia ez zen hura soilik izan. Esperientzia hura egokia izan zen. bai prozesua, bai emaitzak egokiak izan ziren. Eta oraingo honetan ere, ikerketa hau aitzindaria izanik, zuhurra zirudien lehenik eta behin funtsezko zenbait gertaera jakitea adineko emakumeen ahalduntzearen eta erabaki-hartzearen alorrean. Lehenengo esplorazio-estrategia honetan, "metodo kualitatiboa" erabiliz eginikoan (haren bi teknika erabiliz, "elkarrizketa sakona" eta "eztabaida taldea"), langile espezialistek hartu zuten parte, bai eta aztergai den taldeko kide diren pertsonak, eta horien lanaren ondorioz, emakumeen belaunaldi horren "errealitateari" hobeto egokitzen zaion informazio-bilketako tresna bat sortzen lagundu zuten, kasu honetan etxez etxe betetzeko galdetegi bat sortzen.

IKERKETAREN FASEAK

3.8

Atal honetan, ikerketaren faseak azaltzen dira, kontuan izanik ondoz ondo uztartu direla, lehen ere esan dugun bezala.

**TESTUINGURUAN JARTZEA,
BIBLIOGRAFIAREN BIDEZ**

3.8.1

Ikerketaren lehen fasea erreferentzia bibliografikoak bilatzea izan zen, ikerketa-gaia osatzen zuten alderdi guztiak eta nagusiak "testuinguruan" jartzeko. Adierazi bezala, ahalduntzearen eta adineko pertsonen, oro har, eta, bereziki, adineko emakumeen artean zer lotura dagoen ikusteko ikerketak oso urriak direnez, bilaketa bibliografikoa zabala izan zen,

eta leku askotan bilatu behar izan zen: zahartze-prozesuarekin lotutako ikerketak aztertu ziren, bai eta adineko emakumeen bizitza-baldintzei buruzkoak ere. Dena dela, ikerketa aplikatuei eman zitzairen lehentasuna, eta, bereziki, kuantitatiboak zirenei.

SAKONEKO ELKARRIZKETAK **3.8.2**

Bilaketa bibliografikoa egin ondoren, eta haiek irakurtzen eta aztertzen ari ginen une berean, ikerketaren bigarren faseari ekin zitzaion: sakoneko elkarrizketak egin zitzaizkien adineko emakumeen taldea ongi ezagutzen duten lau “informatzaile estrategikori”. Hona hemen:

1. Elena Urdaneta: Fundación INGEMA-Matia fundazioko ikerketa-arduraduna eta zuzendarikidea.
2. M^a Teresa Bazo: EHUko irakaslea, zahartzearen alorrean ikerketa asko eta asko egin dituen.
3. Norma Vázquez: generoarekin eta ahalduntzearekin lotutako gaietan aditua.
4. Loli Bilbao: Nagusilan elkartearen arduraduna Bilbon.

Elkarrizketarako diseinatu zen gidoia nahikoa irekia zen, eta fase bibliografikoan agertutako alderdi interesgarriak eta ikerketaren helburuak izan zituen oinarri. Aukeratutako pertsonei igorri zitzairen gidoia, bai eta ikerketaren egiaztagiriri ofiziala ere. Elkarrizketa pertsona horien egoitzan egin zen.

EZTABAIDA-TALDEAK **3.8.3**

Sakoneko elkarrizketak egin eta haien lehen azterketa eginez, hobeto zehaztu ahal izan zen ikerketa-gaia, eta horretan oinarrituta eztabaida-taldeak diseinatu ziren. 65 urteko eta hortik gorako emakumeen bi eztabaida-talde eratu ziren.

1. “Zahartze polita” ahalduntze-lantegian parte hartu zuten emakumeak. Lantegia Durangon egin zen, Andragunean.
2. Nagusilan elkarteko Bilboko taldean parte hartzen duten emakumeak, adineko pertsonekin boluntario-ekintzak egiten dituztenak.

Ikerketa-gaia izan zen oinarri adineko emakumeen bi profil horiek aukeratzeko. Zuzen-zuzenean jakin nahi genuen zergatik parte hartzen zuten emakume-talde horiek jardueran. Baina, horrez gain, jakin nahi genuen –agian, zeharka– zer iritzi zuten beraien belau-naldiko beste emakume batzuek, hots zer iritzi zuten beraiak egiten zituzten jardueran gutxi-asko formalizatu horietan parte hartzen ez zuten emakumeek.

Lehenengo hiru faseek galdetegia diseinatzeko beharrezko elementuak eman zizkiguten; hots, ikerketa honetako helburuak betetzeko "giltza" zen galdetegia diseinatzeko. Horixe izan da, ezbairik gabe, lan honetako ahalegin "handiena". Ahalduntzea modu enpirikoan edo aplikatuan islatzeko zaila den prozesua bada, are zailagoa da 65 urteko eta hortik gorako emakumeen taldeari aplikatzea.

Ahalduntzearen prozesu-dimentsioa sartzeari izan da, emakumeen belaunaldi horren ibilbide biografikoa edo bizitza-ibilbidea aintzat hartuta, galdetegia diseinatzea zaildu duen arrazoi bat. Ikerketa honen dohainetako bat zen galdetegian sartzeari emakume horien autonomia-ahalmenaren eta erabakiak hartzeko ahalmenaren bilakaera –handitu edo txikitu izana– jakiteko aukera emango zuten galderak. Ez zen nahikoa egoeraren argazki bat soilik egitea, bizitza-baldintzen azterketetan egiten den bezala; aitzitik, ezinbestekoa zen ikuspegi panoramikoa edo luzetarako ikuspegia sartzeari, ikusteko zenbaterainoko eragina duen ahalduntze-mailan adineko pertsonen taldean sartzeari (65 urte bete ondoren).

Bada galdetegia diseinatzea zailtzen duen beste arrazoi bat ere: nola egin nabari, nola adierazi edo egokitu ahalduntzearen hizkuntza emakumeen belaunaldi horri, oro har diskurtso hori modu mugatuan edo urrutitik ulertzen duten emakumeei. Eta ikusiko denez, ahalegin handiak egin arren, kasu batzuetan ezin izan da guztiz gainditu belaunaldi-alde hori, hizkuntzan adierazitako belaunaldi-alde hori. Esan liteke ahalduntzearen kontzeptua ez dela haien ezagutza-ondarearen atal (SCHÜTZ, 1995).

Galdetegia batzuen baino gehiagoren artean diseinatzeak erraztu egin du adineko emakumeen ahalduntzeari hurbiltzeko tresna bat sortzen. Halaber, lagin osoaren %3ri aurre-test bat egitea ere lagungarri izan zen galdetegiko hizkuntza eta tonua ongi egokitze emakume horien ezaugarriei, hots gure autonomia-erkidegoan bizi eta 1946. urtea baino lehen jaio ziren emakumeen ezaugarriei.

Eranskinean jasota dago galdetegia, eta ikus daitekeenez, galdetegi zabala da, hirurogeita hamaika galdera dituen, eta guztira bostehun erantzun-aukera baino gehiago dituen. Horietako gehienak erantzun itxiak dira, baina badira ireki batzuk ere.

Hasierako unibertsoa, 2006. urteko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan oinarritua, 230.965 pertsonakoa zen (Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeak), eta autonomia-erkidegoko biztanleria osoaren %11 da. Estatistikoki esanguratsua den lagina izan zedin, 600 galdetegi bete behar zirela kalkulatu zen. Lagin horren estatistika-errorearen muga +/-%5ekoa da, %95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q=50$ izanik.

Lagina talde bakoitzak hiru lurretan duen pisua kontuan hartuta banatu zen, eta lurralde historiko bakoitzean hiru biztanleria-segmentu kontua hartuta: adin horretako 10.000 emakume baino gehiago; adin horretako 2.000 eta 9.999 emakume artean; eta adin horretako 2.000 emakume baino gutxiago (3.1. taula). Hortik abiatuta, lagina banatu zen (3.2. taula), bai eta ibilbideak ere (3.3. taula), horietako bakoitzean bost galdetegi zeudela. Ausazko hautaketa egin zen, atari bakoitzean galdeketa bakarra eginda.

Ibilbideak hautatzeko erreferentzia EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundearen Zentsu-sekzioen tipologia izan zen. Tipologia horrek zentsu-sekzioak bereizten ditu irizpide sozioekonomikoak eta soziokulturalak aintzat hartuta.

3.1. TAULA Unibertsoa. Lurralde Historikoak eta EAeko guztirakoa

BIZTANLERIA-SEGMENTUAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAeko GUZTIRAKOA
10.000 emakume baino gehiago	21.152	57.840	22.515	101.507
2.000 eta 9.999 emakume artean		37.424	20.570	57.994
2.000 emakume baino gutxiago	7.465	33.378	30.621	71.464
GUZTIRA	28.617	128.642	73.706	230.965

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika (BEE06). Guk egina.

3.2. TAULA Laginaren banaketa. Lurralde Historikoak eta EAeko guztirakoa

BIZTANLERIA-SEGMENTUAK	GALDETEGIEN BANAKETA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAeko GUZTIRAKOA
10.000 emakume baino gehiago	55	150	55	260
2.000 eta 9.999 emakume artean	0	100	50	150
2.000 emakume baino gutxiago	20	90	80	190
GUZTIRA	75	340	185	600

3.3. TAULA Ibilbideen banaketa. Lurralde Historikoak eta EAeko guztirakoa

BIZTANLERIA-SEGMENTUAK	IBILBIDEAK (5 GALDETEGI, IBILBIDEKO)			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRAKO OROKORRA
10.000 emakume baino gehiago	11	30	11	52
2.000 eta 9.999 emakume artean	0	20	10	30
2.000 emakume baino gutxiago	4	18	16	38
GUZTIRAKO OROKORRA	15	68	37	120

3.1. grafikoak adierazten du nola banatuta dauden proportzioan ikerketan parte hartu duten 65 urteko edo hortik gorako emakumeak bizileku duten lurralde historikoaren arabera. Lurralde historiko bakoitzak duen pisu espezifikoarekin bat etorrira, emakumeen %56,7 Bizkaian bizi zen, %30,8 Gipuzkoan, eta gainerako %12,5a, Araban.

**INFORMAZIO
KUANTITATIBOAREN
SISTEMATIZAZIOA**

3.8.5


Ikerketarako erabili den galdetegia zein zabala den ikusita, ohar gaitzeko zenbaterainoko zailtasuna duen hura sistematizatzeko. Gainera, galdera irekiak daudenez, zailagoa izan da sistematizatzeko, baina, pentsatzen genuen bezala, galdera irekiak egiteak –eta horregatik ez genituen galdera itxi bihurtu– aukera eman digu sakon jakiteko zer-nolako ahalduzko maila duten 65 urteko eta hortik gorako emakumeek.

Sistematizazio horren emaitza da orain aurkezten dizuegun txostena. Baina horrez gain, ahalduzkoekin lotutako hainbat aldagai ere aurkezten ditugu, lagungarri izan dakizkizuen –horrela espero dugu, bederen– emakumeen belaunaldi horren ezagutzan jarraitu eta sakontzeko.

3.4. TAULA Egindako landa-lanaren banaketa. Udalerriak, segmentua, ibilbideak eta galdetegi-kopurua. Lurralde Historikoak eta EAEko guztirakoa

UDALERRIAK	BIZTANLERIA	SEGMENTUA	IBILBIDEAK	GALDETEGIAK
Vitoria-Gasteiz	21.152	10.000 emakume baino gehiago	11	55
Amurrio	913	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Salvatierra/Agurain	372	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Laguardia	188	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Asparrena	202	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Araba, guztira	22.827		15	75
Bilbao	45.918	10.000 emakume baino gehiago	24	120
Barakaldo	11.922	10.000 emakume baino gehiago	6	30
Getxo	7.970	2.000 eta 9.999 emakume artean	5	25
Portugalete	6.041	2.000 eta 9.999 emakume artean	5	25
Basauri	5.082	2.000 eta 9.999 emakume artean	5	25
Durango	2.545	2.000 eta 9.999 emakume artean	5	25
Bermeo	1.986	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Amorebieta-Etxano	1.619	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Zalla	765	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Sopelana	711	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Muskiz	679	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Markina-Xemein	510	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Bizkaia, guztira	85.748		68	340
Donostia-San Sebastián	22.515	10.000 emakume baino gehiago	10	50
Irun	6.111	2.000 eta 9.999 emakume artean	3	15
Errenteria	4.059	2.000 eta 9.999 emakume artean	2	10
Eibar	3.739	2.000 eta 9.999 emakume artean	3	15
Pasaia	2.068	2.000 eta 9.999 emakume artean	2	10
Zarautz	1.891	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Hernani	1.865	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Bergara	1.666	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Lasarte-Oria	1.529	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Zumaia	766	2.000 emakume baino gutxiago	3	15
Alegia	163	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Ikaztegieta	29	2.000 emakume baino gutxiago	1	5
Gipuzkoa, guztira	46.401		37	185
EAE, GUZTIRA			120	600

3.1. GRAFIKOA Egoitza lurralde historikoen arabera. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



**LANDA-LANARI
BURUZKO OHARRAK**

3.9

Ikerketa honetan egindako landa-lana, bai kualitatiboa bai kuantitatiboa, ontzat eman da oso. Fase kualitatiboan parte hartu zuten emakumeek jarrera anbibalentea zuten ikerketa-rekiko: batetik, harrিতuta zeuden norbaitek beraien eguneroko jardueretik interesa izatea, baina, bestetik, beraiak ere interesa zuten azken emaitzak nolakoak ziren jakiteko.

Informatzaile estrategiko moduan parte hartu zuten emakumeak jakitun izan ziren ikerketaren konplexutasunaz, ikerketaren gaia ondo, desorekarik gabe fokatzearen erronkaz. Baina, era berean, oso kontziente ziren ikerketa-ildo horrek akuilua izan behar zuela, hasiera-puntu edo inflexio-puntu bat, hurbilketa sakonago bat egiteko, adineko pertsonak oro har, eta emakumeak bereziki, zabalago aztertuko dituen, dibertsitatea bilatuko duena eta ez homogeneotasuna, belaunaldi horrek berezko dituen potentzialtasunak bilatuko dituen; funtsean, haien balioa agerian jarriko duena, egiturazko balioa, hain zuzen.

Azkenik, aipatu behar da landa-lan kuantitatiboak eman dizkigula une atseginenak. Horrek ez du esan nahi, inondik ere, landa-lana erraza izan denik. Zenbait zailtasun izan genituen lana egiteko; esaterako, galdetegia oso zabala zen, gai batzuen edukia korapilatsua, eta informazioa biltzeko zenbait ekintza egiten ari ziren aldi berean 2011ko urrian eta azaroaren lehen egunetan. Beste zenbaitetan ere izaten dira arazoak, ordea.

Baina izan da alde bat oraingoan, zorionekoa: atea ireki dizkiguten emakumeak topatu ditugu, etxeko atea ireki ez ezik, beraien ibilbide biografikoaren atea ireki dizkigutenak, beraien esperientziak jakinarazi baitizkigute, eta zer iritzi zuten beren buruarekiko, beraien belaunaldiko emakumeekiko eta beste belaunaldi batzuetako emakumeekiko (alabak, bilobak eta abar), eta hori gutxi balitz, eskertu egin digute guk entzun izana. Eskerrak gureak dira.

Txostenaren emaitzak honela egituratu dira:

- 4. kapituluaren, egiturazko lau elementu azaltzen dira, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen taldearen ezaugarriak adierazteko.

Talde horren barruko adin-desberdintasuna –“hirugarren” eta “laugarren” adina deritzenak–, egoera zibila, amaitutako ikasketa-maila, eta, azkenik, heldua zeneko bizitzan –heldu-bizitzan– egin duen jarduera nagusia. Izan ere, alderdi horiek belaunaldi horretako emakumeen portaera eta jarrera zehazten edo baldintzatzen duten gertaerak dira. Une oro jakin beharreko alderdiak dira, ulertzeko zer-nolako ahalduntze-estrategiak erabili zituzten eta zein mailatan erabili zituzten belaunaldi horretako emakumeek.

- 5. kapituluaren emakume-talde horren egungo egoeraren argazkia da. Horregatik, kapitulu horrek egoeraren diagnostikoaren antza du, eta kasu honetan, egituratzearen oinarria emakumeen beraien eguneroko bizitzako jardueretan duten autonomia-maila da.

Ikuspegi horretatik, jakin nahi dugu zer autonomia-maila duten bizikidetzan-moduan, ekonomia-kudeaketan, ohiko gizarte-jardueren banaketan eta maiztasunean, parte-hartze modua norbanakoaren jardueretan, eta jarduera antolatuetan eta instituzionaletan, senideen zaintza-jardueretan (aurrekoen zein ondorengoen zaintza), edota bera den besteek zaindu behar dutena.

- Aurrekoaz bestela, 6. kapituluaren muina da jakitea ea izan den aldaketarik gizarte-jardueretan denboran zehar 65 urteko eta gehiagoko emakume-talde horretan. Horrenbestez, luzetarako ikuspegia edo ikuspegi diakronikoa erabiltzen da, oso-oso egokia pertsonaren baitako edo belaunaldi baitako ahalduntze-prozesu oro identifikatzeko.

Hori dela eta, kapitulu horretan jakin nahi da aldaketarik nabaritu duten norberaren noritasunean 65 urtea bete ondoren, nola adierazten diren balizko aldaketa horiek bere eguneroko bizitzako mailetan edo alderdietan, eta libre duten denbora nola ikusten duten eta nola kudeatzen duten, aurreko bizitza-zikloekin alderatuta.

- 7. kapituluaren belaunaldien arteko alderdiak dira muina eta ez 6. kapituluaren bezala belaunaldien baitakoak –edo pertsonen baitakoak–.

Horrela bada, alderaketan emaitzak azaltzen dira, belaunaldi zaharreneko emakumeak geroagoko belaunaldiekiko, belaunaldi gazteekiko alderatuta (alabena, bilobena, eta are birbilobena ere), autonomia-mailari eta erabakiak hartzeko ahalmenari erreparatuta.

- 8. kapituluaren Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik goragoko emakumeen ahalduntzearen eskala bat agertzen da.

Aurreko emaitzetako batzuk laburbilduz, eskala horrek emakumeen bost tipologia sortzen ditu, oinarri hartuta haiek nola ikusten duten beraien bizitza-zikloan zeharreko autonomia-mailaren bilakaera eta gaur egun ohiko zer jarduera egiten dituzten.

Ageri-agerikoa da eskala hori gutxi gorabeherakoa dela, eta funtsean ahalduntze-prozesuaren lehen mailan oinarrituta dagoela. Baina eskalaren helburua izan da adineko emakume horien belaunaldiaren errealitate heterogeneo horren irudi zehatzagoa izatea, eta tipologia horiek erraztu egiten dute kasuan kasura bideratutako estrategiak ezartzea.

- 9. kapitulua ondorio modukoa da, argi eta garbi: ikerketaren emaitzen eta ikuspegiaren azken gogoeta gisakoa da.
- Bibliografia dator hurrena, eta haren atzetik, eranskinetan, taulen eta grafikoen aurkibidea dator, bai eta ikerketarako erabili den galdetegia ere.

Aurretik, nerabeei buruz egindako ikerketaren (EMAKUNDE, 2009) ildoari jarraituz, pentsatu nahi genuke ikerketa irakurtzen dutenek emaitzetatik egin dugun interpretazioa egokientzat jotzea, datu anabasa horren interpretazio egokiena hau izatea. Baina nahiago genuke beste gauza bat pentsatu: interpretazioa ez dela interpretazio posible bakarra, emaitzek beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen baitute. Horrela balitz, ikerketa honen helburuetako bat beteko litzateke: aitzakia izatea, adineko emakume-talde horren –eta zergatik ez, beste talde batzuen– erabakitzeke ahalmenarekin lotutako gaiak jorratzen jarraitzeke.

4

EGITURAZKO LAU ELEMENTU, ABIAPUNTU GISA

Badira duela gutxi erabilitako azterketak (EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZO-ETAKO BATZORDEA, 2011; EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO, 2010 eta 2005) eta nahikoa adierazle estatistiko (EUSTAT, 2007 eta 2010; IMSERSO, 2010) erakusteko zein diren Euskadin bizi diren adineko pertsonen ezaugarri demografikoak; baina ikerketa honetarako, ezinbestekoa da, gainera, gure azterketaren gai izango diren pertsonak "testuinguruan" jartzea.

Testuinguruan jartzeko, egiturazko lau elementu aukeratu ditugu: bi adin-talde bereiztea adineko emakume-talde horretan; emakume horien egoera zibila; ikasketa-maila; eta jarduera-ibilbidea, jarduera produktiboetan eta ugalketa-jardueretan. Abiapuntu bat dira, gogoa izateko, une oro, zein den emakume horien ibilbide biografikoa edo bizitza-ibilbidea. Ikerketaren ondoriozko batez besteko adinak erakusten duenez, 1936. urtean jaiotakoak dira, hots duela 75 urte. Horrenbestez, beraien garaiko emakumeak dira, pertsona oro bere garaikoa den bezala, eta, beraz, aurreko mendeko berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkada horietan indarrean zeuden lehen mailako eta bigarren mailako sozializazio-ereduaren eraginpean daude.

Belaunaldi baten portaera-eredua eratzten duten egiturazko elementu horien barruan, beste hauek ere sar daitezke: bizikidetzamodua –famiariakoa eta etxebizitza–, gaur egun zer jarduera duten eta diru-sarrerak. Hots, egoera soziologikoaren edo bizi-baldintzen diagnostikoa egiteko erabiltzen diren faktore guztiak. Baina ikerketa honen logikak –analisi- eta argudio-logikak– dio beste "gertaera" soziodemografiko horiek erakusten dutela jada 65 urteko eta hortik gorako emakumeek badituztela ahalduztze-maila batzuk. Emakume horiek hartutako erabakiek alda zezaketen, maila batean zein bestean, nola bizi diren, nolako elkarbizitza duten eta nola kudeatzen dituzten diru-sarrerak.

**BI ADIN-TALDE TAN
SEGMENTATZEA:
LANDA-LANAREN
ONDORENEKO
AUKERA BAT**

4.1


Metodologiari dagokion kapituluari adierazi da ikerketa honen azterketa-unibertsoa Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakume-taldea zela, oro har hartuta. Eta, horrenbestez, hasieran ez zegoen talde horren barneko adin-tarterik ezartzeko asmorik; baina 4.1. taulan ikusten den bezala, praktikan, nahiko modu homogineoan banatuta dago bost urteko lau kohorte edo multzotan.

4.1. TAULA Adin-taldeak eta batez besteko adina. Ehunekoak

ADINA	%
65-69	27,5
70-74	19,8
75-79	23,3
80 baino geh.	29,3
<hr/>	
GUZTIRA	100,0
<hr/>	
URTEAK BATEZ BESTE	75,4

Emaitza horiek bi adin-taldetan segmentatzeko aukera estatistikoko baldintzak eman dituzte: lehenengo taldea Euskadin bizi eta galdetegia egin zen unean (2011) 65 eta 74 urte bitartean zituzten emakumeek osatzen dute (guztirakoaren %47,3 dira), eta bigarrena 75 urte eta hortik gora duten emakumeek (gainerako %52,7a dira).

4.1. GRAFIKOA Bi adin-taldetan segmentatzea. Ehunekoak



Azterketa honetako ataletan agerian geratuko den bezala, erantzunetako askotan ikusi da alde handiak daudela bi adin-taldeen artean, oro har "hirugarren" eta "laugarren" adintzat kategorizatu ditzakegun horien artean, non eta 1937. eta 1946. urteen artean jaio den emakumea izateak (65 eta 74 urte bitartean gaur egun) edo 1936. urtea baino lehen jaiotako emakumea izateak (75 urte edo hortik gora gaur egun) eraginik izango balu bezala esperientzietan eta iritzietan. 65 urteko eta hortik gorako emakumeen homogeneotasuna, beraz, kategorizazio estatistikoa da, androzentrikoa dela ez esateagatik, jardueraren ageriko moduetan pentsatuta baitago (IMSERSO, 2009: 44). Heterogeneotasuna, berriz, ego-kiagoa da ñabarduraz betetako errealitate bat adierazteko.

Dena den, adierazi behar da ikerketa honen emaitzak guztirako emaitzarekiko soilik direla adierazgarriak estatistikoki, eta, beraz, "hurbilpenak" besterik ez dira adin-taldeen seg-


mentazioan egiten diren analisiak. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu adineko pertso-
nen gizarte-errealitate –ez estatistiko– heterogeneo horri hobeto egokitutako ikerketa apli-
katuak egitea.

EZKONDUAK EDO ALARGUNAK

4.2

4.2. grafikoko emaitzek ez dute zalantza-izpirik uzten: Euskadin bizi den 65 urteko edo hor-
tik gorako bi emakumetik bat ezkondua dago (%51,8). Kopuru horretatik oso hurbil daude
alargun diren emakumeak: guztizkoaren %40,7. Beraz, bi egoera zibil nagusiak dira ema-
kumeen belaunaldi horien artean.

4.2. GRAFIKOA Egoera zibila. Guztira eta adin-taldeka. Ehunekoak



Dena den, ageriko aldeak daude hemen ezarritako bi segmentuen artean: “ezkondua”
egoera zibila dute 65 eta 74 urte bitarteko emakumeen bi herenek (%66,5), eta, aldiz,
“alarguna” egoera zibila da nagusi 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (bitik
bat baino gehiago: %55,4, hain zuzen ere). Emaitza horiek agerian jartzen dute emakume-
en bizi-itxaropena handiagoa dela gizonena baino.

Halaber, adin-taldeen artean egoera zibilean dauden aldeak agerikoak dira beste adierazle
batzuetan ere: diru-sarrerak, diru-sarrera horien hileko zenbatekoa eta bizikidetzaren neurria.

65 urteko eta hortik gorako emakumeek amaitutako ikasketak bi modutan aurkezten dira: Banakatuta, 4.2. taulan, eta lau segmentutan bilduta, 4.3. grafikoan. Ondo adierazten ditu, halaber, emakumeen belaunaldi horiek bizi izan diren testuinguru soziala, ekonomikoa eta politikoa. Ibilbide biografikoaren hasierako etapetan hezkuntza izateko aukera edukitzea oso ezaugarri urria zen, eta are urriagoa emakume horien artean, haien hasierako hezkuntza-prozesua, oro har, lehian zegoelako, aldi berean, beste premia batzuekin, joan den mendeko hogeita hamarreko, berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan, batez ere.


4.2. TAULA Amaitutako ikasketa-maila. Guztira eta adin-taldeka. Banakapena. Ehunekoak

AMAITUTAKO IKASKETA MAILA	ADINA		
	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Alfabetatu gabea	6,3	16,1	11,5
Amaitu gabeko lehen mailako ikasketak	35,2	49,7	42,8
Lehen mailako ikasketen egiaztagiria / OHO titulurik gabe	31,7	19,3	25,2
Eskola-graduatu / Oinarrizko batxilergoa errebalidarekin	11,3	7,9	9,5
LH 1. maila (teknikaria edo teknikari laguntzailea) / Ofizialtza industrial	3,2	1,9	2,5
LH 2. maila (teknikaria edo teknikari espezialista) / Maisutza industrial	2,5	0,3	1,3
BBB / UBI / PREU / Goi-mailako batxilergoa errebalidarekin	1,4	1,6	1,5
1. zikloko unibertsitate-titulazioa (Diplomatura)	3,9	1,9	2,8
2. zikloko unibertsitate-titulazioa (Lizentziatura)	3,9	1,3	2,5
3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoretza)	0,7		0,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Horregatik, ez da harritzekoa gehiengo izatea lehen mailako ikasketak dituztenak; hamar emakumetik zazpi (%68), hain zuzen ere, eta, horietako gehienak gainera, bukatu gabe izatea ikasketok (%42,8). Halaber, analfabetismoa oso lotuta dago adinarekin: %16,1ekoa da 75 urteko eta urte gehiagoko emakumeen artean, 65 eta 74 urte bitarteko emakumeen artean baino hamar puntu handiagoa (%6,3).

Finean, ez da ahaztu behar 65 urteko eta hortik gorako emakume horien hezkuntza- eta sozializazio-egoera hori, oso erakusgarria baita; izan ere, *“prestakuntza-mailak asko baldintzatzen du denboraren erabilera eta pentsatzeko modua adin guzti-guztietako pertsonengan.”* (PÉREZ ORTIZ, 2003:533)

4.3. GRAFIKOA Amaitutako ikasketak. Guztira eta adin-taldeka. Bilduta. Ehunekoak




**JARDUERA-IBILBIDEAK
HELDU-BITZAN:
"BESTEENTZAT-IZATEA"**

4.4

Adierazi dugun bezala, ikerketa honen argudio-ildoaren kezketako bat izan da ez ahaztea Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeak testuinguru sozial, politiko eta kultural jakin batean sozializatu zirela, Frankoren diktadura nagusi zen testuinguruan. *"Genero-sistemak, diktaduraren ideologian ezin hobeto bat etorriak, eta Eliza katolikoaren adar zaharkitu eta fundamentalistarenarekin elkar hartuta, emakumeak egiten zituen bere familiako kide guztien ongizatearen arduradun, are haien zorionarena ere, eta balio "femenino" guztien euskarria etika bat zen, maitasuna (bestereantzalea) emakumeen interesgune zuena. Ezkondu, seme-alabak izan eta beste guztia alde batera utzi, haiek zaintzeko hil artean: horixe zen haren bizitzari nortasuna eta zentzua ematen zion ardatz nagusia, eta erabateko porrota zen ez ezkondu ahal izatea (neskazaharrak) edota ama ezin izatea."* (RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2002:90).

Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen heldu-bizitzako jarduer-ibilbidearen lehen aurrerapenetako bat, oso adierazgarria, 4.4. grafikoan adierazita dago. Hamar emakumetik ia lau (%39,3) erretiratuta dago, eta gainerako %60a, berriz, etxeko lanetan aritzen da (%33,2) edo pentsioduna da (%25,8).

4.4. GRAFIKOA Egungo lan-egoera. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak




Dena den, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen egungo lan-egoera zein den jakitea baino gehiago –hein handi batean espero zitezkeen egoerak, lehen adierazitako testuinguru soziohistorikoa dela eta–, ikerketa honek nahi zuena da emakume-talde horren jarduerabilbidea zein zen jakitea, zenbait ahalduntze-modu bereizteko. Horretarako, hau izan zen galdetegia diseinatzerakoan erabilitako estrategia: inkesta beteko zuen 65 urteko edo hortik gorako emakumeari autonomia ematea, berak adieraz zezan, lehendabizi, zein den bere ustez heldu-bizitzan zehar izan duen jarduera edo dedikazio nagusia, eta, ondoren, jakitea zein izan ziren emakume horrek erabaki horiek hartzera eraman zuten arrazoi nagusiak.

Horrela, 65 urteko edo hortik gorako emakume horrek berak egingo du bere biografia-ibilbidearen berrirakurketa moduko bat, ikusteko lan-arloan edo arlo produktiboan jardun duen eta etxe-familiakoan edo ugalketa-arloan, gure gizarte-bizitzaren bi arlo nagusietan, alegia (PARDO, 1992:34).

Hasieran hiru aukera eman baziren ere (etxetik kanpo lan egitea, bai etxetik kanpo bai etxean ere lan egitea, eta etxean lan egitea), lortutako emaitzek aukera ematen dute 65 urteko eta hortik gorako emakumeen talde horien heldu-bizitzan zeharreko jarduna bi arlo handi horietan laburbiltzeko. 4.5. grafikoak, gainera, erakusten du nahiko modu orekatuan banatuta dagoela 65 urteko eta hortik gorako emakume-talde horren jarduna bi arlo horietan.

4.5. GRAFIKOA Laneko esperientzia nagusia heldu-bizitzan zehar (edo gaur egungo egoeraren aurretik). Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



65 urteko eta hortik gorako emakumeen bi profil-eredu dira, bizitza-esperientzia eta gizarte-jardun oso desberdinak dituztenak: kasu batean, laneko eta etxeko-familiako espazioak eta denborak bateragarri egiten dira, eta bestean, berriz, etxeko-familiako espazioak bereganatzen zuen espazio eta denbora guztia.

PRODUKZIO-ARLOAN PARTE HARTZEA

4.4.1

Lan-arloan presentzia izan duten emakumeei erreparatuta (guztizkoaren %49,8, %53,9 65 eta 74 urte bitartekoetan, eta %46,2, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean), 4.3. taulak emakumeak berak adierazitako okupazio nagusiak edo garrantzitsuenak multzotan biltzen ditu –Lanbideen Estatuko Saillapenean (CNO) oinarrituta–, horretan emandako urteen batez bestekoa adierazten du, bai eta beste pertsona batzuekiko ardura duten.

Generoaren araberako laneko banaketa horizontala eta bertikala oso agerikoa da emakumeen belaunaldi honetan, oro har, lan-jarduera 1950. urtetik aurrera hasi zuten emakume hauen artean (BARBERÁ, 2002; LÁZARO, 2004). Eskuratutako hezkuntza-mailarekin estu estu lotuta, okupazio nagusiak kualifikazio txikikoak izan ziren, zerbitzu pertsonaletakoak eta ostalaritzakoak (etxeko langileak; dendetako eta biltegi-tako saltzaileak eta garbiketako langileak). Horrez gain, lau emakumetik batek baino zertxobait gutxiagok (%22,8) adierazi dute beste pertsonaren baten ardura zutela lanean. Bestalde, okupazio horretan, batez beste, ia 23 urte jardun dute.


4.3. TAULA Okupazio nagusia bizitzan zehar (CNO digitu 1), urteak batez beste, eta ardura-maila. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Zuzendari eta gerenteak	0,7	1,4	1,0
Teknikari eta profesional zientifiko intelektualak	9,2	4,8	7,0
Laguntzako teknikariak eta profesionalak	7,2	4,8	6,0
Kontulariak, administrariak eta bulegoetako beste langile batzuk	7,2	10,3	8,7
Jatetxeetako zerbitzuetako langileak, zerbitzu pertsonaletakoak...	30,7	23,3	27,1
Nekazaritzako, abeltzaintzako... langile gaituak	0,0	1,4	0,7
Eskulangileak, eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile gaituak	8,5	11,0	9,7
Instalazioetako eta makinietako eragileak, eta muntatzaileak	1,3	2,1	1,7
Oinarritzako okupazioak	35,3	41,1	38,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
JARDUERA HORRETAN BATEZ BESTE EMAN DITUZTEN URTEAK	23,1	22,5	22,8
ARDURAKO POSTUA DUTENEN %	22,9	12,3	17,7

Heziketa-maila handiagoa emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izatearen iragarlea dela ikerketa honetan ere egiaztatu ahal izan da: unibertsitateko ikasketak dituzten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ia %80k parte hartu dute lan-arloan, amaitutako gainerako ikasketak dituztenen ia bikoitza.

Gure autonomia-erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek beraien bizitza-ibilbidean abian jarritako ahalduntze-estrategiak eta erabaki-hartzeak zein diren jakitea helburu duen ikerketa honen alderdi garrantzitsu-garrantzitsu bat adierazten du 4.6. grafikoak. Badakigu zaila dela bi erantzunetan laburbiltzea zer arrazoiengatik parte hartu zuten emakume horiek arlo produktiboan edota lan-arloan, arrazoiak askotarikoak izan baitaitezke, baina arrazoi ekonomiko-instrumentala etxeko-familiako helburuei lotuta hamar kasutik ia seitan agertzen da.


4.6. GRAFIKOA Lan-arloko presentziaren arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. Hautaketa. Erantzun anitza (gehienez bi erantzun, batuketa 100 baino handiagoa)



Nahiz eta bizitza-estrategiak bideratzen dituzten motibazioak asko izan daitezkeen –edo bat baino gehiago aldi berean– kasu honetan bizikidetz-unitatera diru-sarrerak ekartzea da arrazoi nagusia, eta erantzun bat baino gehiago aukeratu duten ia guztiek adierazi dute. Horrek murriztu egiten du, edo bigarren mailan uzten du bederen, beste arrazoiren baten eragina, norbanakoarekin lotuago dagoen arrazoiren batena; esaterako, ezagutza profesionalak aplikatzea edo autonomia pertsonal handiagoa izatea.

Argudio-ildo horri jarraituz, 4.7. grafikoan bi alderdi adierazten dira, emakumeek lan-arloko parte-hartze horretan bizi izan zezaketen egoera laburbiltzen dutenak: lana uzteko presioak, edo lanean jarraitzeko laguntza. Emaitzek adierazten dute, portaera-eredu edo -jarraibide gisa, emakume horiek lan-arloan jardutea erabaki ondoren –lehen adierazitako arrazoiak direla eta–, beren ibilbide biografikoa interpretatzerakoan ez dutela hauteman ingurune hurbilenaren presiorik produkzio-arloa utzi eta etxeko-familiako arloan buru-belarri jarduteko (%90,3k adierazten dute hori). Halaber, eta planteamendu horren beste alde moduan –eta finean, sendotu egiten du– gehienek ez dute gogoan lan-arloan jarraitzeko laguntzarik jaso izana (%85,6k adierazten dute).

4.7. GRAFIKOA Presioak eta laguntzak lan- edo produkzio-arloko presentzian. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak




Dena dela, aurreko emaitzak nahiko argiak dira goian adierazitako portaera-eredua edo -jarraibidea defendatzeko; hots, 65 urteko edo hortik gorako emakume batek erabakitzen badu lanaren eta produkzioaren arloan parte hartuko duela, presentzia horren arrazoi nagusia (bizikidetz-unitaterako diru-sarrera gehiago lortzea) nagusitu egiten zaio izan dezakeen presio oro edo laguntza orori, batzuk zein besteak gainditu egin baitira arlo horretan parte hartuko duela erabaki duenean.

Lanaren arloan esperientzia duten emakume-multzo horretan, baldintzatzaileak (direla presioak, direla laguntzak), izan baziren parte hartzeko erabakia hartu aurretik ere. Oso desberdina da heldu-bizitza batez ere etxeko-familiako arloan jardutera bideratu zuten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ibilbide biografikoa. Hor bai ageriko egiten dira lan- eta produkzio-arloan ez parte hartzeko erabakietan berebiziko eragina izan zuten arrazoiak.

Orain, heldu-bizitzan zehar dedikazio nagusia etxe-familiako arloa izan duten emakumeen taldeari erreparatuko diogu (guztizkoaren %50,2 dira; %46,1, 65 eta 74 urte bitarteko-en artean, eta %53,8, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean). 4.8. grafikoan, arlo horretan jardutera nola iritsi ziren adierazten da; hots, aurretik ordaindutako lanen edo esperientziaren bat izanda, edota, aitzitik, aurretik horrelako inolako esperientziarik izan gabe.


4.8. GRAFIKOA Aurretiko esperientziaren bat lan-arloan (ordaindutako lana). Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak




Lan-arloko esperientziarik ez izatea da ohikoena 65 urteko eta hortik gorako emakume-taldean (%56,5), eta ohikoagoa 75 urte eta hortik gora dituzten emakumeen artean, hamarretik sei baino gehixeago baitira, eta 65 eta 74 urte bitarteko emakumeen artean, berriz banaketa orekatua da.

Gizarteko arloetan eta jardueretan genero-bereizketaren eragina –eta horrenbestez, nortasuna eratzekoan–, ageri-agerian dago emakume-talde hori ugalketa-arlorra zergatik bideratu zen adierazten duten erabakiak aztertzerakoan. 4.9. eta 4.10. grafikoek argi erakusten dute kultura-sistema eta gizarte-egituratzearen eta genero-nortasunen sistema hori: dela “momentu horretan horrela behar zuelako izan”, “horretarako hezi gintuztelako”, dela “beste batzuek etxetik kanpo lan egiten zutelako”, dela “ezkondu egin nintzelako”, “seme-alabak zaintzeko”, “etxera dedikatzeke.”

4.9. GRAFIKOA Lan-arloko esperientzia alde batera uzteko arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. Hautaketa. Erantzun anitza (gehienez bi erantzun, batuketa 100 baino handiagoa)



4.10. GRAFIKOA Lan-arloan esperientziarik ez izatearen arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. Hautaketa. Erantzun anitza (gehienez bi erantzun, batuketa 100 baino handiagoa)



Dena dela, eta atal honen sintesi moduan, agerian geratzen da, edozein izanda ere Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ibilbide-mota edo jarduera nagusia, hura aukeratzeko ahalmena erabat hertsatu zuela emakumeari egindako genero-esleipenak; hots, "etxerako-izan" (MURILLO, 1996), "besteentzat-izan" (FREIXAS, 2002:261).

5

**GAUR EGUN ADINEKOAK
DIREN EMAKUMEEN
ESPERIENTZIAK**

Kapitulu honen tituluak parafrasea egiten du LOURDES PÉREZ ORTIZ soziologoak (2006a) egin zuen hurbilpenarekin: 65 urteko eta hortik gorako emakumeen eta gizonen zahartze-ko modu berriak eta zaharrak aztertu ditu estatu osoan, 2004. urteko Bizi-baldintzei buruzko Inkesta ustatuz.

Ahalduntzearen ikuspegitik, kapitulu honek “esperientziak” terminoari zukua atera nahi dio, haren biko dimentsioan: gizarte-dimentsioa (erlazionala) eta dimentsio pertsonala (subjektiboa). Beraz, asmoa da islatzea gaur zer gizarte-esperientzia eta esperientzia indibidual bizi dituzten (esperimentatzen dituzten) gaur egun Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek.

Abiapuntu izanda adineko emakume horiek beren eguneroko bizitzan gauzatzen dituzten gizarte-esperientziak, bizikidetzak motak aztertuko ditugu (etxebizitza eta familiako bizikidetzak); haien egoera ekonomiko objektiboa eta benetan nola kudeatzen dituzten baliabideak; eguneroko gizarte-jarduna nola banatuta dagoen eta zer maiztasunez egiten duten; zer parte-hartze publiko mota duten norbanakoaren jardueretan, eta jarduera antolatuetan eta instituzionaletan, emakumearen aldeko mugimenduak barne; nola bideratzen duten beraien denbora beste pertsona batzuentzat, bilobak eta/edo beste senide batzuk zainduz; eta azkenik, norbaitek zaintzen dituen.

Abiapuntu hartuta esperientzia pertsonalak –betiere, zailagoak dira teknika kuantitatibo batez adierazten–, kapitulu honetan ikusiko dugu nola ikusten duten emakumeek beraiek atera bere burua bizitzako zenbait alderditan; zer ondorio dituen denboraren joanak; zer sententzia dakarkien 65 urte bete izanak (aro berri baten erritu moduan); eta zer iritzi duten gaur egungo gizartean adineko pertsona izateak dakarrenaz.

Dena dela, kapitulu honetan eta hurrengoan ikusiko den bezala, adineko egiteko prozesuaren gizarte-esperientziak eta norbanakoaren esperientziak, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek bizi izandakoek, bat egiten dute muineko planteamendu batean: emakumeen belaunaldi horren norbanakoaren autonomia, beraiek hautemana.

BIZILEKU- -AUTONOMIA HANDIA

5.1

Pertsonak bizileku duten bizikidetzak-unitateen ezaugarri nagusiak zein diren jakitea garrantzitsu-garrantzitsua izan ohi da gizarte-azterketa orotarako, dena delakoa azterketa-gai den taldea edo belaunaldia.

Baina are garrantzitsuagoa da 65 urteko eta hortik gorako emakumeak aztertu nahi badira. Bi arrazoi daude hori esateko. Batetik, genero-sozializazioaren elementu bat dago, etxeko-familiako arloa eta han gauzatzen diren gizarte-harremanak atxikita baitaude emakumeen belaunaldi horren ibilbide biografikoari eta nortasun-ibilbideari.

Bigarren arrazoia emakume horiek bete duten adina da. Etxeko arloa, edo hobeto esanda haren dimentsio ukigarria, etxebizitza, bizitzaren aldi horretan erreferentzia-ingurune bihurtzen da, gero eta gehiago, gainera. Eta hori ez da zenbakarria den dimentsio bat soilik (bizitzaren aldi edo ziklo horretan igarotako denbora), dimentsio sinboliko bat ere bada, espazio orok beti duen dimentsio bat (BACHELARD, 1981). Etxebizitzak, adineko pertsonen-

tzat, beren ibilbide biografikoaren, beren historia pertsonalaren gauzatzea ere irudika dezake (CAREDEC, 2001: 79).

Estatuko 65 urteko eta hortik gorako pertsonen Bizi-baldintzei buruzko 2006ko Inkestaren ondorio nagusietako bat zen, aurreko urteetako inkestekin alderatuta, adinean oso gora egin arte bizi zirela beraien etxeetan (PÉREZ ORTIZ, 2006a:243), eta horrek indartu egiten du lau urte lehenago autore horrek berak talde horretan azpimarratutako bizileku-autonomia (PÉREZ ORTIZ, 2003:519). Eta "etxean zahartzea" gure ingurune hurbilenean ere indarra hartzen ari da joera nagusi moduan (EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO, 2010: 165).

Emaitzak azaltzerakoan sintesia egiteko asmoari jarraituz, 5.1. taulan bilduta agertzen dira Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen bizikidetzamotak 2011. urtearen amaieran. Horrez gain, familia-historiarekin lotutako zenbait alderdi ere agertzen dira: bikotekidearen adina, seme-alabarik baduten, eta bilobarik baduten.

Azken informazio horrekin hasita, 65 urteko edo hortik gorako hamar emakumetik ia bederatzik izan dituzte seme-alabak (%88,3), eta batez beste ia 3 seme-alaba izan du emakume bakoitzak. Ondorengoan kopuru horrek zuzen-zuzenean eragiten du bilobak izatean: belaualdi horretako emakumeen %77k ditu bilobak edo birbilobak, eta batez beste 4 ditu emakume bakoitzak. Beste alde batetik, ikusten da oso antzeko adina dutela, batez beste, azterketa honetako emakumeek (75,4) eta bikotekideek edo ezkontideek (75,7).

Pertsona batek baino gehiagok osatutako bizikidetzamotak erreparatzen badiegu (guztizkoaren %69 dira), bikotean bizitzea da gure autonomia-erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen bizikidetzamotarik ohikoena (%38,8).

5.1. TAULA Bizikidetzamotak eta familia-unitatearen osaera. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Bakarrik	21,1	39,9	31,0
Bikotea	47,9	30,7	38,8
Bikotea eta seme-alabak	15,8	5,4	10,3
Seme-alabak	7,0	10,8	9,0
Gainerakoa (beste modu batzuk)	8,1	13,0	10,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Etxebizitza berean bizi diren pertsonen batez bestekoa	2,1	1,9	2,0
Bikotearen batez besteko adina	72,3	80,9	75,7
Seme-alabadun emakumeen %	90,5	86,4	88,3
Seme-alabak, batez beste	2,8	3,1	2,9
Bilobadun edo birbilobadun emakumeen %	75,4	78,5	77,0
Bilobak edo birbilobak batez beste	3,4	4,6	4,0
Bakarrik bizitzen daramatzan urteak, batez beste	12,3	13,4	13

Baina adinaren aldagaiak, oraingoan ere, berebiziko eragina du bizikidetzamoduan, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaualdi horretan: adinean zenbat eta gehiago egin

gora, orduan eta ugariagoak dira pertsona bakarreko bizikidetza-unitateak. Horrela, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen taldean, bikotearekin bizi diren eta bikotearekin eta seme-alabekin bizi diren emakumeen kopurua askoz txikiagoa da 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen taldean baino; izan ere, 1936. urtea baino lehen jaio ziren hamar emakumetik ia lau (%39,9) bakarrik bizi dira, eta, aldiz, hamar emakumetik bi baino pixka bat gehiago dira, 65 urte eta 74 urte bitartekoen artean (%21,1).

Adinaz gain, elementu gehiago emateko Euskadin bere etxean bakarrik bizi den adineko emakumearen profila nolakoa den ikusteko, adierazi behar da emakume horiek ia 14 urte daramatzatela bakarrik bizitzen, eta horien %60k 600 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela, iturri bakarretik datozenak: alarguntza-pentsiotik edo beraien erretiroaren pensiotik. Pertsona bakarreko bizikidetza-mota horrek eskatzen du eguneroko bizitzan egiteko laguntza handiena, eta bat dator emakume horiek osasunarekiko duten pertzepzio subjektiboarekin, gehienek txarra edo erdipurdikoa dela esaten dute-eta.

Eta beste faktore batzuen artean, kontuan izaten bada egungo egoera honetan belaunaldi gazteenek etxebizitza eskuratzeko duten zailtasuna eta adin handieneko belaunaldi hauen artean asko direla etxebizitza jabetzan dutenak, gure egunerokotasuneko bi fenomeno horiek argudioak ematen dituzte ulertzeko orain aztertzen ari garen 65 urteko edo hortik gorako emakumeen bizikidetza-unitateetan, hamarretik bitan seme-alabak bizi direla, dela bikotekidearekin batera (gutzizkoaren %10,3), dela emakumea bakarrik semearekin edo/eta alabarekin (%9).

Atal honetako planteamendu nagusiari berriro helduta, Euskadiko 65 urteko eta hortik gorako emakume askok egungo etxebizitzan bizitzen urte asko eramatea –eta ez da, geure ingurunean, belaunaldi honetan soilik gertatzen den kontua– faktore honek eragiten du nagusiki: etxebizitzaren jabe izateak, erregimen juridiko nagusia baita, jabetzan dituzte-eta emakumeen ia %90ek (5.2. taula). Jabetza izatea nagusi gure testuinguruko eraikuntza historikoaren beste adierazle bat da; hots, etxeko-familiako ingurunea leku segurutzat aintzatesten duen kulturaren adierazlea, emakumea kanpoko arriskuetatik babesten duen leku-tzat. Eta hor sozializatu ziren emakumeak, eta zaintzaile-agentearen rola bereganatu zuen, eta atetik kanpoko bizitzaren laztasunetik indarberritzeko funtzioa bere gain hartu (CORTÉS ALCALÁ, 1996). Horren haritik, zuzen-zuzena deritzogu PÉREZ ORTIZen interpretazioa (2006a: 147), hark baiteritzo etxebizitzaren jabetza izatea, adineko pertsona askorentzat, segurtasuna ematen duen elementua ere badela, bere ibilbide biografikoan izandako arrakasta edo lorpen bat.

5.2. TAULA Jabetza-erregimena, errotzea eta bizileku-mugikortasuna. Gutzirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak


JABETZA-ERREGIMENA, ERROTZEA ETA BIZILEKU-MUGIKORTASUNA	ADINA		
	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Berea	70,4	80,7	75,8
Bizikidearekin/bikotearekin banatuta	19,4	7,9	13,3
Alokairua	3,9	3,8	3,8
Besteren bat	6,3	7,6	7,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Etxebizitza berean bizitzen daramatzan urteak, batez beste	33,7	38,1	36,0
Urte osoan bizitzen (baiezkoen %)	83,5	87,0	85,3

Ikerketa honetatik ondorioztatzen den bizikidetza-moduen alderdi garrantzitsu bat da, "etxean zahartzea" 65 urteko edo hortik gorako emakumeen belaunaldi honen gertaera soziala dela indartzen duen alderdia da oso gutxi aldatzen dutela bizilekua. Horrela, bada, emakume-belaunaldi horren %85,3 urte osoan bizi dira ikerketaren informazioa jaso zen etxe berean, eta, gainera, batez beste 36 urte daramatzate bizitzen bertan.

Horrez gain, bizilekuz aldatzen direla adierazi duten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (guztizkoaren %14,7 dira), gehienek ez dute aldatzen beste senide batek zaindu dezan (%22,7 dira), baizik eta, batez ere (gainerako %73a) bigarren etxebizitza bat dutelako jabetzan edo beste etxebizitza batera joaten direlako oporretan (5.1. grafikoan adierazten da).

Dena den, berriro azpimarratu behar dira parametro horretarako ezarritako bi adin-taldeen artean dauden desberdintasunak, bizileku-autonomia askoz txikiagoa baita 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean: azken urtean bizilekua aldatu duten hamarretik lau baino pixka bat gehiago (%41,5), beste senide baten etxera joan dira, eta, batez ere, ondorengo zuzen baten etxera.

5.1. GRAFIKOA Bizitoki-mugikortasun mota. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Laburbilduz, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek bizileku-autonomia handia dute, eta, gainera, egungo etxebizitza dute erreferentziako espazio, bai emakumeek beraiek, baita haien ondorengo askok ere, etxebizitza horretan bizi ala ez. Horrez gain, azken urtean bizitokiz aldatu diren emakumeen artean ere, aldaketa horrek erabakia autonomoa dela erakusten du –espazioan eta denboran–, beraien erabakiz oporretako etxebizitza batera edo bigarren egoitza batera joaten baitira, batez ere 65 urtetik 75 urtera bitarteko emakumeen taldean, eta gutxixeago 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean.

Bizileku- eta bizikidetza-autonomia horrek argi erakusten du, beste ezeren beharrik gabe, autonomia individual handia dutela 65 urteko eta hortik gorako emakumeek. PÉREZ ORTIZek dioen bezala (2006a:244), "adinekoen bizikidetza-moduan gero eta eragin handiagoa izango du haien nahiak, (...), adinekoek gero eta askatasun handiagoa dute zahartzaroan izango duten bizitza-mota aukeratzeko."

Jarduera nagusiaren ibilbideari buruzko atalaren planteamendu nagusia izan da ikustea 1946. urtea baino lehen jaio ziren emakumeen erabakiak hartzeko ahalmena, oro har, mugatuta edo murriztua izan dela genero-sozializazioaren ondorioz, bideratu egin baitzuten, batez ere, etxeko-familiako arlora, bai modu batean (produkzio-jardueretan parte hartzen zutelara), bai beste batean (produkzio-jardueretan parte hartu gabe). Eta emakume-talde horren egungo egoera ekonomikoa gertaera horren isla edo ondorio garbia da.


ANA FREIXASEk, emakumeak eta zahartze-prozesua aztertzen zituen azterketa batean, (1997:37) haien arteko loturak aztergai zituela, adierazi zuen lan-merkatuan izan duten parte-hartze motak *“iragartzen duela nola izango den erretiroa ekonomiari dagokionez”*. Gaur egun 65 urte edo hortik gora dituzten emakumeen erretiroa, oro har eta objektiboki, bikotearen (gizonezkoaren) erretiroaren araberakoa da.

Emaitzek argi erakusten dute arrazoi hori, *“ahalduntze ekonomiko objektibo txikiarekin”* estu-estu lotua dagoena. 5.2. grafikoak erakusten du Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen bizikidetz-unitateetan, bitik batean (%50,8), ezkontidearen/bikotearen erretiro-pentsioa dela hiru diru-iturri nagusietako bat.

Aztergai dugun taldeko bizikidetz-unitateetan, alde handira, beste bi diru-iturri agertzen dira: alarguntza-pentsioa (%37) eta emakumearen beraren erretiro-pentsioa (%30,7).

Ezarritako bi adin-taldeen arteko aldeak oso interesgarriak dira, eta ezin hobeto erakusten dituzte *“egoera zibilean”*, aurreko atal batean adierazitakoan, dauden aldeak. Alarguntza-pentsioa da diru-iturri nagusietako bat 75 urteko eta hortik gorako emakumeak bizi diren bizikidetz-unitateetan bitik batean (%50,3), eta ezkontidearen/bikotearen erretiro-pentsioa, berriz, 65 eta 74 urteko emakume-taldearen bi herenetan ia (%63,4).


5.2. GRAFIKOA Bizikidetz-unitateko hiru diru-iturri nagusiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Erantzun anitza. Ehunekoak



Agian, 5.3. grafikoak hobeto erakusten du zer errealitate ekonomiko duten Euskadin bizi diren 65 urteko edo hortik gorako emakumeek. Emakume horien bizikidetz-unitateetan, hamarretik ia hirutan ezkontidearen/bikotearen pentsioa da diru-iturri bakarra (%29,5). Eta hartatik oso hurbil, alarguntza-pentsioa da diru-iturri bakarra (%22,8).

Zeharkako adierazle moduan, parametro ekonomiko horrek, oro har, argitzen du zein zen emakumeen genero-sozializazioaren eredu nagusia, orientabide nagusia, 1946. urtea baino lehen jaio ziren emakumeen artean: etxeko-familiako arloa eta jarduna. Emakume horiek erretiroaren bere plangintza autonomorik ez izateak berregin edo islatu egiten ditu genero-desberdintasunak; hots, laneko jardueraren aldia zeuden desberdintasunak erretiro-aldira ekartzen ditu (RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2002:113). Horregatik, egoki-egoki deritzogu adierazpen hau: *“pentsio-sistema, oro har, (...) genero-desberdintasunak zahartzarora luzatzen dituen mekanismo instituzionala da.”* (PÉREZ ORTIZ, 2006b:97)

5.3. GRAFIKOA Bizikidetz-unitateko diru-iturri nagusiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Erantsiak. Ehunekoak




Dena dela, ikusten da badagoela aldaketa txikiren bat “mendekotasun ekonomiko objektiboko” joera horretan, ikerketan ezarritako bi adin-tarteetan. Adin txikieneko taldean, 1937. eta 1946. urteen artean jaiotakoan artean, nagusi bada ere ezkontidearen/bikotearen erretiro-pentsioa (%34,9), ugariagoa da norberaren erretiro-pentsioa, autonomia ekonomiko indibidualaren adierazle edo iragarle.

Euskadiko 65 urteko edo hortik gorako emakumeak bizi diren bizikidetz-unitateetako hileko diru-sarrerei buruzko informazioeek adierazle agerikoagoak ematen dituzte, hots hobeto erakusten dutenak zer eragin duen belaunaldi horretako emakumeen bizitza-ibilbideak haien erosteko ahalmenean.

Kasu hauetan ohikoa den bezala, galdetegiaren bidez informazio ekonomikoa jasotzean erantzunik ematen ez dutenak asko dira, hamarretik lau, hain zuzen ere. 5.4. grafikoan ikusten den bezala, diru-sarrerak modu homogeneo samarrean banatuta daude, oro har, gainerako lau tarteetan; baina tarte nagusia hileko diru-sarrerak 600-900 euro artekoak diren bizikidetzak-unitateek osatzen dute.

5.4. GRAFIKOA Hileko diru-sarrera garbiak bizikidetzak-unitatean. Guztirakoa eta adin-taldea. Ehunekoak



5.3. taulak zehaztasun handiagoz adierazten du zer egoera ekonomiko dituzten emakume horiek. Agerikoa da hileko diru-sarrera txikiak (600 euro baino gutxiago) lotuta daudela emakumearen beraren sarrerak izatearekin; hots, alarguntza-pentsioa edo norberaren erretiro-pentsioa dute jatorri. Aitzitik, diru-sarrerak ezkontidearen/bikotearen pensioaren ondorio direnean –dela hura bakarrik, dela 65 urteko edo hortik gorako emakumearen pensioarekin batera– hileko diru-sarrerak askoz ere handiagoak dira.

Dena dela, adierazi behar da gaur egun Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako hamar emakumetik lauk baino pixka bat gehiagok alarguntza-pentsioa dutela hileko diru-sarrera bakarra, eta pensio hori 600 euro baino gutxiagokoa izan ohi dela. Eta horri beste alderdi bat erantsi behar zaio: talde horretan osasun txarra edo oso txarra dutela adierazten duten emakumeak beste taldeetan baino gehiago dira.

5.3. TAULA Bizikidetz-unitatearen hileko diru-sarrera garbiak eta diru-iturri nagusia. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

		ALARGUNTZA- -PENTSIOA SOILIK	NORBERAREN ERRETIRO- -PENTSIOA SOILIK	EZKONTIDEAREN/ BIKOTEAREN ERRETIRO- -PENTSIOA SOILIK	ALARGUNTZA- -PENTSIOA ETA NORBERAREN ERRETIRO- -PENTSIOA	NORBERAREN ERRETIRO- -PENTSIOA ETA EZKONTIDEARENA/ BIKOTEARENA	AURREZKIAK ETA PENTSIOREN BAT	GAINERAKOA
600 euro baino gutxiago	65-74 urte	42,1	15,8	5,3	5,3	5,3	10,5	15,8
	75 urte edo gehiago	82,8	5,2	5,2		1,7	3,4	1,7
	Guztira	72,7	7,8	5,2	1,3	2,6	5,2	5,2
600-900 euro	65-74 urte	18,9	2,7	35,1	10,8		18,9	13,5
	75 urte edo gehiago	40,8	11,3	15,5	5,6	2,8	11,3	12,7
	Guztira	33,3	8,3	22,2	7,4	1,9	13,9	13,0
901-1.200 euro	65-74 urte	16,7	7,1	38,1	7,1	14,3	9,5	7,1
	75 urte edo gehiago	5,7	8,6	45,7	11,4	8,6	8,6	11,4
	Guztira	11,7	7,8	41,6	9,1	11,7	9,1	9,1
1.201-1.500 euro	65-74 urte		6,7	46,7	3,3	20,0	10,0	13,3
	75 urte edo gehiago		5,3	42,1	10,5	26,3	10,5	5,3
	Guztira		6,1	44,9	6,1	22,4	10,2	10,2
1.500 euro baino gehiago	65-74 urte		14,3	23,8	4,8	31,0	11,9	14,3
	75 urte edo gehiago		20,0	30,0	10,0	20,0	10,0	10,0
	Guztira		15,4	25,0	5,8	28,8	11,5	13,5
Ed/Ee	65-74 urte	7,9	7,0	39,5	1,8	15,8	16,7	10,5
	75 urte edo gehiago	22,0	3,3	30,1	6,5	8,1	16,3	13,8
	Guztira	15,2	5,1	34,6	4,2	11,8	16,5	12,2


Aurreko planteamenduen amaiera gisa, 5.5. grafikoak adierazten du zer gizarte-klasetan ikusten duten beren burua 65 urteko edo hortik gorako emakumeek. Ez dago zalantza-izpirik: nagusi da klase ertaina (guztizkoaren %56,2) eta ertain-baxua (%34,3), eta, gainera, lotuta dago haien hileko diru-sarrerekin, klase ertain-baxua 900-1.200 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenen artekoek adierazi baitute, eta klase ertaina 1.201-1.500 euro bitarteko-tik aurrerakoek.

BAINA AHALDUNTZE- -MAILA HANDIA EKONOMIAREN BENETAKO KUDEAKETAN

5.3

Aurreko atalean nabarmendu dugu "administrazio- edo lege-mendekotasuna" dagoela, emaitzak diru-sarreraren jatorria aintzat hartuta soilik interpretatuta. Baina txikitzat jotako ahalduntze ekonomiko formala erabat aldatzen da eguneroko jardunari erreparatzen badiogu, hots diru-sarrera horien kudeaketari erreparatzen badiogu.

5.5. GRAFIKOA Hautemandako gizarte-klasea. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Ekonomiaren kudeatze-eginkizun hori etxeko-familiako arloaren orotarako kudeaketaren eginkizunaren barruan dago, ardura duen bezalaxe seme-alaben eskolako eta eskolaz kanpoko jardueren kudeaketan, adin txikiko horien zaintzan gaixo daudenean edo oportretan daudenean, edo aurreko beste senide batzuen zaintzan. "Etxearen kudeatzaile" eginkizun hori "emakume-generoari dagokion egiteko" gisa ikusten da, zeharkakoa gizarte-talde eta hezkuntza-maila guztietan (MURILLO, 1996; TORNS ET. AL, 2004; eta EMAKUNDE, 2007).

Aztergai dugun belaunaldi-taldean, emaitzek ez dute zalantza-izpirik uzten (5.4 eta 5.5. taulak): emakume-belaunaldi horren ardura da diru-sarrera horien kudeaketa, bizikidetz-unitatearen gastuei begira, horrela baita hamar emakumetik bederatzitan baino gehiagotan (%92,3). Kide bat baino gehiagoko bizikidetz-unitateei soilik erreparatzen badiegu –hots, ez baditugu kontuan hartzen bakarrik bizi diren belaunaldi horretako emakumeak– ikusten da emakumeen %90,5ek dutela eginkizun hori. Halaber, oso adierazgarria da diru-sarrera bakarra ezkontidearen/bikotearen erretiro-pentsioa duten bi kideko edo gehiagoko bizikidetz-unitateetan ere emakumeak izatea kudeaketa ekonomikoaren eginkizuna dutenak.

5.4. TAULA Emakumeak kudeatzea bizikidetza-unitatearen gastuak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Bai, bakarrik batez ere	69,4	73,4	71,5
Bai, baina beste batzuekin batera	26,4	16,5	21,2
Ez	4,2	10,1	7,3
Maiztasuna: beti izan da horrela, bakarrik edo beste batzuekin batera (baiezkoa)	93,7	88,0	90,7
Baiezkoen % 2 kideko edo gehiagoko bizikidetza-unitateetan soilik			
Bai, bakarrik batez ere	62,1	62,4	62,2
Bai, baina beste batzuekin batera	32,6	23,3	28,3
Ez	5,4	14,3	9,4
Maiztasuna: beti izan da horrela, bakarrik edo beste batzuekin batera (baiezkoa)	94,6	87,8	91,5

5.5. TAULA Emakumeak kudeatzea kide bat baino gehiagoko bizikidetza-unitatearen gastuak, diru-sarreraren jatorriaren arabera. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE			75 URTE EDO GEHIAGO			GUZTIRA		
	BAI, BAKARRIK BATEZ ERE	BAI, BAINA BESTE BATZUEKIN BATERA	EZ	BAI, BAKARRIK BATEZ ERE BATZUEKIN BATERA	BAI, BAINA BESTE	EZ	BAI, BAKARRIK BATEZ ERE BATZUEKIN BATERA	BAI, BAINA BESTE	EZ
Alarguntza-pentsioa soilik	7,2	2,7	8,3	17,8	4,5	25,9	12,1	3,4	20,5
Norberaren erretiro-pentsioa soilik	4,3	1,4	8,3	3,4	6,8	7,4	3,9	3,4	7,7
Ezkontidearen/bikotearen pensioa soilik	48,2	35,6	50,0	39,0	36,4	44,4	44,0	35,9	46,2
Alarguntza-pentsioa eta norberaren erretiro-pentsioa	4,3			4,2			4,3		
Norberaren erretiro-pentsioa eta ezkontidearena/bikotearena	15,8	27,4	16,7	12,7	15,9	0,0	14,4	23,1	5,1
Aurrezkiak eta pensioen bat	10,1	19,2	8,3	10,2	22,7	3,7	10,1	20,5	5,1
Gainerakoa	10,1	13,7		12,7	13,6	18,5	11,3	13,7	12,8
Ed/Ee			8,3						2,6

Beste alderdi adierazgarri bat da denboran iraunkorra izatea bizikidetza-unitatearen gastuen kudeaketa ekonomikoaren eginkizun hori. Datu guztiek agerian jartzen dute erabaki ekonomikoaren arlo hori emakumeen belaunaldi horrek bizitza osoan zehar egin izan duen kontu bat dela, eta horrela dela egungo bizitza-zikloan ere. Izan ere, emaitzek agerian jartzen dute eginkizun hori kasu hauetan soilik uzten dela beste baten eskuetan, osorik zein zati batean: emakumeak beste norbaiten laguntza behar duenean eguneroko lanetarako, osasun txarra edo oso txarra duela dioenean, edo ondorengo batekin edo bat baino gehiagorekin bizi denean. Eta, betiere, ahalik eta beranduen uzten du ardura hori beste norbaiten esku.


**NORBERAREN
AUTONOMIA:
BALIO PREZIATUENA,
GAUR ETA BIHAR**

5.4

65 urteko eta hortik gorako emakumeen ahaldundute moduak agerian jartzeko lan honetan, bizitzaren zenbait alderditan pertsonen gogobetetze-maila neurtzen duten ohiko eskaletan, hautematen duten gogobetetze-mailaren erantzunen artean bat erantsi dugu, *eragiten dioten gauzen gainean erabakiak hartzeko duten ahalmenari* buruzkoa.

5.6. grafikoko emaitzak argi-argiak dira: harreman pertsonalaren (familia, lagunak, etab.) atzetik, bigarren lekuan dago bere erabakiak hartzeko ahalmena gogobetetze-mailan jasozten diren zazpi alderdien artean, eta 8,5 puntu jaso ditu, 10 puntutik.

5.6. GRAFIKOA Gogobetetze-maila bizitzako zenbait alderdirekiko. Guztira, adin taldeka eta batez beste. 0-10 eskala




Oro har, gogobetetze-maila handi samarra da, 7,7koa batez beste, eta ohikoa da emakume-belaunaldi horren gogobetetze-maila eskala horren bidez aztertzen duten ikerketetan (PÉREZ ORTIZ, 2003:537; EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO, 2010:108).

Ikusten da, gainera, gogobetetze-maila hori zertxobait handiagoa dela 65 eta 74 urte bitartekoen artean (7,8) 75 urte eta hortik gorakoen artean baino (7,5). Bi adin-tarteen gogobetetze-mailaren alde hori, ordea, bi parametrotan soilik biltzen da: hautematen duten osasun-egoeran eta etorkizunarekiko segurtasunean. Beraz, gainerako alderdietan oso antzeko emaitzak dituzte (bizitzan lortutako lorpenak, harreman pertsonalak, komunitate batekoa

edo pertsona-talde batekoa izatearen sentimendua, eta, bereziki, eragiten dioten gauzen gainean erabakiak hartzeko ahalmena).

Norbanakoak autonomia izatea bere bizitzan eragiten duten erabakiak hartzeko balio oso preziatua da emakumeen belaunaldi honentzat. Eta ez soilik gaur egun praktikan jartzen ari den moduak asko gogobetetzen dituelako, baizik eta 5.7. grafikoan ikusten den bezala, ahal den luzaroen edukitzen jarraitu nahi dutelako. Norberaren autonomia galtzea berak erabakitzeko ahalmena galdu duelako, adimena narriatzen ari zaiolako, eta maila txikiagoan bada ere, baina alor berean, autonomia ekonomikoa galdu duelako: horiek dira emakume talde horren kezka nagusiak edo bizitzako kezkek.

5.7. GRAFIKOA Denboraren iraganaren ondoriozko kezka-mailak, bizitzaren zenbait alderditan. Guztirakoa, adin-taldeka eta batez bestekoa. 0-10 eskala



Gainera, adierazle horrek ez du desberdintasunik egiten zein den ikasketa-maila, bizikidetzatza-modua, hileko diru-sarrerak eta horien jatorria, heldu-bizitzan zehar egindako jardura nagusiaren ibilbidea edo hautematen duten osasun-egoera. Horrenbestez, emakumeen belaunaldi horren zeharkako balio bat da.

INGEMA FUNDAZIOAK Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietarako Sailarentzat egindako ikerketak, gure erkidegoan bizi diren 60 urteko edo hortik gorako emakume zein gizonei buruzkoak, hau zuen ondorio nagusietako bat: *“autonomia zahartzaroan gorantz egiten ari den gizarte-balio bat da.”* (EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO, 2010: 164). Eta gure emaitzak ikusita, eta bereziki adin-talde horretako emakumeei dagokienez, esan dezakegu autonomiaren balioa joera bat baino gehiago dela. Instituzionalizatutako balio bat da emakumeen belaunaldi horren artean, eta balio horrek zuzentzen ditu, gutxi asko, egungo jardun sozialak, bai eta etorkizunekoak ere.

Eta etorkizunekoa ere horrelakoa izango dela aurreikusteko gai izan gara, nahikoa baita erreparatzea 65 eta 74 urte bitartean dituzten emakumeek zenbat puntu eman dizkieten denboraren joanak sorrarazten dizkieten kezkei "bere kabuz bizi ahal ez izatea" eta "narriadura intelektualak" ataletan: 9,1 puntu. Adin talde horretako emakumeak izango dira, hurrengo hogeitun urteetan, gutxienez, Euskadin bizi diren emakume adinekoenak. Norberaren autonomia lortzea, norberaren balio gisa, atzera bueltarik ez duen bidea da belaunaldi horretako emakumeentzat. Adierazi behar da gainera, zenbat eta maila altuagoak izan amaitutako ikasketak eta zenbat eta hobea ikusten duten beren osasuna, orduan eta garrantzi handiagoa duen balioa dela.

Eta norberaren autonomiaren garrantzia ez da belaunaldiaren baitako balio bat soilik, belaunaldi artekoa ere bada. Geroago ikusiko den bezala, 65 urteko eta hortik gorako emakumeek funtsezkotzat jotzen dute autonomia geroagoko emakumeen belaunaldietan ere (alabak, bilobak...). Eta horretan, zeregin garrantzitsu-garrantzitsu du emakume horiek beraiek balioak eta jarrerak sozializatzerakoan edo transmititzerakoan egiten duten lanak.


**65 URTE BETETA IZATEA:
JARRAIPENA ETA
AUKERA, EZ OZTOPO**

5.5

Bada beste adierazpen bat agerian jartzen duena autonomia garrantzizko balioa dela Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean –bai egun gogobetetze handia adierazi dutelako, bai etorkizunean galtzeak kezkatzen dituelako–: emakumeen belaunaldi horrek zeri deritzon gaur egun "adineko pertsona" izateari.

Galdetegian, galdera horri erantzuteko ohiko adin-taldeak emateaz gain, bazegoen aukera bat galdetutako emakumeek beraiek adierazteko zeri deritzoten adineko pertsona.

5.8. GRAFIKOA "Adineko pertsona" zeri deritzoten. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak




5.8. grafikoko emaitzak oinarri hartuta atera daitezkeen ondorioetatik, bat ageri-agerikoa da: ikuspegi estatistikotik edo bete duten adinaren ikuspegitik "adineko" diren emakumeek beraiek diote 65 urteko muga ezin dela jarri zahartzaroan sartzeko muga kronologiko moduan. Aitzitik, adierazten dute bizitza-ziklo horretarako urratsa geroago dagoela, eta pertsona bakoitzaren izaeraren araberkoa dela (erantzun guztien %17), eta hirugarren adinerako urratsa adierazten duen adin "ofizial" hori baino bost urte geroago dagoela (70 urtetik aurrera erantzun dute %16,3k) edo hamabost urte geroago (80 urtetik aurrera erantzun dute %18,3k).

Eta emaitza hori berretsi egiten dute zenbait ikerketa zahartze-prozesuari buruz adierazten ari direna: zahartze-prozesua indibidualizatzen ari dela (FREIXAS, 1991: 71). Eta, izan ere, zahartzearen pertsonalizazioa handiagoa da emakumeen artean, haien zahartze-esperezietan are garrantzitsuagoa baita ez ahaztea zer alde dagoen benetako adinaren, jendeak botatzen dion adinaren eta berak sentitzen duen adinaren artean (DEL VALLE, 2002). Horrenbestez, gu ere bat gatoz: zahartze-prozesua azaltzerakoan gero eta garrantzi gutxiago du adinak berak, eta gero eta garrantzitsuagoak dira pertsonak beraiek beraien bizitzan zehar izandako aldaketak.

5.9. grafikoa agertzen da argi emakumeek 65 urte betetzea zer gutxitan jotzen duten adineko bihurtzeko mugatzat: iragaitza-erritu ofizial hori bizi izan duten hamar emakumetik zortzik baino gehiagok adierazi dute (%82,8k, hain zuzen) horrek ez duela aldaketarik ekarri bere ibilbide biografikoan, eta, aitzitik, jarraipen moduko bat izan zela.


5.9. GRAFIKOA 65 urte bete ondorengo esperientziak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Eta, dena dela, jarraitutasuna nagusi izan arren, ibilbide biografiko batean zehar nortasun iraunkorra adierazten den arren, 65 urteko muga aukera bat da beste gauza batzuetarako denbora gehiago izateko (%12,2), eta ez da atzera egitea (%4,2k soilik adierazi dute). Eta, balantze positibo hori, 65 urte betetzeak dakartzan aukerak azpimarratzen dituena, gehiago hautematen dute 65 urtetik 74 urtera bitarteko emakumeek (%16,5), hau da urrats hori duela denbora gutxien eman duten emakumeek, eta gehiago azpimarratzen dute, gainera, emakume horiek lan-arloan parte hartu badute heldu-bizitzan.

Geroago saiatuko gara sakontzen, emakume-belaunaldi horrek hautematen duen ahalduzaren luzetarako ikuspegia; baina lan produktibotik denbora askatzeak asko errazten du, ez bairik gabe, denbora libre berri hori (edo okupatu gabeko denbora hori) beste jarduerak batzuetarako erabiltzea. 5.10. grafikoko emaitzek sendotu egiten dute argudio hori, baina atentzia belaunaldi horretako genero maskulinoan jartzen dute. Beste gauza batzuen artean, gizonezko bikotearen erretiroak aldaketak eragin ditzake eginkizunen banaketan eta, beraz, baita bizikidetzaren espazioen eta denboren kudeaketak ere; hots, aldaketak ekar ditzake laneko erritmoak derrigorrez ekarrita ezarritakoekiko. Horregatik, galdetegi galdera bat sartu zen jakiteko zer eragin duen bikote maskulinoaren estatusaren aldaketak emakumearengan berarengan.

5.10. GRAFIKOA Ezkontideak/senarrak erretiroa hartu ondoreneko esperientziak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (Kasu horietan soilik)




Bikotearen erretiroa bizi izan duten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (guztizkoaren %57 dira) oso adierazgarria da positibotzat jotzen dutela gertaera hori, eta elkarrekin jarduerak egiteko aukera moduan ikusten dute, espazioen eta denboren egituratzen berri horretan (%83,3).

Kontua da, erantzun nagusia erretiroa bikotea osatzen duten kideek elkarrekin gauzak egiteko modutzat ikustea izatearekin batera, adierazitakoaren kontrakoa gertatzen dela 65 urteak emakumeak betetzen dituenean. Izan ere, balantzan, autonomia handitzeari (%5,3) gailendu egiten zaio autonomia gutxitzea (%10,2) erantzuna. Eta emaitzek erakusten dute gertaera hori are nabarmenagoa dela bizitzan zeharreko jarduera nagusia etxeko-familiako arloa izan duten emakumeen artean. Imajina genezake zer gerta litekeen, kasu horietan, alor horretan beste aktore bat sartzean, egin beharreko jardunak berrantolatu eta berriro negoziatu behar baitira lehen genero-esleipen desberdinaren bidez egituratutako alor batean.

Osasunak zerikusi garrantzitsua du, ezbairik gabe, zahartze-prozesuak pertsona bakoitzean duten eraginaren hautematean. 5.11. grafikoko emaitzek nahikoa adierazle ematen dituzte hobeto ulertzeko zer iritzi duten ikerketaren gai diren emakumeek pertsona bat adineko-tzat jotzeari buruz eta 65 urte bete ondoren izan dituzten esperientziei buruz.

5.11. GRAFIKOA Hautemandako egungo osasun-egoera. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Oro har, esan daiteke Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakume gehienek osasun ona edo oso ona dutela (%59,2). Adinaren eta hautematen duten osasun-egoera txartzearen arteko lotura agerian jarri da ikerketa honetan ere, eta ikusi da hautemandako osasun-egoera okerragoa dela zenbat eta maila txikiagoak izan amaitutako azken ikasketak eta zenbat eta txikiagoak izan hileko diru-sarrerak.

**OHIKO GIZARTE-
-JARDUERAK:
DENBORAREN
BANAKETA**

5.6

Belaunaldi hori ikertzean gero eta interes handiagoa pizten duen gaia da jakitea nola banatzen duten ohiko denbora adineko pertsonak. Ezbairik gabe "aisiaren eta kontsumoaren industria" deritzenen merkatu-nitxo gozoena dira (BÓDALO, 2003), adineko pertsonak "osasunaren industriak" deritzenentzat jada badiren bezala.

Ikerketa aplikatu honetan, geure argudio-ildoak bilatzean, ahal den neurrian urruntzeko Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako bizi-baldintzen diagnosi hutsa izatetik, atal hau hurrengo bi urratsetarako ezinbesteko osagarri gisa ikusten dugu. Geroago garatuko ditugu urratsok eta hauek dira:

1. Identifikatzea zer mailatan eta modutan hartzen duten belaunaldi horretako emakumeek jarduera formal edo antolatuetan, horrek egun gizartean eta politikan duten ahal-duntzea zenbatekoa den erakusten du eta.

2. Jakitea zer ahalmen duten emakume horiek, 65 urte bete ondoren, ordura arte egiten zituzten gizarte-jarduerak edo -jardunak eraldatzeko edo beste batzuk egiten hasteko.

Eta trantsizioko atala den arren, berebiziko garrantzia du ikerketa honen helburu nagusiaren baitan, oso garrantzitsua baita jakitea zer espaziotan (lekuak) eta zer denboraz (maiztasuna) egiten dituzten gizarte-jardunak emakume horiek, ahalduntze-prozesua ikusgai egiten den adierazpideetako bat baita.

5.6. taulan, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek gaur egun egiten dituzten 18 jarduera azaltzen dira, bost maiztasun mailatan. 5.12. grafikoan, jarduera horiek guztiak hiru multzo handitan bildu ditugu: etxebizitza muina duten jarduerak (“home-centred” deiturikoak), gizarte-jarduera ez-formalak, eta gizarte-jarduera formalak edo antolatutak.

Pertsona gehientsuenengan bezala –aztergai dugun belaunaldian are garrantzitsuagoa izan daiteke, bereizgarri gisa adierazi ditugun ezaugarriak direla eta: adina, bizitza-zikloa, edo genero femeninoaren sozializazioa– etxebizitza eguneroko jarduera askoren erreferentziako gunea da, gunea nagusia.

Telebista ikustea, etxeko lanak egitea eta irratia entzutea emakumeen belaunaldi horren oso ohikoak diren jarduerak dira. Ia bi emakumetik batek (%47) ez ditu inoiz egiten etxeko inguruarekin lotutako jarduerak (zaletasunak edo hobbyak), eta horrek indartu egiten du etxeko ingurune horretan denbora pasatzeko gizarte-jardun moduan telebistaren eta irratia nagusitasuna, eta neurri txikiagoan, irakurtzearena.


5.6. TAULA Ohikoak diren jarduerak, maiztasunaren arabera. Guztira. Ehunekoak

JARDUERAK	EGUNERO	ASTEAN	HILEAN	HILEAN	INOIZ EZ
	EDO IA	BEHIN	BEHIN	BEHIN	
	EGUNERO	EDO	EDO	BAINO	
	BITAN	BITAN	BITAN	GUTXIAGOTAN	
Etxean (Home-centred)					
Irakurri	53,5	13,3	3,3	11,5	18,3
Irratia entzun	73,8	7,2	1,7	3,0	14,3
Telebista ikusi	95,0	2,7	0,3	1,3	0,7
Etxeko lanak	89,3	4,0	0,7	1,3	4,7
Etxeko inguruarekin lotutako jarduerak	23,2	10,2	6,8	12,8	47,0
Gizarte-jarduera ez-formalak					
Bizileku edo auzoko inguruarekin lotutako jarduerak	71,2	12,5	1,0	1,8	13,5
Gizarte-jarduerak (Adinekoen zentroa, ateratzea...)	16,8	14,7	7,3	5,5	55,7
Erljioarekin lotutako ekitaldiak	8,5	37,2	12,1	10,9	31,3
Kultura-jarduerak (zinema, antzerkia, kontzertuak, etab.)	1,0	5,5	10,5	20,4	62,6
Teknologia berrien erabilera (Internet, e-posta...)	5,7	2,2	0,7	2,5	89,0
Turismoa egitea, bidaiak, txangoak...	0,3	0,8	6,2	37,1	55,5
Gizarte-jarduera formalak edo antolatutak					
Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	6,3	8,7	1,2	4,3	79,5
Prestakuntza jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	2,7	3,2	1,2	4,3	88,6
Boluntarioen erakundeetan parte hartzea	0,7	1,7	1,8	2,0	93,8
Auzoko elkarteetan parte hartzea	0,2	0,2	0,3	1,7	97,7
Sindikatuetan parte hartzea	0,0	0,0	0,2	0,3	99,5
Alderdi politikoetan parte hartzea	0,0	0,0	0,3	0,7	99,0
Emakumeen erakundeetan parte hartzea	0,5	0,3	0,3	1,2	97,7

Jakina, interes handieneko adierazleak aukeratu nahian, ikerketa honetan ez zen aldagairik sartu jakiteko zer erabaki-ahalmen zuten emakume horiek telebistan ikusten dutena, irrastian entzuten dutena edo irakurtzen dutena aukeratzeko. Eta ezbairik gabe, hori bera gai bat izan liteke, konplexu bezain argigarri den gaia (IGARTUA, J.J. eta BADILLO MATOS, A.; 2003), eta espero dugu beste ikerketa batean sakonago garatu ahal izatea.

Dena den, ikerketa honetan behin eta berriro aipatzen ari garen emaitzak ikusita, ez litza-teke zuzena izango kategorizazio estereotipatuak egitea eta esatea komunikabideen erabilera jarrera pasiboa dela nagusi, eta ez direla estrategia proaktiboak eta selektiboak erabiltzen, ikusten dena, entzuten dena edo irakurtzen dena aukeratzeko. Eta adineko pertsonak ez daude horretatik kanpo.

5.12. GRAFIKOA Ohiko jarduerak. Hiru taldekatze. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Espazio publikoa da (“kalea”) jarduera sozial ez-formal moduan kategorizatu ditugun ohiko jardueren beste alor handia. Horretan parte-hartze handia dagoen arren, alde handiak daude jarduera batzuetatik besteetara, etxebizitzaren arloan egiten direnetan izan ezik. Auzoa edo herria da protagonista, hor gauzatzen dituzte gizarte-jarduera ez formal horiek (ibili, parke publikoetara joan, senideei bisita egin, lagunekin eta auzokoekin elkartu, etab.), eta maiztasun handiz, gainera (%71,2k egunero/ia egunero).

Gainerako gizarte-jarduera ez formaletan, berriz, askoz jarduera gutxiago dute bizileku duten inguruneetan (auzoa edo herria) baino. Esate baterako, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako bi emakumetik bat baino zertxobait gehiago (%55,7) ez da inoiz joaten adineko pertsonen klub batera edo zentro batera, ez da inoiz beste pertsona batzuekin (lagunak, senideak) bazkaltzera edo afaltzera joaten. Eta antzeko jarduera urria dute turis-moaren, bidaien eta txangoen arloan ere (%55ek ez ditu inoiz egiten).

Kultura-jarduerarik (zinema, antzerkia, kontzertuak, etab.) ez dute inoiz egiten emakume horien bi herenek (%62,6). Teknologia berrien erabilera (Internet, e-posta, etab.) eskatzen duten jarduerak dira gutxien egiten direnak: hamar emakumetik ia bederatzik ez dituzte inoiz egiten (%89), eta horrek argi eta garbi erakusten du tarte digitala, belaunaldi eta genero ezaugarrikoa, CASTAÑOK (2005) bere ikerketan erakutsi bezala.

Horren haritik, adinaren arabera taldekatzeak aldeak erakusten ditu jarduera horietan (5.7. taula). 65 urtetik 74 urtera bitarteko adin-taldeak denbora gehiago ematen du irratia entzuten eta irakurtzen eta denbora gehiago ematen du, halaber, etxeko lanak egiten. Etxeko lanetan ematen duen denboraren arrazoietako bat izan liteke bizikidetzeta-mota edo familia-unitate konposatua izatea (bikotea edo bikotea eta seme-alabak), eta horregatik denbora gehiago behar izatea lan horietarako.

75 urteko eta hortik gorako emakumeen taldean, berriz, denbora gutxiago ematen dute etxeko lanak egiten, ugariagoak direlako pertsona bakarra bizi diren etxeak eta, zenbaite-tan, lan horiek beste pertsona batzuek (emakumeak) egiten dituztelako. Baina emakume-talde horretan ugariagoak dira etxeko inguruarekin lotutako jarduerak (zaletasunak, hobb-yak), eta horrek ere etxebizitzak adinak gora egin ahala erreferentzia-ingurune moduan gero eta garrantzia handiagoa duela erakusten du.

5.7. TAULA Ohikoak diren jarduerak, maiztasunaren arabera. Adin-taldearen arabera aldeak. Ehunekoak

JARDUERAK	65-74 URTE		75 URTE EDO GEHIAGO		GUZTIRA	
	BAI	INOIZ EZ	BAI	INOIZ EZ	BAI	INOIZ EZ
Etxean (Home-centred)	100,0		100,0		100,0	0,0
Irakurri	85,6	14,4	78,2	21,8	81,7	18,3
Irratia entzun	88,0	12,0	83,5	16,5	85,7	14,3
Telebista ikusi	98,9	1,1	99,7	0,3	99,3	0,7
Etxeko lanak	98,6	1,4	92,4	7,6	95,3	4,7
Etxeko inguruarekin lotutako jarduerak	57,0	43,0	49,4	50,6	53,0	47,0
Gizarte-jarduera ez-formalak	96,8	3,2	93,7	6,3	95,2	4,8
Bizileku edo auzoko inguruarekin lotutako jarduerak	87,0	13,0	86,1	13,9	86,5	13,5
Gizarte-jarduerak (Adinekoen zentroa, ateratzea...)	52,5	47,5	37,0	63,0	44,3	55,7
Erligioarekin lotutako ekitaldiak	63,3	36,7	73,6	26,4	68,7	31,3
Kultura-jarduerak (zinema, antzerkia, kontzertuak, etab.)	51,2	48,8	25,0	75,0	37,4	62,6
Teknologia berrien erabilera (Internet, e-posta...)	18,3	81,7	4,4	95,6	11,0	89,0
Turismoa egitea, bidaiak, txangoak...	62,5	37,5	28,3	71,7	44,5	55,5
Gizarte-jarduera formalak edo antolatutak	38,0	62,0	22,5	77,5	29,8	70,2
Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	27,8	72,2	13,9	86,1	20,5	79,5
Prestakuntza jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	15,2	84,8	7,9	92,1	11,4	88,6
Boluntarioen erakundeetan parte hartzea	7,1	92,9	5,4	94,6	6,2	93,8
Auzoko elkarteetan parte hartzea	2,8	97,2	1,9	98,1	2,3	97,7
Sindikatuetan parte hartzea	1,1	98,9	0,0	100,0	0,5	99,5
Alderdi politikoetan parte hartzea	1,1	98,9	1,0	99,0	1,0	99,0
Emakumeen erakundeetan parte hartzea	2,8	97,2	1,9	98,1	2,3	97,7

Oraingoan ere, emaitzei adin-taldeen arabera erreparatuta, ikusten da belaunaldi horretako emakumeen ohiko gizarte-jarduerak oso desberdinak direla adina kontuan hartzen badugu. Ez da alde handirik ikusten etxeko inguruneko jarduerak egiteari dagokionez, baina egia da 65 urtetik 74 urtera bitarteko emakumeen taldeak gehiagotan egiten dituela gizarte-jarduera ez formalak. Esate baterako, adin-talde horretako bi emakumetik bat joaten da adinekoen zentroetara edo ateratzen da lagunekin (%52,5), eta joaten da kultura-jardueretara (%51,2); eta ia hirutik batek parte hartzen du txangoetan edo bidaietan (%62,5).

75 urteko eta hortik gorako emakumeen taldean, aldiz, askoz mugatuak dira gizarte-jarduera ez-formalak: batetik, gutxiago egiten dituzte, eta, bestetik, maiztasun gutxiagoz. Erliñoarekin lotutako ekitaldiak (mezatara joatea) dira jarduera nagusia, emakume-talde horren ia hiru laurdenek egiten baitute (%73,6), eta horren atzetik baina beste taldeak baino gutxiago, gizarte-jarduerak egitea (adinekoen zentroak, lagunekin ateratzea), %37k egiten baitute, eta zinemara, antzerkera eta kontzertuetara joatea (%25ek) edo turismoa, txangoak eta bidaiak egitea (%28,3k).

Laburbilduz, alde handiak daude 1946. urtea baino lehen jaio eta Euskadin bizi diren emakumeen belaunaldiaren barruan gizarte-jarduera ez-formalak egiteko ematen duten egun-gorak. Dena den, aipatu bezala, oro har antzeko presentzia dute guztiek, baina ez da berdina egiten den jarduera aintzat hartuta. Eta horregatik, berriro azpimarratu behar dugu zuhur jokatu behar dela oro har "adineko" emakumez jarduten dugunean, errealitateak erakusten baitigu zenbait motatako adineko emakumeak daudela. Adina, oraindik orain, adierazle erabilgarria da segmentazio-parametro zehatzagoak ezartzeko.

PARTE-HARTZE INDIBIDUALA, ANTOLATUA ETA INSTITUZIONALA

5.7

Atal honen azken helburua da jakitea zer-nolako ahalduntze politikoa eta soziala duten gaur egun gure autonomia erkidegoan bizi diren eta 1946. urtea baino lehen jaio ziren emakumeek. Hurrengo atala honen jarraipena da, baina emakumeen erakundeak eta mugimenduak muintzat hartuta.

Parte-hartzearen kontzeptu zabala (ELIZONDO, 2004: 77) gure eginda, emakume horien parte-hartze indibiduala aztertzen hasiko gara, alderdi hauei erreparatuz: politikarekiko duten interes orokorra, interes horren bilakaera eta botoa ematea. Hori egindakoa, parte-hartze antolatua edo formala aztertuko dugu (alderdi politikoetan, sindikatuetan, erakundeetan eta elkarteetan duten parte-hartzea), abiapuntu hartuta aurreko ataleko emaitzak, hots ohiko gizarte-jardunei buruzkoak. Azkenik, parte-hartze instituzionala nolakoa den azalduko dugu. Horrek emakume horiek ordezkartza-postuetan gaur egun duten edo iraganean izan zuten esperientziari buruzko informazioa biltzen du.

5.8. taulan bilduta daude 65 urteko eta hortik gorako emakumeen parte-hartze indibidual moten adierazle nagusiak. Azpimarratu beharreko lehen datua da gaur egun politikarekiko duten interes txikia: 2,8 puntu, 10 puntutik. Interes txiki hori nahiko egonkorra da emakume horien bizitzan zehar, hamar emakumetik ia zortzitan: %79,5. Eta politikarekiko interesa aldatzekotan, gehiago dira bizitzaren ziklo honetan interes txikiagoa dutenak (%14,8) handiagoa dutenak baino (%5,7).

Horrenbestez, emakumeen belaunaldi horren gehiengoak ez du interesik politikarekiko, eta, agian, interesik eza egiturazkoa ere bada. Politikarekiko interesa askoz handiagoa da, ordea, emakumeak ordezkartzaren batean jardun badu (6,0). Ezbairik gabe, emakumetalde horrek belaunaldi moduan eta genero moduan izan duen sozializazio mota, oraingoran ere, funtsezkoa da emaitza horiek interpretatzeko. Kontuan izan behar da emakume horiek gazte zireneko eta heldu direneko bizitzaren zati handi bat diktadura batean bizi izan dutela, eta diktadurapean bizitzeak dakarrenaz gain, diktadurak jarduerak sexuaren arabera esleitzen edo banatzen zituela, eta, horrenbestez, emakumeak politikaren arlotik kanpo uzten.


Dena dela, okerreko interpretazioa egingo genuke politikarekiko interesik eza despolitizazio gisa joko bagenu, interesik ezak gauza bat soilik adierazten baitu: emakumeen belaunaldi horren kezken muina ez dela politika instituzionala. Sistema demokratikoa ulertzeko eta haren parte izateko modu bat da (MASA, 2000: 158). Hauteskundeetako parte-hartzearen ehunekoak horrela erakusten du: Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen %86k adierazten du boto-eskubidea gauzatzen duela eskuarki.

5.8. TAULA Politikarekiko interesa, egungoa eta bilakaera, eta boto-eskubidea gauzatzea. Guztirakoa eta adin-taldeka. 0-10 eskala. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Interes orokorra	3,3	2,4	2,8
Interesa ordezkartza publikoa IZAN DUTEN emakumeen artean	6,2	4,7	6,0
Interesa ordezkartza publikoa IZAN EZ DUTEN emakumeen artean	3,0	2,4	2,7
Politikarekiko interesaren bilakaera			
Berdin	%76,8	%82,0	%79,5
Orain txikiagoa	%15,8	%13,9	%14,8
Orain handiagoa	%7,4	%4,1	%5,7
Boto-eskubidea gauzatzen du (baiezkoen %)	%88,4	%83,9	%86,0

Parte-hartze indibidualean eragiten duten arrazoiak interpretatzeko ildoak erabilgarria da, halaber, jakiteko zer modutan eta zer mailatan parte-hartzen duen emakumeen belaunaldi horrek erakundeetan, hots zer parte-hartze formal duen. 5.13. grafikoak horri buruzko lehen zertzelada ematen du. Hamar emakumetik zazpik ez du erakundeetan parte hartzen (%70,2), eta %77,5 dira 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean, eta %62, 65 urte eta 74 urte arteko emakumeen artean.

5.13. GRAFIKOA Parte-hartze globala jarduera formal edo antolatuetan. Guztira-koa eta adin-taldea. Ehunekoak



Baina adinaren araberako alde horiez gain, emaitzen atzean beste desberdintasun batzuk ere badira: alde handiak daude parte-hartze formalaren edo antolatuen “mota” kontuan hartuta. Ikerketa honetan, parte-hartze formala dela jo dugu erakunde bat (entitate, elkarte, etab.) tartean duelako jarduera gauzatzeko sistematizazio mailaren bat behar duen jarduera oro.

Horregatik, esate baterako, gizarte-erakundeetako ohiko parte-hartzeez gain (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak, etab.), kontuan izan ditugu kirol- eta prestakuntza-jarduerak, beharrezkoa bada nolabaiteko konpromiso formala horiek egiteko.

Eta parte-hartze antolatuen azken bi mota horiek –teorian pertsonarengan berarengan arreta handiagoa jartzen dutenak (ariketa fisikoa, prestakuntza)– ugariagoak dira kolektibok arreta handiagoa jartzen dutenak baino (politika eta gizarte zibila). 5.9. taulan agertzen da emakumeen belaunaldi horretako hamar emakumetik bik (%20,5) parte hartzen duela jarduera fisiko edo kirol-jarduera formalizatuetan (ikastaroa, kluba, kiroldegia, etab.). 65 eta 74 urte bitarteko emakumeen artean %27,8 dira, eta ia %14, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean.

5.9. TAULA Parte-hartzea jarduera formal edo antolatuetan. Banakatzea. Guztira, adin-taldeka, eta aldeak. Ehunekoak


GIZARTE-JARDUERA FORMALAK EDO ANTOLATUAK	65-74 URTE		75 URTE EDO GEHIAGO		GUZTIRA		ADIN- TALDEAREN ARABERAKO ALDEAK
	BAI	INOIZ EZ	BAI	INOIZ EZ	BAI	INOIZ EZ	
GUZTIRA	38,0	62,0	22,5	77,5	29,8	70,2	15,5
Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	27,8	72,2	13,9	86,1	20,5	79,5	13,9
Prestakuntza jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	15,2	84,8	7,9	92,1	11,4	88,6	7,3
Boluntarioen erakundeetan parte hartzea	7,1	92,9	5,4	94,6	6,2	93,8	1,7
Emakumeen erakundeetan parte hartzea	2,8	97,2	1,9	98,1	2,3	97,7	0,9
Auzoko elkarteetan parte hartzea	2,8	97,2	1,9	98,1	2,3	97,7	0,9
Alderdi politikoetan parte hartzea	1,1	98,9	1,0	99,0	1,0	99,0	0,1
Sindikatuetan parte hartzea	1,1	98,9	0,0	100,0	0,5	99,5	1,1

Prestakuntza-jarduerak edo ikaskuntzakoak bigarrenak dira emakumeen belaunaldi horrek gehien egiten dituzten jardueren artean, eta guztizkoaren %11,4k egiten ditu. Ingurune arautu batean egiten diren jarduerari esaten zaie, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza dakartenei. Dena dela, emakumeen belaunaldi horretan, "long life learning" deritzona hasi berria den jarduera da soilik, eta are gehiago 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (%7,9).

5.9. taulan, eta 5.14. grafikoan, agertzen da zer-nolako parte-hartzea duten Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek gizarte-, politika- edo talde-arloko erakundeetan. Eta ikus daitekeenez, parte-hartze sozial antolatu hori txikiagoa da aurretik aipatu ditugun jarduera horietakoa baino, guztizkoaren %9,3k egiten dute eta. Eta, gainera, oraingo honetan erakundeetako parte-hartze txikiago horrek ez du alderik adin-taldeeireparatuta, eta, orobat, ezin da parte hartzen duen emakumearen profil bat zehaztu aurretik horretarako erabili ditugun alderdiak kontuan hartuta (amaitutako ikasketak, egoera zibila, bizikidetza-modua, diru-iturriak eta horien jatorria, heldu-bizitzako lan-ibilbide nagusia, edota osasun-egoera).

Dena den, badirudi boluntarioen erakundeetan duten parte-hartzea gero eta handiagoa dela emakumeen belaunaldi horren artean (guztizkoaren %6,2), eta, bereziki, bizitzaren aldi horretan autonomia irabazi dutenen eta amaitutako ikasketak-maila batez bestekoa baino altuagoa dutenen artean. Bi aldagai horiek nabarmentzen dira, halaber, emakumeen erakundeetan parte hartzen duten emakumeen artean (guztizkoaren %2,3 dira, eta hurrengo atalean aztertuko dugu sakonago).


5.14. GRAFIKOA Parte-hartzea jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan, prestakuntza-jardueretan eta erakundeetan. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Parte-hartzearen azken adierazpena, parte-hartze instituzionalarena, 5.15. grafikoan agertzen da. Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen %3,7k ordezkaritza publikoa edo politikoa izan du bere bizitzako unereneren batean. Oraingoan ere agerikoak dira adin-taldearen araberrako aldeak, esperientzia urri-urria baita 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (1936. urtea baino lehen jaiotakoen artean), eta 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen artean, berriz, %6,7k izan dute ordezkaritzaren bat.

Erantzukizun instituzionaleko esperientziak politikaren eta sindikatuen alorrekoak izan dira, batez ere, eta haren atzetik elkartegintzakoak eta hirugarren adinekoen elkarteetakoak daude. Edonola ere, 5.10. taulako adierazle garrantzitsuenetako bat da rol hori iraganeko gauza izan dela; izan ere, gaur egun jada ez du horrelako erantzukizunik emakume horien %77,3k. Badirudi, beraz, Euskadin 65 urte edo hortik gora duten emakumeen parte-hartze instituzionala kopurutan nahikoa txikia izateaz gain, ez dela egon bizi diren bizitza-zikloko berezko gizarte-jardueratzat jotzen den gizarte-jarduera.

5.15. GRAFIKOA Esperientzia ordezkari-tza edo erantzukizun publikoko eta/edo politikoko karguren batean. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



5.10. TAULA Ordezkaritza edo erantzukizun publikoko eta/edo politikoko karguaren erantzukizun-arloa eta gaur egun ere izan baden. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

ERANTZUKIZUN INSTITUZIONALAREN ARLOA	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Politika-arloa	36,8	33,3	36,4
Sindikatu-arloa	36,8		31,8
Elkartegintza-arloa	15,8		13,6
Enpresa-arloa	10,5	33,3	13,6
Hezkuntza-arloa		33,3	4,5
Gaur egun erantzukizuna izaten jarraitzen den (baiezkoen %)	21,1	33,3	22,7

EMAKUMEEN MUGIMENDUAK: INTERESA, PARTE-HARTZEA ETA EKARPENAK


5.8

Emakumeen mugimenduak, zentzu zabalean ulertuta, maila oso zehatza dira, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen parte-hartze moduak islatzen diren maila

zehatz bat. Ikerketa honetan, horri buruzko zenbait galdera zehatz egin ziren, jakiteko zer nolako interesa, parte-hartzea eta iritzia zuten emakume horiek mugimendu horiekiko.

Emakume-talde horrek emakumeen mugimenduetan duen parte-hartzeari dagokionez, 5.16. grafikoan bi gauza jartzen dira, gutxienez, agerian: batetik, emakumeen %93,2k ez duela inoiz parte hartu horrelako mugimenduetan/elkarteetan; eta, bestetik, noizbait parte hartu duten emakumeen artean, parte-hartzea iraganeko gauza dela, eta gaur egun ez dutela parte hartzen.

5.16. GRAFIKOA Parte-hartze maila emakumeen mugimenduetan/elkarteetan. Guztirakoa eta adin-taldea. Ehunekoak



Dena dela, esku-hartze aktiboa (edo antolatua) parte-hartzearen alderdi bat da, eta norbakoarena da bestea. Emakumeen mugimendu edo elkarteekiko interesa (5,5) politikako interesaren halako bi da (2,8). Aldeak daude, halaber, ezarritako bi adin-tarteen artean: interes handiagoa dute 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeek (6,4) 75 urte eta hortik gorako emakumeek baino (4,7).

Emakumeen mugimenduei buruzko interesarekiko alde handienak kasu hauetan gertatzen dira: mugimenduetan parte hartzen badute eta parte hartzen ez badute (5.11. taula). Eta agerikoa denez, lotuta daude interes handia izatea eta benetan parte hartu izana, 8 puntutik gorako interesa agertzen dute eta.

Eta interpretazio-ildo berak balio du mugimendu eta elkarte horiek emakumeen bizi-baldintzen hobekuntzari egin dieten ekarpenaren ezagutza aztertzeko. 6 puntu ematen zaizkio 10etik, eta handiagoa da 65 eta 74 urte bitarteko emakumeak eta mugimendu horietan parte hartu dutenak badira.

5.11. TAULA Emakumeen mugimendu/elkartekiko interesa, eta haiek emakumeen bizi-baldintzan egin duten ekarpena. Guztirakoa eta adin-taldeka. (0-10 eskala)

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Interes orokorra	6,4	4,7	5,5
Haietan parte hartu DUTEN emakumeen interesa	8,6	7,1	8,1
Haietan parte hartu EZ DUTEN emakumeen interesa	6,1	4,6	5,3
Ekarpen orokorra	6,8	5,3	6,0
Ekarpena, haietan parte hartu DUTEN emakumeen iritziz	7,9	6,8	7,5
Ekarpena, haietan parte hartu EZ DUTEN emakumeen iritziz	6,7	5,3	5,9

Landa-lanean izandako erantzunen bolumenak dakartzan mugak kontuan hartuta betiere, aditzera eman daiteke 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeen artean zenbat eta handiagoa izan amaitutako ikasketen maila eta zenbat eta handiagoa izan hileko diru-sarrerak, orduan eta handiagoa dela emakumeen mugimendu/elkartekiko duten interesa eta haietan duten parte hartzea, eta, hortaz, baita mugimenduek eta elkarteek egindako ekarpenaren balioespena. Lan-arloan esperientzia izateak, berriz, ez dauka eraginik.

Azken hiru atalen laburpen moduan, esan daiteke Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldiak gizartean egun parte hartzeko duen moduak –dela ez-formala, dela formala edo antolatua– emakume horien sozializazio primario eta sekundarioko prozesuetara garamatzala berriro ere. Datu guztiek iradokitzen dute zerbait estrukturala dela emakumeen belaunaldi horrek egin ditzakeen gauzen artean emakumeen berezko erakundeetan horrelako jarduerarik ez egitea. Parte-hartze aktiboa ez dago emakume horien aukeren edo hautuen artean, eta, hori, ezbairik gabe, handicap bat da, emakumeak horrelakoetan parte hartzea bultzatu nahi duen proposamen orok kontuan izan beharko lukeen oztopo bat.

ZAINZAILEAK ETA ZAINDUAK


5.9

Atal honetan zaintza-jarduerak aztertzen dira; hots, 65 urteko edo hortik gorako emakumeek egungo ohiko jardueran egiten dituzten zaintza-lanak eta haiei egiten dizkietenak, autonomia/mendekotasuna balantzea, alegia. Gure asmoa da agerian jartzea atentzioaren alorrean ere eginkizun aktiboa duela emakumeen belaunaldi horrek, eta eginkizun horretan zenbait erabaki hartzen dituela egunerokoan. Geroago sakonduko dugu horretan, baina, lehendabizi, zenbait emaitza aurkeztuko ditugu.

Oro har, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen %77,5ek adierazten du ez duela beste pertsonarik zaintzeko lanak egiten. Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horren artean kontuan hartzeko moduko emakume kopuru batek egunero egitea zaintza-lanak agerian jartzen du edo islatzen du jarraitasuna duela emakume horiek bizitza-ibilbidean egin izan duen gizarte-jarduerak.

Baina 5.17. grafikoak erakusten du emaitza orokor horien atzetik alde handiak daudela adina aintzat hartzen badugu. Joera orokor moduan, esan dezakegu beste pertsona batzuen zaintza nabarmen jaisten dela adinak gora egin ahala. Eta esan dezakegu, halaber, alderantzikoa gertatzen dela pertsona hori beste batek zaintzeari dagokionez, gero ikusiko dugun bezala. Ikerketaren gai ditugun emakumeen belaunaldi horretan, 75 urteak mugarria dira, zaintzaren agente aktibo edo pasibo izatearen mugarria.

5.17. GRAFIKOA Zaintza: bilobak eta beste senide batzuk. Guztirakoa eta adin-taldeka. Baiezko erantzunak. Ehunekoak



**BILOBEN ZAIINTZAILEAK:
ROLAREN JARRAIPENA,
ORAIN AMONA MODUAN**

5.9.1

Zaintza aktiboaren lehenengo moduari erreparatuz, 65 urte eta hortik gora duten emakumeen artean bilobak edo/eta birbilobak dituztenen artean (guztizkoaren %77 dira, eta batez beste 4 dituzte), %18,8k adierazten du, gaur egun horietako bat gutxienez zaindu ohi duela (5.12. eta 5.13. taulak). Alde handiak daude adin-taldeen arabera: 65 urte eta 75 urte bitarteko emakumeen taldean hamar emakumetik hiru baino gehiago lirateke (%32,2).

Bilobak zaintzen dituen amonaren profila hau da: 65 eta 74 urte bitartean ditu, bikotea du, hilean 600 eta 900 euro bitarteko sarrerak ditu, ez du laguntzarik behar eguneroko bizitzako jarduerak egiteko, eta astean hiru egun inguru ematen ditu zaintza-lan horietan. Zaintzak, gainera, nolabaiteko espezializazioa du: haurrari jaten ematea eta etxea-eskola-eskolaz kanpoko jarduera espazioetara laguntzea eta etxera ekartzea.

TOBÍOk (2005: 88) adierazten duen bezala, "emakumeen azken belaunaldiak, etxeo andreak gehienak, amonen belaunaldiak, bikoiztu egiten du ama-rola: lehendabizi bere

seme-alabak zaintzen ditu, eta ondoren, bilobak. " "Ordezko baliabidea" dira, ama bikarioa, eguneroko bizitzan agertzen zaiguna, hauek eraginda: emakumeak produkzio-arloan sartu izanak, emakume horien soldataren eta lanaldiaren kalitateak, eta, batez ere, gure testu-inguruan ez izateak historikoki –orain arte, bederen– Ongizate Estatuaren laugarren zutabea deiturikoa (NAVARRO, 2006:85). Eta laugarren zutabe hori ez izatea Europa hegoaldeko herrialdeen ezaugarri bereizgarria da (FLAQUER, 1998).

5.12. TAULA Biloben zaintzaren maiztasuna. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Egunero edo ia egunero	47,8	44,4	47,1
Astean behin edo bitan	21,7	27,8	23,0
Astean hirutan edo lautan	14,5	16,7	14,9
Gainerakoa	13,0	11,1	12,6
Ed/Ee	2,9	0,0	2,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

5.13. TAULA Biloben zaintza-mota. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak


	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Bazkaltzen eman	31,9	33,3	32,2
Eskolara eraman, eskolaz kanpoko jarduerak	24,6	22,2	24,1
Egun osoa	10,1	11,1	10,3
Berarekin bizi dira	8,7	11,1	9,2
Bazkaltzen eman, eskolara eraman, eskolaz kanpoko jarduerak	4,3	0,0	3,4
Gurasoen beharraren arabera	2,9	0,0	2,3
Bazkaltzen eman eta gurasoen beharraren arabera	1,4	0,0	1,1
Ed/Ee	15,9	22,2	17,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Ez da erraza jakitea zer autonomiaz erabakitzen duten 1946. urtea baino lehen jaiotako amona horiek bilobak zaindu ala ez –lehendabizi– eta zer baldintzatan zaindu –maiztasuna, jarduerak, etab.– Eta ikerketa kualitatiboetan ere, esaterako EMAKUNDEk egindakoan (2007), talde-dinamiketan "amonen laguntza" gaia agertzen zenean, oso zaila zen bereiztea zer zen maitasunaren eraginez emandako laguntza eta zer abusua.

Jakitun izanda aukera metodologiko kuantitatiboa erabiliz oso zaila zela sentimendu horiek identifikatzea, ikerketa honen helburua izan zen gertaera horren nondik norakoen nolabaiteko hurbilpena egitea. 5.18. grafikoan agertzen den bezala, hauteman dugu biloba bat gutxienez zaintzen duten emakumeen %5,7k adierazi duela zaintza-lan horrek autonomia kentzen diola bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko (edo bere denbora kudeatzeko). Erabakiak hartzeko ahalmena gutxitzen dion arren, emakume-talde zehatz horrek ez du

ezer egin hori konpontzeko. Eta zergatik? Metatu-edo egiten diren arrazoi-multzoko batengatik; hots: gurasoek ez dutelako beste modu batean antolatzeko aukerarik (horren barruan sartzen da, ahalmen ekonomikoa ez izatea zaintza-lan hori beste bati emateko, ordainduz), edota zaintza-rol hori emakumearen beraren erantzukizuntzat hartzen dutelako, eta kasu honetan, dauden bizitza-zikloan daudela, amona izatearen eginkizuntzat.

5.18. GRAFIKOA Autonomia galtzearen pertzepzioa, bilobak zaintzen dituzten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean. Guztira. Ehunekoak



**BESTE SENIDE BATZUEN
ZAINZA: BERAIEN
ERABAKIA**

5.9.2

Senide bat zaintzea da Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen zaintza aktiboaren bigarren mota: talde horren %7,7k egiten du. %9,2 dira 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen artean, eta %6,3, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean.

Zaintza-lan horrek dedikazio handiagoa eskatzen du bilobaren bat zaintzeak baino. Zaintza-lan mota horren %70ek egunero egitea eskatzen du edo ia egunero egitea azken hamalau urteetan (5.14. taula).

5.15. taulak adierazten du askotarikoa dela zaintzen den pertsonarekiko ahaidetasuna, baina senarra/ezkontidea da nagusi. Izan ere, senidea zaintzen duen pertsonaren profila, ikerketa honetatik ateratzen zaiguna hau da: bikotea izatea, eta gainera, ez behar izatea laguntzarik eguneroko lanak egiteko, osasun ona edo oso ona duela hautematea, eta hilean 600 eta 900 euro arteko diru-sarrera garbiak izatea.

5.14. TAULA Beste senide batzuen zaintzaren maiztasuna. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Egunero edo ia egunero	65,4	75,0	69,6
Astean bitan edo hirutan	11,5	10,0	10,9
Astean hirutan edo lautan	3,8	5,0	4,3
Beste maiztasun bat	19,2	10,0	15,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Urteak, batez beste, zaintza-lanetan	11,7	17,1	14,0


5.15. TAULA Zaintzen den senidea. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Senarra	19,2	30,0	23,9
Anaia/ahizpa	23,1	20,0	21,7
Semea/alaba	15,4	20,0	17,4
Ama	23,1	5,0	15,2
Beste pertsona batzuk	11,5	20,0	15,2
Ed/Ee	7,7	5,0	6,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Bilobak zaindu ohi dituzten 65 urteko eta hortik gorako emakumeen kasuko analisi-logika berberari jarraituz, galdetegiaren bidez jakin nahi genuen zer autonomiaz erabakitzen duten emakume horiek senideren bat edo bat baino gehiago zaindu ala ez –lehendabizi– eta zer baldintzatan zaindu –maiztasuna, jarduerak, etab.–. 5.19. grafikoak erakusten du senide bat zaintzen duten emakumeen %15,2k adierazten duela autonomia pertsonala galdu dutela sentitzen dutela, eta, batez ere, ezin dutelako beraien denbora kudeatu, eta horrek beren buruaz ez arduratzea dakarrela eta horrek osasunean eragiten diela.

Amona zaintzaileen kasuan bezala, emakume-talde horrek ere ez du ezer egin autonomia-ren galera hori konpontzeko; baina kasu honetan emakumearen beraren eraginez da, uste baitu zaintza-lan hori bere ardura dela, berea bakarrik, eta bere gain hartu behar duela.

5.19. GRAFIKOA Autonomia indibidualaren galeraren pertzepzioa 65 urte edo hortik gora duen eta senideren bat zaintzen duten emakumeen artean. Guztira. Ehunekoak




BESTE EMAKUME BATZUEK ZAINZTEN DITUZTEN ADINEKO EMAKUMEAK

5.9.3

Orain, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen zaintza-esperientziari erreparatuko diogu agente hartzaile moduan eta ez agente aktibo moduan. 5.20. grafikoak erakusten duenez, belaunaldi horretako lau emakumetik ia batek behar du zaintza-motaren bat edo laguntzaren bat eguneroko jarduerak egiteko (%24,7).

5.20. GRAFIKOA Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren baten beharra. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Oraingoan ere, emakumeen belaunaldi horren adin-taldearen arabera aldeak funtsezko adierazleak dira emaitza absolutu horiek nabartzeko. Izan ere, laguntzaren beharra dutenak %11 dira, 65 urte eta 74 urte bitartean dituzten emakumeen artean, eta %37, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean, hots hamar emakumetik ia lauk behar dute laguntza emakume-talde horretan.

Adinaren aldagaiaz gain, emaitzek beste faktore batzuk identifikatzeko aukera ere ematen dute eguneroko jardueretarako laguntza-motaren bat behar duten 65 urteko edo hortik gorako emakumeen profileen: bakarrik bizi dira edo seme-alabekin, alargunak edo dibortziatuak/bananduak dira, alfabetatu gabeak, eta haien diru-iturri nagusia alarguntza-pentsioa da, hilean 600 euro baino txikiagoa, eta, pentsa zitekeen bezala, osasun txarra, oso txarra edo erdipurdikoa duela hautematen du.

Euskadin egoitzetan bizi ez diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen "zaintzaren feminizazioa" da ikerketa honen emaitza agerikoenetako bat. 5.16. taulan adierazten denez, ia guzti-guztiak emakumeak dira –gehienetan etxeko langilea eta alaba– eta ia ez dago gizonezkorik. Eta gizonezkorik badago, ohikoena da gizonarekin batera emakume bat ere egotea.

Halaber, bada interesgarria den beste alderdi bat ere: eguneroko jardueretarako laguntza behar duten adineko emakumeen zaintzaileak, gehienetan, emakumezko etxeko langileak dira, hamarretik ia sei, hain zuzen ere (%59,5).

5.16. TAULA Egunerokoan lagundu ohi dion pertsonaren bat izatea. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Emakumezko etxeko langilea	64,5	58,1	59,5
Alaba	22,6	18,8	19,6
Gizarte-zerbitzuetako langileak	12,9	11,1	11,5
Semea	3,2	8,5	7,4
Ezkontidea edo bikotea	3,2	4,3	4,1
Emakumezkoak soilik	100,0	93,3	93,9
Gizonezkoak soilik	0,0	7,7	6,1

Dena dela, aipatu behar da galdetegiaren diseinuak hutsune bat utzi zuela, ez baitzuen elementurik jakiteko 65 urteko edo hortik gorako emakume horrek zer autonomia izan zuen erabakitzeke beste norbaitek zainduko zuen ala ez.

**ZAINTZAREN BALANTZEA:
ESPERIENTZIA DESBERDINA
ADINAREN ARABERA**

5.9.4

Balantza batean jartzen baditugu zaintza-lanetan diharduten (batez ere, bilobak, baina baita beste senide batzuk ere) eta Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeak eta, aldiz, eguneroko jarduerak egiteko zaintza-motaren bat behar dutenak, "berdinketa

teknikoa” dagoela esango genuke. Baina adin-taldean arabera aztertuta, bi errealitate erabat desberdin ditugu. Eta adierazi dugun bezala, zaintzaren agente aktibo edo pasibo izatearen mugarrria 75 urteak dira.


Dena dela, emakumeek egiten dituzten zaintza-lanak, eta batez ere 65 urtetik 74 urtera bitartekoek egiten dituztenak, gizarte parte-hartze ez formala dira, argi eta garbi; hots, beraien denbora beste pertsona batzuek arduratzeko erabiltzea.

Begien bistakoa da gure eguneroko bizitzan 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi hori –1946. urtea baino lehen jaiotakoen belaunaldia– funtsezko baliabidea dela “lehen mailako gizarte-sare” horretan (BOTT, 1990), belaunaldien eta generoen arteko elkartasun-sare bat dela, eta ez dela euskarri moralak soilik, senideen arteko euskarri solidarioa soilik, baizik eta eginkizun materiala ere baduela ongizatearen gizartearen ereduari eusteko, bai lehen, goren-gorenean zegoen garaian, bai orain, garai haiek betirako joan direla dirudien unean.

Ez dirudi leku egokiena aztertzeko zein den zaintza-lan ez-formalaren egiturazko garrantzia eta horrek ekarri ohi dituen kostu emozionalak. Baina funtsezko alderdia da, agerikoa denez, gure gizartearen egituratzean ezkutukoa bihurtu dena edo familiaren arloa baztertuta –politikoki–, pribatuaren, afektuaren arloa baztertuta, alegia. Tamalez, ez da erraza sakonago aztertzea zer prozesuak eta estrategiak eragiten duten a priori zaintza egitea erabakitzeke orduan. Baina ikerketa honen emaitzek adierazten digute, a posteriori, zaintza-lanetan jarduteko erabakia hartzen denean, agertzen diren arazoak estu-estu lotuta daudela beraien rol-esleipena bere gain hartzearekin, etxeko-familiako arloan zaintzaile-eginkizuna, funtsezko eginkizuna, bere egitearekin.

Hurrengo kapituluan, belaunaldi horretako emakume bakoitzaren ibilbide biografikoan koherentziak bilatzearen gaiari ekingo diogu. Hori da estrategia bakarra, edo estrategia logikoena, egonkortasun-probabilitate “handienak” dituen nortasunari eusteko.

5.21. GRAFIKOA Zaintzaren balantzea: adineko emakume zaintzaileak eta zainduak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



6

NORBERAREN AUTONOMIA ALDERATUA: IBILBIDE BIOGRAFIKOAREN BERRIRAKURKETA

Aurreko kapituluak Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldiak dituen esperientziak, iritziak eta jarduerak azaldu ditugu, eta kapitulu honetan, berriz, kontua ez da argazki modukoa ateratzea aurrekoan bezala, panoramiko moduko bat egitea baizik. Kontua da, azken finean, adieraztea zer bilakaera izan duten emakumeek hautesmandako autonomia indibidualaren esperientziak beren ibilbide biografikoan zehar.

Iragandako gertaeren luzetarako hurbilpen orok arrisku asko ditu, edozein dela ere, agian, aukeratzen den metodologia-estrategia. Ikerketa honen ikuspegiak eta ikuspuntuak hasiera-hasieratik onartu ditu pertsonaren baitako edo belaunaldi baitako irakurketa alderatuak dakartzan arriskuak.

Ez da, inolaz ere, erraza galdetegi batean adieraztea, inkesta egiten duen pertsona han dagoela, bizitako historia baten laburpena, igarotako historia baten eta askotan luzea den historia baten laburpena egitea. Pertsona bakoitzak eraikitzen du bere ibilbide biografikoaren narrazioa, eta, horregatik, litekeena da bizitakoaren balantzeak esperientzia txarrenak neutralizatzea, koherentziak aurkitu nahian-edo, bere garaian horrelakorik ez zegoen lekuan, agian. Edo, aitzitik, litekeena da distantzia horretatik soilik egin ahal izatea objektibotasun handienaz bizitzako uneetako irakurketa alderatua.

Kapitulu honen abiapuntua belaunaldi horretako emakumeek beren berrirakurketa biografikoari buruz dituzten iritziak dira, landa-lana egin zen unean adierazten dituztenak, alegia. Berrirakurketa biografikoaren ardatzak hauek dira: emakumeek hauteman dituzten aldaketa garrantzitsuak autonomiari dagokionez, beraien erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez, azken bi bizitza-zikloetan, aurrekoan, emakume "heldu" moduan, eta egungoan, "adineko" emakume moduan.

AGENTETZA BILATUZ "BIZI IZAN GAREN BEZALA ZAHARTZEN GARA" ESALDIARI

6.1

"Genero-identitateak, gizonentzat eta emakumeentzat eraikitakoak, ez dira asko aldatzen zahartzaroan, identitate horiek gizarte-arauek laguntza jasotzen dutelako, bizitzaren azken aldi horretan batzuek eta besteek portaera desberdina izateko espektatibak ezartzen dituzten gizarte-arauek indartzen dituztelako." (PÉREZ ORTIZ, 2006b:91, enfasia gurea da)

Lourdes Pérez Ortizen hitz horiek ditugu gidari Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ahalduntzearen egungo egoerari eta horren agerpenei hurbiltzeko, dela ahalduntze indibiduala dela soziala. Oso zailak dira aldatzen 1946. urtea baino lehen jaio diren emakume horien identitate pertsonala eta soziala testuinguru historiko jakin batean zizelkatu dituen genero-sozializazio prozesuak, egungo adineko pertsona egoeraren aurreko bizitza-zikloan jardun dutenak, eta, esaterako, hori izan da arrazoi nagusia interpretatzeko, emakumeen belaunaldi horrek a priori zergatik duen parte-hartze txikia gizarte-jarduera formaletan edo antolatuetan –aurreko ataletan azaldu bezala–, badutenean horretarako behar den baliabidea: denbora.

Interpretazio sozializatzaile berbera erabili da, argudio gisa, ulertzeko egunerokoan dituzten gizarte-jarduera informalak, etxebizitzaren inguruari lotutakoak, senideak egunero zaintzeko jardueretan duten presentzia, heldu-bizitzako lan-ibilbidea zenbatekoa den eta nola bide-

ratu den; ulertzeko egungo ahalduntze ekonomiko formal eskasa; edo ulertzeko zergatik ez duten gehienek kultura-jardueretan parte hartzen.

Edonola ere, akats larria litzateke duda-mudarik gabe hartzea pertsonen bilakaeraren eta pertsonen ibilbide biografikoen interpretazio sozializatzaile hori. Izan ere, horrela balitz pertsona guztiak aurretik zehaztutako moldeak ginatke, gure egiturazko baldintzaren moldeak –besteak beste, generoarenak–, eta ez litzateke inolako aukerarik egongo aldaketetarako, ez norbanakoarena, ez taldearena.

Horrenbestez, geure ikuspegia bestelakoa da: jakitea pertsona bakoitzak zer aldaketa egin ditzakeen, zenbateraino alda ditzakeen edo zer agentetza-ahalmen duen sozializazio prozesuek dakartzaten egiturazko hertsadura horiek gainditzeko. Ongi adierazi dute oraintsu FREIXAS ETA LUQUEK (2009: 194): *“bizi garen bezala zahartzen gara”*. Baina badago tartetik aldaketarako edo norbanakoaren agentetzarako.

Funtsean, berriro ere, agentetzaren eta egituraren arteko interakzioa da, pertsonaren eta gizartearen artekoa. Azpimarratzen da pertsonak gai direla a priori sozialki edo kulturalki bere generoari, belaunaldiari (adina) edo estatusari esleitu ez zaizkion edo ez dagozkion ekintzak egitea dakarten erabakiak hartzeko edo estrategiak abian jartzeko. Eta hori da ahalduntzearen teoriaren funtsa eta oinarria: genero-izaerak aldatzeko aukera.


Guri dagokigun kasuan, etorkizunak pisu handia du (estutu egiten du), baina ez du itotzen. Ez litzateke logikoa pentsatzea pertsona gehienek, adineko bihurtzen direnean, kopernikar iraultza egingo dutenik, erabat urrunduko direnik beraien bizitza-esperientziatik eta bizitza-ibilbidetik. Erraza da imajinatzea zer arrisku ekarriko lituzkeen iraultza kopernikar horrek, norberak bizitako esperientzia pertsonal horretatik urruntzeak. Izan ere, neurri handi batean, denboraren iraganak eskatzen du ibilbide biografikoa modu koherentean eraikitzea, bizitzaren mugariak bilatzea edo haiek berrirakurtzea, bizitzaren iragateari zentzua emateko. Eta badira bai trikimailuak norberaren historia pertsonal hori egiterakoan, baina adineko pertsona bihurtzeak, gure kulturaren bederen, eskatzen du nolabaiteko zentzu logikoa bilatzea norberak bizi izandako bizitzari.

IDENTITATEAREN JARRAITASUNA HAUTEMATEN DUTE GEHIENEK

6.2

6.1. grafikoko emaitzek ongi biltzen dituzte, gure ustez, alderdi horien zabaltasuna. 65 urteko eta hortik gorako emakumeei galdetzen badiegu nolako bilakaera izan duen beraien autonomia indibidualak bizitzako azken bi aldietan (helduak zirenean/iragana eta adinekoak direnean/oraina), koherentzia identitario horren arabera erantzuten dute. Hamar emakumetik zazpik (%70,2) bere ibilbide biografikoaren berrirakurketa mihizatua egiten du; hots, bere erabakiak autonomiaz hartzen zituela eta orain ere autonomiaz hartzen dituela adierazten du. Emaitza horiek guztiz lotuta daude 65 urteak betetzeak emakumeen belaunaldi horretan duen eragin urriarekin (aurreko atal batean adierazi dugu eragin handirik ez dute la sumatu).

6.1. GRAFIKOA Ibilbide biografikoa nola hautematen duten autonomia indibidualari dagokionez. Balantzea: heldu-aroa/egungo aroa. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Esan dugun bezala, gehienek hautematen dute autonomia indibiduala ez dela ia batere aldatu denboran zehar, baina 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean badira egungo aro biografikoan sartzean beraien erabakiak hartzeko ahalmenean aldaketak sumatu dituzten bi talde. Batzuek autonomia indibidual handiagoa dutela hauteman dute: hamar emakumetik ia bik (%18,3). Eta beste batzuek, berriz, txikiagoa dutela: hamar emakumetik batek baino zertxobait gehiagok (%11,3).

Oraingoan ere oso adierazgarriak dira adin-taldeen araberako aldeak. Eta kasu honetan, ez hainbeste bizitza-ziklo honetan autonomiari eutsi diotenen edo autonomia handiagoa dutenen artean, baizik eta beraien erabakiak hartzeko ahalmen txikiagoa dutenen artean. Kapitulu honetako beste atal batean azalduko ditugu zer arrazoik edo zioek eragiten duten horretan.

**AUTONOMIA
INDIBIDUAL MAILA
ALDERATUAK**

6.3

Behin ikusi dugunean Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek oro har zer bilakaera izan duten autonomia indibidualari dagokionez, egokia dirudi parametro hori zehaztea edo xehatzea. Eta zazpi mailatan egingo dugu.

Ikerketa honen galdetegiaren diseinuaren helburua izan zen maila horiek eguneroko bizitzan ahaldundutzeak zituen agerpenak adieraztea. Hots: afektua, harremanak, ekonomia, arlo pertsonala, komunikazioa, norberaren zaintza eta beste pertsona batzuen zaintza.


Lehen adierazi bezala, ibilbide biografikoan oro har autonomia indibidual mailan aldaketa handirik ez dute hauteman gehienek, eta horrekin bat, emakumeen belaunaldi horrek ez du aldaketa handirik hauteman lehen/orain balantzean, galdetegian ezarritako zazpi ahal-duntze-mailen artean. Badirudi 6.2. grafikoak adierazi nahi digula 1946. urtea baino lehen jaiotako emakume horiek hautematen dutela eta irizten dutela gehientsuenetan beraien erabakiak hartu izan dituztela bizitza pertsonala eta soziala osatzen duten alderdi askotan.

Horregatik, ez dugu ahaztu behar, aztergai dugun emakumeen taldean, ahal-duntze-adierazleen identifikazioa ñabardura kontua dela, eguneroko jardueretan izandako aldaketa, itxuraz, txikiak zenbakitan adierazita; baina, seguruenik, praktikan, beraien bizitza-ibilbidearen logikatik oso garrantzitsuak diren erabakiak hartzearen adierazle dira.

Ikuspegi horretatik, izateko eta bizitzeko moduan aldaketa handirik hautematen ez duten ingurune horretan duten eragiteko tarte –itxuraz– txiki horiek identifikatzeko lanean, ikusten da 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horretan, oro har, norberaren denboraren kudeaketan autonomia handitu dutela sumatzen dutela, hots une horretan egin nahi dutena aukeratzeko autonomia handiagoa dutela (+%9,1). Aipatzekoa da, halaber, beren iritziak adierazteko ahalmena ere handitu egin dela hautematen dutela (+%3,1).

Badira, ordea, erabakiak hartzeko ahalmen hori heldu-bizitzarekiko gutxitu egin den mailarik ere. Bi alderditan gertatu da hori, hain zuzen ere: batetik, beste pertsona batzuk zaintzea (-%4,8) eta, bereziki, bikote-harremanak (-%8,8). Badirudi esperientzia biografikoaren alderdi hori bigarren mailakoa bihurtu dela, bederen; iraganeko arlokotzat jotzen dute, eta nahiz eta alderaketan ez den sartu alarguntza-egoeran dauden emakumeen ehunekoak (%12,5).


6.2. GRAFIKOA Ibilbide biografikoa nola hautematen duten autonomia indibidualari dagokionez, mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. Guztira. Ehunekoak




Adin-taldearen araberako aldeak (6.3. eta 6.4. grafikoak) joera orokor horri jarraitzen dio, baina 65 urtetik 74 urtera bitarteko emakumeen taldeak egungo autonomia aurreko heldu-

bizitzakoa baino handiagoa dela adierazten du adierazle guztietan, bikote-harremanetan izan ezik. Eta, aitzitik, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen taldean, aurreko heldu-bizitzarekiko autonomia galdu dutela adierazten dute bikote-harremanetan, beste pertsona batzuen zaintzan eta osasunaren zaintzan.

6.3. GRAFIKOA Ibilbide biografikoa nola hautematen duten autonomia indibidualari dagokionez, mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. 65 eta 74 urte bitarteko taldea. Ehunekoak



6.4. GRAFIKOA Ibilbide biografikoa nola hautematen duten autonomia indibidualari dagokionez, mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. 75 urte edo gehiagoko taldea. Ehunekoak



**OSASUN TXARRA IZATEA:
NORBANAKOAREN
AUTONOMIARAKO
OZTOPO NAGUSIA**

6.4

Aurreko atala ixten duen informazioa sarrera da atal honetarako. Hemen azalduko ditugu zer arrazoik eragiten duten Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek hautemandako autonomia txikiago horretan. Gogorazi behar dugu belaunaldi horretako emakumeen %11,3k gaur egun heldu-bizitzan zuten autonomia baino autonomia gutxiago dutela sumatzen dutela. Ehuneko askoz handiagoa da 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean (%17,7), eta askoz txikiagoa 65 urte eta 74 urte bitartekoen artean (%4,2).

Horren haritik, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean, autonomia indibiduala galdu duela sumatzen duen emakumearen profila hau izango litzateke: 75 urtekoa edo hortik gorakoa; laguntzak behar dituena eguneroko jarduerak egiteko; osasun erdipurdikoa, txarra edo oso txarra duela hautematen duena; alarguna; hilean 900 eurotik beherako diru-sarrerak dituena, eta batez ere iturri batekoak, alarguntza-pentsiotik datozenak.

6.1. taulak nahiko argi adierazten du osasuna dela, kasu honetan osasun txarra izatea, belaunaldi horretako emakumeen autonomia indibiduala murrizten duen faktorea. Osasunaren faktoreari mugikortasun-arazoak gehitzen bazaizkio, ikusiko genuke gorputza dela autonomia indibidualaren galera horren arrazoiaren erdiaren eragile.

Gainera, emakume horien bizitzaren maila guztietan eragiten duen galera da, nahiz eta hauetan duen eragin handiena: bikote-harremanetan, lagunak izatean edo lagun berriak egitean, diruaren kudeaketan eta norberaren denboraren kudeaketan.

6.1. TAULA Gaur egun autonomia indibidual txikiagoa izatean eragiten duten arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (Erantzun anitza, gehienez bi erantzun)

ARRAZOIAK/ZIOAK	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
... norberaren osasun-arazoak	14,5	44,6	37,1
... beste egoera batzuk...	43,6	21,1	26,7
... mugikortasun-arazoak	0,0	18,7	14,0
... mendekotasuna duen hurbileko bat zaindu beharra...	14,5	4,8	7,2
... bilobak zaindu beharra...	18,2	0,0	4,5
... ez izatea emakume gisa nigandik espero dena...	1,8	4,2	3,6
... baliabide ekonomikorik eza	3,6	3,6	3,6
... ez ausartzea	3,6	1,2	1,8
... norbaitek galaraztea...	0,0	1,8	1,4

“Beste arrazoi batzuk” kategorian, zenbait iritzi biltzen dira, gehienak adineko pertsona bakoitzaren indibidualtasunari dagozkionak, baina arrazoietan sakondu gabe, intimitatearen muga gaindituko bailitzateke, nolabait. Horregatik, garrantzia du bikote-harremanetan, lagun berriak egitean eta beste pertsona batzuen zaintzan.

Beste atal batean adierazi dugu jada pertsona batzuk (aurrekoak eta ondorengoak) zaintzea belaunaldi horretako emakumeen –eta, bereziki, 65 eta 74 urte bitarteko emakumeen– autonomia-ahalmena murrizten duen faktore bat dela.

Azkenik, adierazi behar da galdetegian generoarekin eta belaunaldiarekin lotuen dagoen autonomia mugatzailea “ez izatea emakume gisa nigandik espero dena”, oso garrantzitsua ez den arren zenbakitan (%3,6) bi mailatan biltzen dela: bikote-harremanetan eta lagun berriak egiteko ahalmenean.

ALDAKETAK DENBORAREN ERABILERAN: KUDEAKETA ETA DENBORA IZATEA

6.5

Gure argudiaketaren haritik, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldiak bere azken bi bizitza-zikloetan autonomia indibidual handiko emakumeen irudia ematen duela aurkitzeak zera eskatzen du: ahalduntze-adierazleak termino zuzen-zuzenetan (hautemandako autonomia, oro har eta mailaka) bilatzeaz gain, zeharka ere bilatzea, eta agian zeharka bilatzea bereziki.


Horrenbestez, “xehetasun txikiak” hurbil gaitzakete emakume-talde horren ahalduntze-adierazpenetara. Eta kapitulu hau bi identifikazio zuzenekin ixten da. Lehenbizi, jakin nahi dugu heldu-bizitzatik egungo bizitza-ziklora igarotzeak aldaketarik ekarri dion eskura duen denboraren erabilera, eguneroko bizitzako sei maila edo alderditan. Eta, bigarrenik, 65 urte bete ondoren jarduera bat edo bat baino gehiago abian jartzeko gai izan diren emakumeak aztertuko ditugu. Jarduera bat abian jartzeko ekimenak nolabaiteko agentetza indibiduala adierazten du, aldaketarako eta esperimentaziorako ahalmena edo benetako aurretiko joera bizitza-ziklo honetan, teorian eta gutxienez, lortutakoari eta ezagututakoari eustea helburu duen bizitza-ziklo honetan.

DENBORA GEHIAGO DUTELA EGIAZTATZEA

6.5.1

Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean aldeak egotea eskura duten denboraren kudeaketan eguneroko bizitzako zenbait maila edo alderditan aukera ona da jakiteko zer-nolako aldaketak dauden egungo ahalduntze indibidualaren mailan. 6.5. grafikoak interes handiko elementuak erakusten ditu: lehenengoa da egonkortasuna dela nagusi denboraren erabilera sei maila edo alderditan. Eta horrek sendotu egiten du lehen ere adierazi dugun planteamendua: 65 urte betetzea, ez da adin horretako edo hortik gorako emakumeen iritziz, haustura moduko bat.

6.5. GRAFIKOA Denboraren kudeaketa mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. Guztira. Ehunekoak




Baina jarraitasun hori homogeneo samarra den arren, hamar emakumetik seik batez beste, ez da horrela alderdietako batean: norberarentzako denbora izatea, beretzako denbora izatea, asko handitu baita (%40,3).


Oso aipagarria da, halaber, senideentzat duten denbora (%28,5) eta lagunentzat dutena (%27,2). Eta gauza berriak ikasteko eta kultura-jardueretan eta elkarteen jardueretan parte hartzeko denboran, berriz, ez dago aldaketarik (irabazten denaren eta galtzen denaren arteko emaitza zero da).

Horrenbestez, ikusten da 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeen belaunaldian handitu egiten dela autonomia indibidualaren dimentsioetako bat, norberarentzako denbora, eta bizitza-ziklo horretan lortzen da, antza.

6.6. GRAFIKOA Denboraren kudeaketa mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. 65 eta 74 urte bitarteko taldea. Ehunekoak



6.7. GRAFIKOA Denboraren kudeaketa mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. 75 urte edo gehiagoko taldea. Ehunekoak



Aurrerago aztertuko dugu zer faktore-motak eragiten duen norberarentzako denboraren handitze horretan. Baina 6.6. grafikoak eta 6.7. grafikoak adierazten duten bezala, 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen taldean izaten da bereziki aldaketa, eta gehiago dira heldu-bizitzan zuten denbora baino gehiago dutela adierazten dutenak (%46,5ek adierazi dute gehiago dutela, eta %44,4k, berriz, denbora bera dutela). Egia da aldaketarik ez egoitea dela nagusi gainerako jarduera-mailetan, baina egia da, halaber, adin-talde horretan handitzen dela gehien senideentzako, lagunentzako eta ikasteko denbora.

Baina, praktikan, 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeen belaunaldi horrek denbora gehiago du orain heldu-aroan baino. Hori, seguruenik, ez da ikerketa honek egiaztatzen duen kontu berritzailea –talde horretako emakumeak ardatz hartzen dituela ez bada–. Izan ere, bizitza-ziklo horren ezaugarri nabarmena da, hain zuzen, denbora gehiago izatea, kopurutan.


Agian, gure kasuan, garrantzitsuena da aurkitzea denbora gehiago izate hori nola adierazten den. 6.8. grafikoak (hiru irudiz osatuta dago) balantze hori laburbiltzen du. Batura zero duen logika aintzat hartuta diseinatu da. Esate baterako, gerta liteke 65 urteko edo hortik gorako emakume batek adieraztea denbora gehiago duela maila batean, eta, halaber, denbora gutxiago duela beste batean, eta horrenbestez, grafikoaren zero (0) mailan jarriko genuke. Emakume batek adierazi badu bi mailatan denbora gehiago duela eta batean gutxiago, 1. mailan jarriko genuke; eta horrela hurrenez hurren.

Logika horretan oinarrituta, ikusten da Euskadin bizi diren eta 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeek denbora gehiago dutela orain (%43,5) heldu-bizitzan baino (%37,8 berdin dute). Emakume-talde horren %18,7k, berriz, denbora gutxiago dute.



Eguno bizitza-aldian denbora gehiago dutenak gehiago dira 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen artean (gutzizkoaren %52,1). Talde horretan, aldaketarik ez du izan %35,2k, eta denbora gutxiago dutenak ere gutxiago dira (%12,7).

Azkenik, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen taldean, egonkortasunak du (hots, sei mailetako denboraren handitzeen/txikitzeen baturaren zero batura) ehunekorik handiena (%40,2), eta gehiago dira denbora gehiago dutenak (%35,8) denbora gutxiago dutenak baino (%24,1).

6.8. GRAFIKOA Denboraren kudeaketa mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/egungo aroa. Gutzirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



6.8. GRAFIKOA Denboraren kudeaketa mailaren arabera. Balantzea: heldu-aroa/ egungo aroa. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak (jarraipena)



**BAINA LIBERATUTAKO
DENBORA DA,
EZ LORTUTAKOA**

6.5.2

Gure asmoa da atal honetan identifikatzea zer arrazoik eragiten duten emakumeen belau-naldi horrek denbora gehiago izatea lehen adierazitako maila horietan. 6.2. taulan, ikus daiteke etxeko-familiako arlorako emandako denboraren liberazioa, ondorengoak emantzipatu egin direlako (%40,2), eta produkzioaren eta lanaren arloan izandako liberazioa, erretiroa hartu duelako (%26,6), bi faktore nagusiak direla azaltzeko zergatik duten denbora gehiago gaur egun Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek.

6.2. TAULA Egun denbora gehiago izatean eragiten duten arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (Erantzun anitza, gehienez bi erantzun)

EGUN DENBORA GEHIAGO IZATEAN ERAGITEN DUTEN ARRAZOIAK.	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Seme-alaba(k) etxetik joan direlako	42,3	37,5	40,2
Lanean ematen zuen denbora libre duelako	30,9	21,1	26,6
Bikotea/ezkontidea hil delako	9,6	15,7	12,3
Bere lehentasunak gehiago izaten dituelako kontuan	6,2	7,1	6,6
Beste egoera batzuegatik	3,4	8,4	5,6
Bikotea/ezkontidea erretiratu delako	4,2	4,4	4,3
Senitartekoek emandako laguntzarengatik/animoengatik	1,9	3,8	2,7
Erosotasun ekonomiko handiagoa duelako	1,2	0,9	1,1
Hurbileko beste pertsona batzuek emandako animoengatik	0,3	1,1	0,7

Zentzu hertsian ez litzateke, beraz, belaunaldi hori osatzen duten emakumeek lortutako denbora, konkistatutakoa, haiek ezarritako ahalduentze indibidualako estrategia bat (kontzientea). Ez da bere erabakiak hartzeko modua aldarazten duen estrategia bat, bere lehentasunak berrantolatzen dituena, eta besteak beste, bere denbora, denbora pertsonala, edozein jardueratarako erabiltzen duen denbora berrantolatzen duen estrategia bat. Aitzitik, badirudi, funtsean, liberalizatu den denbora dela "libre" geratzen dena, gehiago denbora banatzeko beste jarduerak desagertu egin direlako, hots, aurreko bizitza-arloan nagusi ziren jarduerak desagertu egin direlako.

Eta interpretazio-logika horretan sartu genezake bikotea/ezkontidea hiltzea ere; izan ere, hura faltatzeak egin beharreko jardueretan denbora liberalizatzea dakar, etxeko-familiako arloan, batez ere.

Azken finean, "desagertzeak" dakartzaten hiru arrazoi horiek –lana, seme-alabak, bikotea/ezkontidea– azaltzen dute 65 urteko eta hortik gorako emakumeek denbora gehiago izateko arrazoiaren %80. Eta hiru faktore horiek zeharkako azalpena egiteko balio dute, bai sei mailetarako (norberarentzako denbora izatetik hasi eta lagunekin egoteko denbora izateraino), bai eta ezarritako bi adin-taldeetarako. Izan ere, "bere lehentasunak gehiago izaten dituelako kontuan" arrazoiak bigarren maila batean dago (%6,6), nahiz eta garrantzia handixeagoa izan gauza berriak ikasteari dagokion mailan.


ADINEKO EMAKUME DIRENETIK ERABAKI BERRIAK HARTU DITUZTEN EMAKUMEAK

6.6

Ikerketa honetan, identifikatu ahal izan dugu adineko egoera ofizialean sartu ondoren beraien erabakiz jardun edo jarduera berriak abian jartzeko erabakia hartu duen emakumetalde bat. Beraz, 65 urteko muga sinbolikoa gainditu ondoreneko –edo adin horren inguruko– ahalduntze indibidualeko agerpen bat da, eta zahartze aktiboaren baitako ekintzen arteko beste adierazpen bat litzateke, nolabait.

Emakume horiei galdetegian galdetu zitzaizkion zer jarduera egiten zituen egunerokoan, jakin nahi izan genuen, halaber, zein duen, arrazoiak arrazoi, haietatik gustukoena, eta bat aukeratzeko eskatu genien. Horrez gain, denborazko parametro bat sartu zen, gustukoena zuten jarduera aukeratu ondoren, jakiteko zenbat denbora zeraman jarduera egiten (hots, duela gutxi hasi zen ala ez hori egiten).

6.9. GRAFIKOA Emakumeek gustukoena dituzten jarduerak, noiz egiten hasi ziren kontuan hartuta. Dimentsionamendua. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



65 urteko eta hortik gorako emakumeen %73,2k adierazi zuen baduela inolaz ere egiteari utziko ez liokeen jardueraren bat. Talde horren barruan, lautik batek baino zertxobait gehiagok (%26,8) adierazi zuen jarduera hori, berarentzat berezia dena, duela gutxi hasi zela egiten. Indize hori handixeagoa da 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen taldean, 6.9. grafikoan ikus daitekeenez.

“Ohiko gizarte-jarduerak” atalean ezarritako 18 jarduera horiek erabiliz, 6.3. taulak horien emaitzak adierazten ditu bereizita lehen ere beraien bizitzan egiten zituzten jarduerak (ia bizitza osoan) eta duela gutxi egiten ari diren jarduerak (adineko bizitza-zikloan).

6.3. TAULA Emakumeek gustukoan dituzten jarduerak, noiz egiten hasi ziren kon-tuan hartuta. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehuneko horizontalak

JARDUERAK	65-74 URTE		75 URTE EDO GEHIAGO		GUZTIRA	
	IA BIZITZA OSOAN	DUELA GUTXI	IA BIZITZA OSOAN	DUELA GUTXI	IA BIZITZA OSOAN	DUELA GUTXI
	Etxean (Home-centred)	100,0		93,8	6,3	94,7
Irakurri	68,9	31,1	74,8	25,2	71,7	28,3
Irratia entzun	68,2	31,8	74,9	25,1	71,4	28,6
Telebista ikusi	69,7	30,3	76,3	23,7	73,0	27,0
Etxeko lanak	70,2	29,8	75,5	24,5	72,8	27,2
Etxeko inguruarekin lotutako jarduerak	69,5	30,5	72,5	27,5	70,8	29,2
Gizarte-jarduera ez-formalak	80,6	19,4	82,2	17,8	81,5	18,5
Bizileku edo auzoko inguruarekin lotutako jarduerak	67,9	32,1	73,7	26,3	70,8	29,2
Gizarte-jarduerak (Adinekoen egoitza, ateratzea...)	50,0	50,0	48,3	51,7	49,5	50,5
Erljioarekin lotutako ekitaldiak	65,9	34,1	61,5	38,5	64,2	35,8
Kultura-jarduerak (zinema, antzerkia, kontzertuak, etab.)	64,2	35,8	74,0	26,0	69,3	30,7
Teknologia berrien erabilera (Internet, e-posta...)	69,6	30,4	70,8	29,2	69,9	30,1
Turismoa egitea, bidaiak, txangoak...	68,3	31,7	41,2	58,8	60,3	39,7
Gizarte-jarduera formalak edo antolatutak	57,6	42,4	52,2	47,8	55,9	44,1
Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	65,2	34,8	60,0	40,0	64,3	35,7
Prestakuntza jarduerak (sistematikotasuna dutenak espazioan)	65,5	34,5	55,0	45,0	62,3	37,7
Boluntarioen erakundeetan parte hartzea	55,6	44,4	36,4	63,6	48,3	51,7
Auzoko elkarteetan parte hartzea	62,5	37,5	100,0	0,0	70,0	30,0
Sindikatuetan parte hartzea	66,7	33,3	0,0	0,0	66,7	33,3
Alderdi politikoetan parte hartzea	33,3	66,7	100,0	0,0	60,0	40,0
Emakumeen erakundeetan parte hartzea	28,6	71,4	66,7	33,3	40,0	60,0

Emakumeen belaunaldi horretako emakumeek ia bizitza osoan zehar egin dituzten eta gustukoan dituzten jarduerak etxeko arloan egiten dira, eta lotura hori da alderdi garrantzitsuenetako bat. Aitzitik, emakumeek hasi berriak eta gustukoan dituzten jardueren artean, nagusi dira arlo ez-formalekoak eta, batez ere, arlo formalekoak. Badirudi, emakume horiei, adineko bizitza-ziklora igaro izanak erraztu egin diela lehen egiten ez zituzten gizarte-jarduera eta -jardunak aurkitzeko bidea.

6.4. taulan, laburbilduta jasotzen dira zer arrazoiengatik erabaki zuten duela gutxi 65 urteko eta hortik gorako emakumeek jarduera horiek egiten hastea. Funtsean, lau motibazio-maila daude: lehenengo mailan, jarduera bera egitea gustuko izatea legoke, oro har gogobete egiten dituela jarduera horrek (%22,3); bigarren mailan, jarduera hori egiteak entretenitu egiten dituela eta konpainia egiten diela (%25,7, entretenitu/konpainia egin, lagunak izan eta lagunak egin, denbora pasa/etxetik atera); hirugarren mailan, ikastearekin lotutako nahia dago, gauza berriak ikasi, nor bere burua aberastu, kulturaren eta komunikazioaren bidez (%21,4); eta, azkenik, laugarren mailan, gorputza zaintzea legoke, ariketa fisikoa egitea, osasun-egoera hobetzen dien ariketa egitea (%18,8).

6.4. TAULA Egiten hasi berri den jarduera zergatik duen gustukoa. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (Erantzun anitza, gehienez bi erantzun)

ARRAZOIAK/ZIOAK	65-74 URTE	75 EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Gustatu egiten zaio (oro har)	23,8	20,4	22,3
Ikastea/aberastea/Informatzea/ezagutza handitzea	25,4	16,3	21,4
Osasuna/on egiten dio ariketak	20,6	16,3	18,8
Entretanimendua/konpainia egitea	7,9	24,5	15,2
Lagunak izan eta lagunak egitea	12,7	12,2	12,5
Denbora-pasa/etxetik ateratzea	6,3	10,2	8,0
Zaletasuna/betiko jarduera (ohitura)	1,6	0,0	0,9
Fedea-sinesmena	1,6	0,0	0,9

Ez dago alde handirik bi adin-taldeen artean, hauetan izan ezik: entretanimendua eta konpainia izatea da arrazoi nagusia 75 urteko eta hortik gorako taldean, eta ikasteko motibazioa eta norberaren burua aberastea, berriz, 65 urte eta 74 urte bitarteko taldean.

Atal honen laburpen moduan, esan dezakegu gaiaren konplexutasunak, ikerketa honen irismenak eta aukera metodologiko orok dakartzan mugak kontuan hartuta, seguruena iritzi diogun aukera hautatu dugula. Proaktibitatea identifikatu –ia inferitu– ahal izan dugu Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako lau emakumetik batean. Agentetza indibiduala da, eta horren adierazpena da aurreko bizitza-aldietan –heldu bizitzan– egiten ez zituen gizarte-jarduerak eta -jardunak egiten hastea eta, gainera, horiek une honetan ematen dizkioten esperientziei uko egin nahi ez izatea.

Baina oker geundeke pentsatuko bagenu erabaki berriak hartzeko ahalmena, gaur egungo bizitza-zikloa baino lehen egiten ziren jarduerari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duela gutxi egiten hasi den jardueretan soilik islatzen dela. Bizitza osoan zehar egiten diren jardueretan berrikuntzak egiteko ahalmena zabala eta askotarikoa da, pertsonak berak nahi bezain zabala eta askotarikoa; esate baterako, beste gauza batzuk irakurtzea, beste kultura-, irratia- edo telebista-programa batzuk aukeratzea, gizarte harreman berriak egitea espazio formaletan edo ez-formaletan, beste kirol-jarduera batzuk egiten hastea, eta abar –infinitu luzea–.

Gizarte-jarduera berriak egiten hasi direla hauteman dugu, norberaren aberastasuna eta ikaskuntza helburu dutenak, eta norberaren gorputza eta osasuna hobetzea helburu dutenak, eta lortzen ari dira helburua. Azken finean, erabaki-hartze horiek erakusten dute Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldiak bere bizitza-ibilbidearen proiektio aktiboa egiten duela, eragiten dieten erabakietan autonomiaz jokatu. Horregatik, erabat baztertu behar dira adineko emakume horiei esleitzen zaizkien klitxeak edo estereotipoak; hots, behar duten gauza bakarra denbora nolabait betetzea dela, bizitza-ziklo horri zentzu gehiago bilatu beharrik gabe.

7

AHALDUNTZEAREN SOZIALIZAZIOA: BELAUNALDIKO ETA GENEROKO ONDAREA

Kapitulu honen muina belaunaldi arteko alderaketak dira, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek autonomia indibidualari eta erabakiak hartzeko ahalmenari buruz egindako alderaketak.

Ikerketaren diseinuan, egokia iruditu zitzaigun baliatzea adineko pertsona horien, 1946. urtea baino lehen jaiotako pertsona horien esperientzia eta bizitza-ibilbidea, alderaketaren bat egin zezaten, beraien pribilegiozko talaiatik, beraien belaunaldien artean eta emakumeen ondorengo beste belaunaldi batzuen artean (alabak, bilobak eta are birbilobak ere).

Ikerketa hau ez da esparru egokia aldi historikoen arteko alderaketak egin ahal izateko baldintzetan sakontzeko (SIMMEL, 1986), eta alderdi hori belaunaldien arteko kontuen muina da (MANNHEIM, 1993). Beste belaunaldi batzuei buruzko iritzia jakitea lagungarri da norberaren belaunaldiaren ezaugarrien ezagutzan sakontzeko. Belaunaldien arteko alderaketa horren bidez gehiago jakin ahal izan dugu gure autonomia-erkidegoan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen autonomia-mailaz zein erabakiak hartzeko ahalmenaz.

Eta kapitulu hau jakin ahal izan ditugun gauza berri horiek ardatz izanda egituratu da. Lehenengoa da aurkitu dugula adineko emakumeen belaunaldi horrek oso ongi onartzen duela emakumeak, haien adina edozein dela ere, gizarte-bizitzaren alor guztietan egotea, eta horrenbestez, haietan jardutea ere bai.

Bigarrena da genero-berdintasunaren konkista hori ez duela modu pasiboan onartzen 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horrek. Aitzitik, beraiak eragile aktiboak izan dira ondorengo belaunaldietako emakumeen ahalduntze-estrategietan.

Autonomia indibiduala belaunaldi-ondare moduan sozializatzea lotuta dago aurkitutako hirugarren gauzarekin: ikusten dute autonomia indibidual txikiagoa dutela, adineko emakume diren heinean, ondorengoko emakumeen belaunaldiek baino. Adierazten dute ondareak arrakasta izan duela, nolabait, eta etengabeko eta ohiko zailtasunak zailtasun.

Interesgarria litzateke jakitea ondorengo belaunaldietako emakumeek ere, emakume gazteagoek, iritzi bera duten belaunaldi- eta genero-autonomia horri buruz; hots, beraiak amek, amonek edo birramonek duten iritzi berbera duten ala ez kontu horretaz. Horretarako, ez bairik gabe, ikerketa espezifikoak behar dira, eta ikuspegi osoagoa lortu beharko litzateke gure autonomia-erkidegoko emakumeen belaunaldi guztien ahalduntze-prozesuari buruz.

**ONARTZEA
EMAKUMEAK
ALOR GUZTIETAN
PARTE-HARTZE
AKTIBOA IZATEA**

7.1

Interes handikotzat jo dugu, ikerketa honetan, jakitea zer iritzi duen Euskadin bizi diren 65 urteko edo hortik gorako emakumeen belaunaldi horrek bizitzaren alderdi guztietan parte-hartzeari buruz. Horren bidez finkatu edo baztertu egingo dugu “beste garai bateko emakumeak” estereotipoa –kasu honetan duela 65 urte baino gehiago jaiotako emakumeena–, eta jakingo genuke zer eragin duten zenbait gizarte-jardueratan emakumeen onarpenean.

Ezagutza hori bi planotan fokalizatu da: belaunaldi baitakoa eta belaunaldi artekoa. Bi dimentsio horiek erabiltzeak aukera ematen du jakiteko zer-nolako aldaketak izan diren emakumeen parte-hartzeari dagokionez hori eragin duen eragile baten ikuspegitik, 1946. urtea baino lehen jaio den emakume baten ikuspegitik alegia. Izan ere, aldaketa-prozesu hori bizi egin dute, esperimentatu eta, neurri handi batean, sustatu ere bai.

Belaunaldiaren baitako onarpenarekin hasita, 7.1. grafikoan zenbait alderdi garrantzitsu-garrantzitsu agertzen dira. Lehenik eta behin, ikusten da adostasun handia dagoela beraien belaunaldiko emakumeek (65 urtekoak eta hortik gorakoek) parte hartzearekin aisialdiko jardueretan, kultura-jardueretan, hezkuntzako/prestakuntzako jardueretan eta elkartegintzan.


Aldeak bi eremutan daude: politikaren alorrean, eta, bereziki, bi adin-taldeetan zeharkakoa delako, bikote-harreman berriak egitean bizitza-ziklo horretan. Lehenengoari dagokionez, badirudi politikaren eremuak lortu duela aisiaren, kulturaren, ikaskuntzaren eta elkartegintzaren “eskuragarritasun estatusa” 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen adin-taldean, eta horretarako bidean dagoela, berriz, 75 urteko eta hortik gorako emakumeen artean.

Gizarte-jarduera berriak onartzerakoan, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean erritmoa motelagoa izatea alderdi afektiboan jartzen da agerian, paradigmatikoki. Izan ere, hamar emakumetik ia zazpi onartu egiten duten arren, ageriago geratzen da sozializazioaren pisua, eta, bereziki, belaunaldi horretako emakume edadetuenen artean.


Laburbilduz, baliteke Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakume gehienetsuenek ez parte hartzea aisiako, kulturako, prestakuntzako eta elkartegintzako jardueretan, baina alor horietan ez parte hartzeak ez du esan nahi gehienek onartzen ez dutenik beraien belaunaldi bereko emakumeek parte hartzeko erabakia hartzea. Ez da gaitzesten —ez formalki, bederen— belaunaldiaren baitako autonomia-maila indibidual edo sozial hori. Eta politika-ekintzen alorrean ere horrela gertatzen da, eta gero eta gehiago onartzen da, motelago izan arren, arlo afektiboan harreman berriak egitea ere.

7.2. grafikoak aurreko emaitzen eskema berberari jarraitzen dio, baina oraingoan 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldiaren ondorengo belaunaldiek parte hartzeari buruzko onarpen-maila adierazten da.

7.1. GRAFIKOA Beraien belaunaldiko emakumeek bizitzaren zenbait alorretan parte hartzearen onarpena. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (ados eta oso ados kategorien batuketa)




7.2. GRAFIKOA Beste belaunaldi batzuetako emakumeek (gazteagoek) bizitzaren zenbait alorretan parte hartzearen onarpena. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak. (ados eta oso ados kategorien batuketa)



7.3. grafikoak informazio are garrantzitsuagoa ematen du, agian, belaunaldiaren baitako eta belaunaldien arteko alderaketa egiten baitu emakumeek gizarte-bizitzako alderdietan parte hartzearen onarpenari edo joerari buruz. Gertakari hori instituzionalizatuta dago, argi eta garbi, 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeen artean, eta, beraien ibilbide biografi-koan bizi izandako beste une historiko batzuetan ez bezala, beraientzat onargarri ikusten duten gauza da, baina, batez ere, beraien alaba eta bilobentzat onargarri ikusten dutena.

7.3. GRAFIKOA Emakumeek bizitzaren zenbait alorretan parte hartzearen onarpena. Beraien belaunaldiaren eta ondorengo belaunaldien (alabak, bilobak) arteko alderaketa. Taldeen arteko aldeak (65 eta 74 urte bitarteko adin-taldean oinarrituta). Ehunekoak. (ados eta oso ados kategorien batuketan)



Nahiz eta emaitzak oso antzekoak izan bi belaunaldietan elkartegintzaren, kulturaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren alorretan eta belaunaldien baitako onarpen-maila handia dagoen

arren, 65 urteko eta hortik gorako emakumeek hobeto onartzen dute ondorengo belaunaldiek politikan parte hartzeko erabakia hartzea eta, batez ere, bikote-harreman berriak egitea beraien belaunaldiak egitea baino.


ONDORENGO BELAUNALDIETAKO EMAKUMEAK AUTONOMOAGOAK DIRA

7.2

Gaur egun, Euskadin, 1946. urtea baino lehen jaiotako adineko emakumeen belaunaldiak erabateko legitimazioa –soziala zein generokoa– ematen dio emakumeek beraien erabakiak hartzeari, hots, emakumeak egoki irizten dion erabakiak hartzeari bizitzaren alor guztietan. Eraitza horietan, ez da eztabaidatzen zenbateko adostasuna edo zenbateko desadostasuna dagoen erabaki-hartze horien ondorioei buruz. Baina aukera ematen dute ondorio bat ateratzeko: emakumeen ahalduntzea, ahalduntze indibiduala eta soziala, ongi finkatutako prozesua da gure testuinguruan, belaunaldi arteko eta generoko ikuspegitik, bederen.

7.4. grafikoan adierazten eta laburbiltzen dira planteamendu horiek, baina hori ez ezik, baita ikerketa honetako argudio-ildoaren zati handi bat ere. Emakume gazteagoen (alaben edo biloben) belaunaldien autonomia-maila, erabakiak hartzeko duten ahalmena beraien belaunaldiak duena eta izan duena baino askoz handiagoa dela irizten dute 65 urteko eta hortik gorako hamar emakumetik ia bederatzik (%87,2).

7.4. GRAFIKOA Autonomia-maila emakumeen belaunaldien arabera. Beraien belaunaldiaren eta ondorengo belaunaldien (alabak, bilobak) arteko alderaketa. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Emaitza horiek lotzen baditugu 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horrek hautematen duen autonomia mailarekin –gehienek hautematen zuten antzeko autonomia-maila izan zutela bizitza osoan zehar–, balio hori alderatzen badugu ondorengo belaunaldietako emakumeekin, Euskadin bizi diren eta 1946. urtea baino lehen jaio diren emakumeek beraien ibilbide biografikoaren berrirakurketa egiten dute eta autonomian ñabardura batzuk egiten dituzte: erabakiak hartzeko ahalmen alderatu txikiagoa hautematen dute. Eta ez da oso ohikoa balio bat –kasu honetan, autonomia– handiagoa dela adieraztea beste belaunaldi batean norberarenean baino.

ADINEKO EMAKUMEAK: AHALDUNTZEAREN AGENTE AKTIBOAK

7.3

Ahalduntze kontzeptua oso gutxitan aipatzen da gure eguneroko hizketaldietan, eta horrelaxe gertatzen da 65 urteko eta hortik gorako emakume horien artean ere, eta, izatekotan are gutxiagotan aipatzen da. Baina ahalduntzea genero-harremanen gizarte-eraldaketako prozesu gisa ikusten badugu, ekintza-estrategiak bultzatzen saiatzen den prozesu gisa ikusten badugu, emakumeek beren gaitasunak aitor ditzaten eta bere egin ditzaten, egunerokoan, egokien deritzoten erabakiak hartzeko aukera-berdintasunean, esan dezakegu, bai, prozesu horretan parte hartu duela emakumeen belaunaldi horrek.


Oso onartuta dute beraien belaunaldiko emakumeek bizitzako zenbait alorretan parte hartzea; are gehiago onartzen dute ondorengoko belaunaldietakoak diren emakumeek bizitzako alor guzti-guztietan parte hartzea; eta, azkenik, sumatzen dute autonomia handiagoa dutela erabakiak hartzerakoan emakume gazteagoen belaunaldi horiek –tartean, haien alabak, bilobak eta are birbilobak ere– beraien belaunaldiak baino. Eta hori, zalantzarik gabe, egiturazko gizarte-aldaketako prozesu bat da, erabateko aldaketa, gainera, eta ezingo litzaiteke inolaz ere gertatu 1946. urtea baino lehenago jaiotako emakumeen bultzadarik eta parte-hartzerik gabe.

Emakumeen belaunaldi hori ez da ikusle hutsa izan gure gizartearen eraldaketan, emakumeek duten autonomia-maila arian-arian handitzea ekarri duen eraldaketan. *“Haien aurretiko esperientziarik gabe eta haien ekarpen aktiborik gabe, ezin izango zatekeen horrelakorik gertatu.”* (PÉREZ ORTIZ, 2006b: 90.). “Emakume tradizionalen” estereotipoa, beste garai batzuetako emakumeen estereotipoa, baztertu egin behar da, beraz, 1946. urtea baino lehen jaio eta Euskadin bizi diren emakumeen belaunaldiari dagokionez (RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2002: 128).

Illo horretatik, galdetegian galdera bat zegoen jakiteko zer-nolako interesa edo motibazioa zuten 65 urteko eta hortik gorako emakumeek gizonen eta emakumeen arteko harreman-eredua aldatzeko. Eta hamar emakumetik seik baino gehiagok (%61,7) adierazi dute aldaketa izatea nahi dutela; eta %75 dira, gainera, 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeen artean (7.5. grafikoa).

Nahiz eta 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeek gutxi parte hartu duten emakumeen bizitza-baldintzak hobetzea helburu duten erakunde formaletan, horrek ez su esan nahi helburu hori ez dagoela haien interesen artean. Berrito ere, ikusten da parte-hartze formalak edo antolatua ez direla, inolaz ere, aldaketa-prozesuen eragile bakarrak, eta iceberg handi baten ageriko zatia besterik ez dira, egunerokoaren baitan dauden hainbat eta hainbat ekintza eta estrategia ez-formal edo ez-antolatua osatutako multzoaren ageriko atala besterik ez.

7.5. GRAFIKOA Emakumeen eta gizonen arteko harremanak aldatzeko motibazioa. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Dena dela, oso adierazgarria da galdera horri erantzuten ez dioten emakumeen ehunekoak: lautik batek ez du erantzun, guztirakoa kontuan hartuta, eta hirutik batek, adin handieneko taldea kontuan hartuta. Besteak beste, interpretazio bat izan daiteke galdetegian ez egitea galdera hartzaileak diren pertsonen belaunaldiaren ezaugarrietara egokituta. Baina horrek ez du esan nahi emakume horiek ez dutenik interesik gizonen eta emakumeen arteko oreka handiagoa lortzeko –eta, agian, hori lortzeko estrategiak ere jarriko zituzten abian–, baizik eta agian bizitzako alderdi hori ez zela adierazten gaur egun adierazten den bezala, gaur egun bezain argi. Hitzek ere formulatzeko testuingurua dute.

Aurreko atal batean esan dugu belaunaldi horretako emakumeek autonomia funtsezko balioztat jotzen dutela egungo bizitza-zikloan. Baina ikerketa honen emaitzak ikusita, “norberarentzako autonomia”, gaur egun uko egin ezinezkotzat jotzen dutena, agerikoa zen, bai, emakume-talde horren bizitza-estrategietan. Dena den, autonomiaren balio hori ez zen gauzatzen norberarengan, baizik eta, bereziki, beste pertsona batzuegan edota beste pertsona batzuentzat. Adierazpena zilegi bazeu, nolabaiteko “autonomia proiektatua” da, gaur egun arte bizirik edo aktibo dagoena. Geure eginda TOBÍOk (2005: 86) bilobak zaintzeari buruz adierazitako hitzak: *“amonek askotan nahi izaten diete alabei lagundu; hein batean, haien bidez independentzia-helburu bat gauzatu dezakete, beraiek lortu ez dezaketen helburu bat.”*

Eta horretan datza 65 urteko eta hortik gorako emakumeen agentetza indibiduala eta belaunaldikoa, egunerokoan eta, agian askotan, isilean gauzatzen dutena, autonomia balio nagusi moduan transmititzea edo sozializatzea ondorengo belaunaldietako emakumeen pertsona- eta genero-identitatea eratzerakoan.

Nahiz eta une honetan arreta belaunaldien arteko transmisio soziokulturalaren alderdi batean jartzen ari garen –hots, adin handieneko emakumeengandik gazteagoak diren emaku-

meenganako transmisioan–, ez da ahaztu behar, alderantzizko transmisioa edo sozializazioa, belaunaldi arteko ikaskuntzari dagokionez, eta, kasu honetan, baita genero-ikaskuntzari dagokionez (FREIXAS, 2002, 269). Bizitza-prozesu oro da ikaskuntza, eta, horrenbestez, pentsa liteke gaur egun 65 urte eta hortik gora duten emakumeak ere gai izango zirela gizarte- eta kultura-egoeretatik ikasteko, eta bere egingo zituztela interesgarriak zeritzen alderdiak.

**LAN-ARLOAN
PARTE HARTZEA:
AUTONOMIA
INDIBIDUALAREN
BERMEA**

7.4


Transmititzea oso garrantzitsua dela emakumeek lanaren eta produkzioaren arloan parte hartzea: horra hor autonomiaren edo ahalduentzaren belaunaldi arteko sozializazioaren modu edo agerpen agerikoenetako bat. TOBÍOk (2005:83) ezin hobeto adierazi bezala: *“alabei transmititzen saiatzen diren funtsezko ideia da garrantzitsuena dela, oinarri-oinarritzkoa, autonomia indibiduala izatea, bere burua mantentzeko ahalmenean gauzatzen dena. (...) Emakume batentzat garrantzitsuena, gaur egun, oinarritzko autonomia indibiduala izatea da, lanak ematen duena.”*

Produktzio-denbora da denbora hegemonikoa. Lan-arloan egiten dira nortasun sendoenak eta gogorrenak ematen dituzten jardun egokiak. Eta hori sartu-sartuta dute Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek.

Gogoan baduzue, ikerketa honen hasieran emakume-talde horretan bereizi egin genituen emakumeak heldu-bizitzan izandako jarduera nagusiaren arabera, hots: lanaren eta produkzioaren arloan parte hartu zutenak, edo etxeko-familiako arloan soilik edo batez ere parte hartu zutenak. Eta ia erdi eta erdi atera zitzaigun. Baina emakume horiei beraiei galdetu zitzaizkion ea jarduera-ibilbide berbera gomendatuko lieketen ondorengo belaunaldi batzuei (alabei, bilobei), gehien-gehienek lanaren eta produkzioaren arloa gomendatu zuten (7.6. grafikoan agertzen da argi eta garbi).

Bizitza etxeko-familiako arlora bideratu duten emakumeek onartzen dute, nolabait, erabaki hori –eta lehen ere adierazi dugu ez dela, inondik inora, erabaki indibiduala soilik izan, baizik eta testuinguru sozialak, kulturalak eta politikoak eragindakoa, indar handiz baldintzatzen baitzuen alor eta ezagutza espezializatuak esleitzea generoen arabera– ez zela guztiz egokia izan, ez bederen emakumeen beste belaunaldi batzuei transmititzeko bezain egokia.

7.6. GRAFIKOA Produkzioaren eta lanaren arloan parte hartzeko gomendioa, aurreko jarduera-ibilbidearen arabera. Guztira. Ehunekoak




Horrenbestez, bizitzako ikaskuntza bat da, belaunaldi-transmisioan zuzentzen saiatuko dena, ahal duen neurrian. Eta puntu horretan ikusten du ikerketa honek bat ez-etortze handienetako bat emakumeek beraiengan hautemandako autonomia-maila handiarekin, eta, hain zuzen ere, emakume-talde horrengan –jarduera guztia etxeko-laneko arlo horretan egin duten emakume horiengan–, ez baitiote beste emakume horiei erabaki hori hartzea gomendatu. Emakume-talde horrek, barren-barrenean sentitzen du, beraz, ez dela nahikoa autonomia izan bere bizitzan lanarekin lotutako alderdi horretan.

Horrek badu ondorio zuzen bat: Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako hamar emakumetik zortzi (%80,7), dena dela ere aurreko jardueraren ibilbidea, ados dago ondorengo belaunaldietako emakumeek lanaren eta produkzioaren arloan parte hartzearekin, eta horretan bat datoz, gainera, ikerketarako ezarritako bi adin-taldeak (7.7. grafikoa).

Autonomia pertsonalaren balioa da, bizitza independentea egiteko ahalmena –alderdi ekonomikoa ere barne dela–, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horrek adierazitako arrazoi nagusia, emakumeek lanaren eta produkzioaren arloan parte har dezaten.

7.7. GRAFIKOA Emakumeen jarrera ondorengo belaunaldietako emakumeek produkzioaren eta lanaren arloan parte hartzeari buruz. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak



Emakumeak produkzioaren arloan parte hartzeko balio nagusia autonomia-ahalmena jotzen duen testuinguru horretan (%53,8), 7.1. taulak argi erakusten du eskarmentua izatea oso ona dela, eta 1946. urtea baino lehen jaiotako emakumeek uste dutela lanaren arloan parte hartzea, lan-baldintza duin eta ez diskriminatzaileetan kotizazioari dagokionez, funtsezko estrategia dela nork berak erretiroko pentsioa izateko, haiek beraiek generoa eta belaunaldia direla-eta, hein handi batean, lortu ezin izan duten pentsioa izateko (RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2002: 113).

7.1. TAULA Ondorengo belaunaldietako emakumeek produkzioaren eta lanaren arloan parte hartzea. Aldeko arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

ALDEKO ARRAZIOIAK	ADINA		
	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Autonomia pertsonala / erabateko independentzia / norberaren bizitza	36,9	30,5	33,7
Independentzia ekonomikoa	19,7	20,5	20,1
Bi soldataren beharra (behar ekonomikoa)	11,2	13,8	12,5
Normalena lan egitea da	12,4	9,2	10,8
Erretiroko pentsioa lortzea	9,4	5,4	7,4
Etxeko lanak gizartearen aitortzen ez izatea	2,6	5,9	4,2
Erantzun gabe	2,1	3,3	2,8
Beste arrazoi batzuk	5,6	11,3	8,5

Halaber, emakumeen belaunaldi horretan genero-berdintasuna errotu izanaren adierazle garbia da horien %10,8k "normaltzat" jotzea emakumeek lanaren arloan parte hartzea, nahiz eta behar ekonomikoak edo bi soldataren beharrak eragin (%12,5).

Emakumeek lanaren eta produkzioaren arloan parte hartzearen aurkako arrazoiek –belaunaldi horretako hamar emakumetik bik baino gutxiagok adierazi dute– erakusten dute, dena dela, horren atzean ere badela pertsona bakoitzak bere erabakiak hartzeko duen ahalmena. 7.2. taulak erakusten du, pertsona bakoitzaren erabakietan ez sartzeari, leziorik edo aholkurik ez ematea alegia, arrazoi horien guztien %20,4 dela.

Nabarmentzeko modukoa da, halaber, erantzun horien herenak (%33,6) bateratzea oso zaila dela adierazten dutela, oso gogorra dela, eta produkzioaren eta ugalketaren arloan, bietan egoteak dakartzan kostuak –horietako batzuk agerian jarri zituen Emakunderen ikerketa batek (2007)– oso handiak direla, eta horregatik zenbaiten ustez gomendagarria da arlo horietako batean parte hartzeari uko egitea, eta haien ustez arlo "arinena" den horretan jardutea.

7.2. TAULA Ondorengo belaunaldietako emakumeek produkzioaren eta lanaren arloan parte hartzea. Aurkako arrazoiak. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

AURKAKO ARRAZOIAK	ADINA		
	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
Emakumearen rola eta oso gogorra izatea lana eta etxea bateratzea	26,2	38,0	33,6
Ez sartzeari norberarenak diren erabakietan	33,3	12,7	20,4
Autonomia pertsonala / erabateko independentzia / norberaren bizitza	14,3	22,5	19,5
Erantzun gabe	4,8	7,0	6,2
Beste arrazoi batzuk	21,4	19,7	20,4

8

AHALDUNTZEAREN TIPOLOGIA BATERANTZ

Kapitulu hau aurretik adierazitako emaitzen ondorea da: Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen ahalduntze-maila neurtzen duen eskala bat sortu nahi izan dugu.

Eskala horretan, ezinbestean, luzetarako dimentsioa edo prozesu-dimentsioa sartu behar izan dugu, ikusteko, parametro moduan, bizitza-ziklo batetik (heldu-bizitza) beste batera (adineko pertsona) igarotzeak badakarren aldaketarik 65 urteko eta hortik gorako emakumeen autonomia-mailan. Ez litzateke logikoa emakume horiek hautematen duten autonomia-maila soilik ardatz duen eskala bat egitea, kontuan izan behar direlako, batetik, haien ibilbide biografikoen ezaugarriak, eta ez delako ahaztu behar, bestetik, ahalduntzea prozesu bat dela.

Prozesuaren ikuspegi horrek, egiaztatzeak zenbatean gauzatzen diren eraldaketa potentzial horiek pertsona baten ibilbide biografikoan, horrek hurbiltzen gaitu gehien, ezbairik gabe, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen errealitatera. Eta, horregatik, eskalak bi helburu ditu, elkarri oso lotutakoak: batetik, adineko emakume horien baitako heterogeneotasuna islatu nahi du –ikerketa honetan zehar behin eta berriro adierazitakoa–; eta, bestetik, erraztu edo bideratu zenbait instantziatetik adineko pertsona horien ahalduntze-prozesuak aragotzeko, indartzeko eta/edo aktibatzeke abian jar daitezkeen jarduteko estrategia potentzialak.

Urrats hauek kontuan hartuta egin da ahalduntze-eskala:

1. Gaur egiten diren jardueren dinamismoa.
2. Hautemandako autonomia: adineko emakume izan aurretik (65 urte baino lehen) hautemandako autonomiaren eta egun hautemandako autonomiaren arteko alderaketa.
3. Gaur egun egiten dituen jardueren dinamismo-mailaren eta ibilbide biografikoaren zeharreko hautemandako autonomia alderatuaren arteko lotura. Horren bidez, bost ahalduntze-tipologia ezarri dira.
4. Ezarritako bost tipologia horietako bakoitzeko emakumeen profila (ezaugarri nagusiak).

Lehenengo urratsetik hasita, galdetegiko 41. galderaren bidez identifikatzen dira 65 urteko eta hortik gorako emakumeen belaunaldi horrek gaur egun egunerokoan zer jarduera egiten dituen eta zer maiztasunez. Ikerketan adierazten joan garen bezala, jarduerari buruzko informazio hori emakume horien autonomiaren adierazle moduan interpreta daiteke, gizarte-jarduera formal eta ez-formaletan duten parte-hartzea zer-nolakoa den.

Jakitun gara ezinezkoa dela analogia bat ezartzea gizarte-jarduera mailaren eta genero-kontzientziaren artean. Eta zaila da, gainera –eta are zailagoa ikerketa honetan ezarritako metodo kuantitatiboa erabiliz–, ezartzea genero-kontzientziaren zer maila dagoen emakume belaunaldi horren edo besteren baten jarduera, jardun edo ekintza sozial horien atzetik.

Dena den, norberaren ahalduntze-mailatik –autonomia indibidualarekin lotuta dago– eta gizarte-ahalduntzerako bidean, emakumeek gizarte-jardueretan –agerikoetan, gizarte-jarduera publikoetan– duten parte hartzea ezinbesteko baldintza da, nahikoa ez den arren, norberaren ahalduntze-prozesuan. Horregatik, ahalduntzearen adierazle egokiagorik ez dugunez, hori hartu dugu ontzat, gizarte- edo harreman-dinamismoarena, nahiz eta gutxi gorabeherakoa den.

Adierazle hori sortzeko, 65 urteko edo hortik gorako emakume bakoitzak gaur egun egiten dituen jarduera guztiak zenbatu dira aldagai berri batean. Aldagai hori 0 –hau da, adierazitako jardueretatik bat bakarra ere egiten ez duten emakumeak– eta 18 bitartekoa izango da –galdetegiko 41. galderan adierazitako jarduera guztiak egiten dituen emakumea–.

Horrela, lotura bat ezarri da: zenbat eta jarduera gehiago egin, orduan eta jarduera handiagoa du emakumeak; eta, alderantziz.

Behin aldagai berria sortuta, eta ikusita emakumeen zer ehuneko dagoen maila bakoitzean, mozteko edo biltzeko maila hauek ezarri dira (lau kategoria):

1. Dinamismo-maila "oso baxua": 4 jarduera edo gutxiago egiten dituztela adierazten duten eta Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeak. Emakume guztien %20 dira.
2. Dinamismo-maila "baxua": gaur egun 5 eta 7 jarduera bitartean egiten dituzten emakumeak. Emakume guztien %30 dira.
3. Dinamismo-maila "ertaina": gaur egun 7 eta 10 jarduera bitartean egiten dituzten emakumeak. Emakume guztien %30 dira.
4. Dinamismo-maila "altua": gaur egun 10 jarduera baino gehiago egiten dituzten emakumeak. Emakume guztien %20 dira.

Behin kategoriak zehaztuta, eta ikusi ahal izateko zer jarduerak zehatz dezaketen talde horietako bakoitza, galdetegiko 41. galderan adierazitako jardueren eta kategoria horien arteko lotura ezarriko dugu. Kategoria bakoitzerako, 65 urteko eta hortik gorako emakumeen %60k baino gehiagok egiten dituzten jarduerak hautatu dira (8.1. taulan adierazita daude).

8.1. TAULA Egungo dinamismo-maila, kategorien eta jardueren arabera. Guztira. Ehunekoak

JARDUERAK	DINAMISMO-MAILA			
	OSO BAXUA	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Telebista	97,6	100,0	100,0	98,6
Etxeko lanak	83,2	96,3	98,6	98,6
Irratia	63,2	87,4	92,9	98,6
Auzoko ingurunea	61,6	87,4	95,7	100,0
Irakurtzea	52,0	81,7	93,4	98,6
Erljio-jarduerak	34,4	67,0	82,5	89,0
Etxeko ingurunea	16,8	48,7	65,9	89,0
Gizarte-jarduerak	8,0	27,2	64,0	94,5
Turismoa	3,2	24,6	69,7	93,2
Kultura-jarduerak	3,2	14,7	56,9	98,6
Jarduera fisikoak	1,6	6,3	25,6	75,3
Boluntarioen erakundeetan parte hartzea	0,8	1,0	9,0	20,5
Teknologia berriak erabiltzea		4,2	11,4	46,6
Prestakuntza-jarduerak		4,2	10,4	52,1
Auzoko elkarteetan parte hartzea		0,5	1,9	12,3
Emakumeen erakundeetan parte hartzea			1,9	13,7
Alderdi politikoetan parte hartzea			1,4	4,1
Sindikatuetan parte hartzea				4,1

Eskala sortzeko bigarren urratsaren oinarria galdetegiko 49. galderaren erantzunak dira. Galdera horretan, 65 urteko eta hortik gorako emakumeei beraiek hautemandako autonomia-mailaz galdetzen zaie, eta alderatu behar dute aurreko bizitza-zikloan (heldu-bizitzan) zuten autonomia-maila eta egungoan (adineko direnean) dutena; hots, autonomia-maila

edo erabakitzeke ahalmen handiagoa duten (handitzea), berdina (egonkortasuna), edo gutxiago (galera).

Autonomia pertsonal alderatua eta egungo dinamismo- edo jarduera-maila gurutzatuz, eskalaren diseinuaren hirugarren urratsa gauzatu dugu. Emaitzak 8.2. taulan adierazita daude.

8.2. TAULA Egungo dinamismo-maila eta autonomia indibidual alderatua. Guztira. Ehunekoak

HAUTEMANDAKO AUTONOMIA-MAILA ALDERATUA	EGUNGO DINAMISMO-MAILA				
	GUZTIRA	OSO BAXUA (4 JARD. EDO GUTX.)	BAXUA (5 JARD. ETA 7 BITARTEAN)	ERTAINA (7 JARD. ETA 10 BITARTEAN)	ALTUA (10 JARD. BAINO GEHIAGO)
Autonomia handiagoa	18,3	13,6	13,6	22,3	27,4
Autonomia berdina	70,2	66,4	71,2	72,0	68,5
Autonomia gutxiago	11,3	20,0	14,7	5,7	4,1

Emaitza horiek oinarri hartuta, eskala egiteko laugarren eta azken urratsa da 65 urteko eta hortik gorako emakumeen bost tipologia egitea da (8.3. taula). Haien benetako pisua 8.4. taulan adierazita dago.

8.3. TAULA Ezarritako tipologia. Egitura

HAUTEMANDAKO AUTONOMIA-MAILA	DINAMISMO-MAILA			
	OSO BAXUA (5 JARD. BAINO GUTXIAGO)	BAXUA (5 JARD. ETA 7 BITARTEAN)	ERTAINA (7 JARD. ETA 10 BITARTEAN)	ALTUA (10 JARD. BAINO GEHIAGO)
Autonomia handiagoa	2. tipologia	2. tipologia	2. tipologia	1. tipologia
Autonomia berdina	5. tipologia	3. tipologia	3. tipologia	1. tipologia
Autonomia gutxiago	5. tipologia	4. tipologia	4. tipologia	4. tipologia

8.4. TAULA Ezarritako tipologia. Guztirakoa eta adin-taldeka. Ehunekoak

TIPOLOGIA	ADINA		
	65-74 URTE	75 URTE EDO GEHIAGO	GUZTIRA
1. tipologia	17,3	6,6	11,7
2. tipologia	14,5	15,5	15,0
3. tipologia	53,7	42,1	47,6
4. tipologia	4,2	10,8	7,7
5. tipologia	10,2	25,0	18,0

- 1. tipologia: Adierazten dute heldu-bizitzako autonomia-mailari eusten diotela, edota gaur gaur egun handiagoa dutela. Egiten dituzten jardueri dagokienez, dinamismo-maila altua dute. Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen %11,7 dira.
- 2. tipologia: 65 urteko eta hortik gorako emakume horiek ere uste dute gaur egungo bizitza-zikloan autonomia-maila handiagoa dutela, baina aurrekoek ez bezala, jarduera gutxiago egin ohi dituzte, 10 baino gutxiago, hain zuzen ere. Emakume guztien %15 dira.
- 3. tipologia: Emakume-talde handiena da, guztizkoaren %47,6, eta hautematen dute autonomia-maila berdina dutela bizitza-ziklo guztietan, egonkorra dela. Haien dinamismo-maila baxua edo ertaina da; hots 5 jarduera eta 10 jarduera bitartean egiten dituzte.
- 4. tipologia: Heldu-bizitzan zuten autonomia-maila baino autonomia gutxiago dutela hautematen duten 65 urteko eta hortik gorako emakumeek osatzen dute. Guztizkoaren %7,7 dira.
- 5. tipologia: Oso dinamismo-maila txikia dute (4 jarduera edo gutxiago egiten dituzte) eta egungo autonomia-maila aurreko bizitza-ziklokoaren berdina edo hura baino txikiagoa dela hautematen dute. Guztizkoaren %18 dira.

8.5. taulan 5 tipologia horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak edo ezaugarri bereizgarriak adierazten dira 12 aldagaitan oinarrituta.

8.5. TAULA Ezarritako tipologiai. Ezaugarri nagusiak. Guztira

ALDAGAIK	1. TIPOLOGIA (%11,7)	2. TIPOLOGIA (%15)	3. TIPOLOGIA (%47,6)	4. TIPOLOGIA (%7,7)	5. TIPOLOGIA (%18,0)
Adina	65-74 urte (%70)	Banaketa berdintsua 65-74 urte bitartekoan eta 75 urtetik gorakoan artean	Banaketa berdintsua 65-74 urte bitartekoan eta 75 urtetik gorakoan artean	75 urte edo gehiago (%73,9)	75 urte edo gehiago (%73,1)
Ikasketak	Bigarren mailakoak eta unibertsitatekoak (%40)	Lehen mailakoak (%71,1)	Lehen mailakoak (%68,8)	Lehen mailakoak (%78,3)	Lehen mailakoak (%65,7); alfabetatu gabeak (%18,5)
Heldu-bizitzako jarduera nagusia	Lan-arloa (%57,1)	Banaketa berdintsua lan-arloaren eta lanetik kanpoko arloaren artean	Banaketa berdintsua lan-arloaren eta lanetik kanpoko arloaren artean	Banaketa berdintsua lan-arloaren eta lanetik kanpoko arloaren artean	Lanetik kanpoko arloa (%55,6)
Egoera zibila	Ezkondua (%64,3)	Alarguna (%42,2)	Ezkondua (%56,8)	Alarguna (%54,3)	Alarguna (%55,6)
Bizikidetzak	Bikotean (%51,4)	Bikotean (%36,7)	Bikotean (%43,2)	Bakarrik (%32,6)	Bakarrik (%32,4)
Hileko diru-sarrerak	1.200 euro edo gehiago (%30)	900 euro baino gutxiago (%30)	900 euro baino gutxiago (%29,5)	900 euro baino gutxiago (%39,1)	900 euro baino gutxiago (%42,6)
Osasun-egoera	Oso ona/ Ona (%80)	Oso ona/ Ona (%61,1)	Oso ona/ Ona (%66,3)	Erdipurdikoa/Txarra (%69,5)	Erdipurdikoa/Txarra (%63)
Laguntzaren beharra	Ez (%84,3)	Ez (%86,7)	Ez (%81,4)	Bai (%58,7)	Bai (%41,7)
Emakumeen mug. inter.	6,5 (0-10)	4,7 (0-10)	5,8 (0-10)	3,9 (0-10)	5,2 (0-10)
Emakumeen mug. parte-hartzea	Bai (%18,6)	Bai (%10)	Ez (%95)	Ez (%93,5)	Ez (%98,1)
Genero-eredua aldatzeko interesa	Bai (%70)	Bai (%53,3)	Bai (%68,4)	Ez (%34,8)	Bai (%64)
Denbora gehiago orain lehen baino (heldu-bizitza)	Gehiago (%57,1)	Gehiago (%71,1)	Berdin (%43,9)	Gutxiago (%32,6)	Gutxiago (%33,3)

Ahalduntze-maila txikieneko emakumeen tipologietan (4. eta 5. tipologiak) biltzen dira 75 urteko eta hortik gorako emakumeak, bakarrik bizi direnak, alargunak, hilean 900 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak, lan-arloan esperientzia gutxiena dutenak, amaitutako ikasketa-maila baxuenak dituztenak, hautemandako osasun txarrena dutenak, jardueretarako orain lehen baino denbora gutxiago ematen dutenak, eta emakumeen mugimenduetan esperientzia txikiena dutenak.

Eta, aitzitik, Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen artean gaur egun autonomia-maila handienak dituzten emakumeek –dela bizitza-ibilbidean zehar une oro berdin izan dutenak (1. tipologia), dela adineko emakume bihurtu direnean autonomia-maila handiagoa direnak (2. tipologia)– dituzte amaitutako ikasketa-maila altuenak, lan-arloko esperientzia handiena, diru-sarrera handienak, bikote-bizitza bizimodu ohikoena dutenak, osasun onena dutenak, egungo bizitza-aldian beste jarduera batzuetarako denbora gehien hartzen dutenak, emakumeen mugimenduetan gehien parte hartu dutenak, eta genero-eredua aldatzeko interes handiena dutenak.

9

ONDORIOAK

Prozesua den heinean, ahalduntzeak dituen dimentsio indibidualak, sozialak eta politikoak, eta eguneroko bizitzako alderdietan dituen agerpenak hamaika konplexutasun sortzen dizkio hurbilpen enpirikoari.

Horren adierazle argia da urri-urriak izatea arlo horretako ikerketa aplikatuak, eta, horrenbestez, ikerketa hau aitzindaria da, eta lehen hurbilpen orok dituen indarrak eta ahuleziak ditu.

Ahalduntze-prozesuaren izaera dimentsioanitz hori are korapilatsuagoa bihurtu da ikerketa honetan, atzera begirako ikuspegia eta ikuspegi alderatua sartu baitira etxean betetzeko galdetegian. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. planean, ahalduntzea honela definitzen da: *“pertsonek bere bizitzari eragiten dioten balia-bide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea.”* (EMAKUNDE, 2010:80). Eta ikerketa honetan bi ikuspegi horiek sartzeak aukera eman du ikusteko ea bizitza-ziklo batetik –heldu-bizitza– beste batera –adinekoa– igarotzeak, 65 urte betetzeak eragindakoa, baduen aldaketarik adineko emakume horien ahalduntze-prozesuan (handitzea, bere horretan uztea edo txikitzea ekarri duen).

Helburu hori lortzeko, ikerketa aplikatu honek egoki jo du testuinguruzko interpretazio-eredu bat aukeratzea Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortiko gorako emakumeen belaunaldiaren ahalduntze-prozesurako. Horren ondorioz, berriro “egokitu” behar izan ditugu ahalduntze kontzeptuaren potentzialtasunak talde edo belaunaldi jakin baten testuingurura, egoeretara eta bizitza-ibilbideetara. Eta berriro diogu, horixe egin baikenuen Euskadiko nerabeen ahalduntzeari buruz egindako ikerketan (EMAKUNDE, 2009), ikerketa-ildo honi heldu zion lehenengoan, alegia.

Ahalduntze kontzeptuaren lehen egokitzeak, 1945. urtea baino lehen jaiotako emakumeen belaunaldiaren testuingurura edo egoeretara egokitzeak ekarri du gehiago zentratzea ahalduntzearen dimentsio indibidualean edo lehen mailan, eta gutxiago, berriz, gizarte-dimentsioan (bigarren mailan) eta dimentsio politikoan (hirugarren maila). Ikerketak frogatu du oso zaila dela ahalduntzearen bi maila aurreratuenak praktikan identifikatu ahal izatea emakumeen belaunaldi horretan, hots, sozializazioa eta bizitzaren zati handi bateko gizarte-jarduera nagusiak ugalketaren arlora bideratuta egon diren emakume-talde horretan (FREIXAS 1991:74).

Dena den, gaur egun 65 urte eta hortik gora dituzten emakumeak nagusiki etxeko-familia-ko arlora bideratu izateak ez du esan nahi arlo horretan soilik izan dutenik esperientzia. Ezta hurrik eman ere: ikerketa honen emaitzek erakutsi dute bi emakumetik batek esperientzia izan duela lanaren arloan, batez beste 23 urteko esperientzia. Emakumeak ekoizpenaren eta ugalketaren arloan parte hartzea instituzionalizatutako kontua da gure testuinguruan, eta ez da duela gutxiko gauza, eta horrekin, hautsi egiten dira estereotipo androzentrikoak. Dena dela, planteatzen dugu pisu handiagoa duela lanaren kanpoko arloak adineko emakumeen belaunaldi horren identitate indibidualaren eta sozialaren eraikuntzan ondorengo beste belaunaldi batzuen aldean, eta horrek bizitza-interes eta -orientazio desberdinak dakartza, eta, horrenbestez, baita genero-harremanen ereduaren planteamendu eta auzitan jartze desberdinak ere.

Euskadin bizi diren adineko emakumeen belaunaldi horren sozializazioaren eta rolen esleipenaren testuingurua ikusita, arreta handiagoa jarri dugu “hautemandako autonomia indibiduala” adierazlean. Eta adierazle horrek antza handiagoa du ahalduntzearen lehen mailarekin, norberaren boterearekin edo botere indibidualarekin.

Ikusi dugu emakumeen belaunaldi horrek autonomia indibidualaren maila handia hautematen dutela. Autonomia indibiduala balio preziatuenetako bat da adineko pertsona horientzat. Balioetsi egiten dute, asko eta gehienek balioetsi ere, beraiei eragiten dieten gauzen

inguruan erabakitzeko ahalmena. Onartzen dute egun bizi diren bizitza-ziklo honek ezinbestean dakarrela fisikoki hondatzen joatea (osasun-mugak izatea, mugikortasun mugak...) eta lagunak galtzea ere eragin dezakeela. Baina "zahartzearen esperientziaren" gaineko beldur nagusietako bat (PÉREZ ORTIZ; 2006a) da beraien eguneroko bizitza zuzentzen eta eratzen duten erabakiak hartzeko autonomia galtzea. Eta, izan ere, osasunak txarrera egitea, horrek mugikortasun-arazoak ekartzea eta eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren bat behar izatea da autonomia indibiduala murrizten duen faktore nagusia.

Hona hemen autonomia indibidualaren funtsezko balioaren beste adierazle bat: adineko pertsonak bere kasa bizi nahi izaten du (eta beste ikerketa batzuetan ere ikusi da hori). Gure ikerketak, autonomia indibidualaren alderdi hori (bizikidetzari dagokiona) egiaztatu du Euskadiko adineko emakumeen kasu zehatzean, baina horrez gain, autonomia indibidualaren beste alderdi bat ere identifikatu du: alderdi ekonomikoaren kudeaketari dagokiona.

Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakume gehien-gehienek adierazten dute beren esku dagoela bizikidetzaren unitatearen berezko gastuak ordaintzeko diren diru-sarreraren kudeaketa, edozein dela ere unitate hori osatzen duten pertsonak eta diru-sarreraren jatorria edo iturria. Ekonomia-kudeatzailearen rol hori, botere-arlo hori ez du beste inoren esku utzi emakumeen belaunaldi horrek. Horrek hausnarketa bat eskatzen du ahalduntzearen alde ekonomikoari buruz; izan ere, kasu honetan ez da egokia, agian, emakume-talde horri bere diru-sarrerak sortzeko ahalmena eskatzea, baizik eta ahalduntzearen alderdi hori egunerokoan benetan kudeatzea berez izatea adierazle bat.

Gaur egun 65 urte eta hortik gora dituzten eta Euskadiko etxeetan bizi diren emakumeek beraien hautematen duten autonomia indibidualaren alderdi horretan bertan jarraituz, ikerketa honek agerian jarri duen beste alderdi interesgarri bat da autonomia horrek iraunkor jarraitu duela emakumearen bizitzan zehar. Belaunaldi horretako emakume gehienek adierazi digute 65 urte betetzeak ez diela aldaketarik ekarri beraien ibilbide biografikoan, jarraipen moduko bat izan dela.

Identitatearen jarraipenaren pertzepzio horrek, hartutako erabakietan autonomia indibidual handia duela eta izan duela hautemate horrek logikoa eman dezake, berez; izan ere, gure kultura-testuinguruan pertsona oro saiatzen da, bere ibilbide biografikoaren berrirakurketa egiterakoan, inolako disonantzia kognitiborik egon ez dadin.

Jarraitasun hori egunerokotasuneko gizarte-jardueretan agertzen da garbi, edo beste modu batean esanda, egungo denboraren norberaren kudeaketan. Nahiz eta emakume gehienek adierazten duten denbora gehiago dutela beraiantzat, denbora hori ez da beraien konkistatutako denbora, ahalduntze indibiduala estrategia (kontziente) baten ondorioa –"ni lehenengo" SOLEDAD MURILLOk (1996) adierazten duen moduan–; aitzitik, liberatutako denbora da "libre" geratzen dena bizitza-ziklo horretan desagertu egiten direlako laneko betebeharrak, familiak eta bikoteak dakartzen betebeharrak, erabateko nagusitasuna zutenak bizitza-ibilbideko aurreko aldian, baldin bazeuden.

Ikerketan, agerian geratu da, halaber, adineko emakume horiek parte hartze txikiagoa dutela gizarte-jarduera formaletan edo antolatuetan teoriarik legokiekeena baino, hots erretiratu ondoren eta zaintza-lan gutxiago dutelako libre duten denbora gehiago izateagatik legokiekeena baino (RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, 2002:114; BAZO, 2001:57), eta, aldiz, gizarte-jarduera ez-formalak egiten dituztela; besteak beste, biloben eta beste senide batzuen zaintza, askotan eta askotan, gainera.

Oso garrantzitsua da hausnartzea ea baden aukerarik ekintzak eta estrategiak bultzatzeko ahalduntze-erabakiak emateko 65 urteko eta hortik gorako emakumeek libre duten denbora horri (denbora material horri). Bat ez etortze horrek, adineko pertsonak libre eduki dezaketen denboraren eta denbora horren benetako erabilaren edo bideratzearen arteko bat ez

etortze horrek zuzenean eragiten du aisiaren, kontsumoaren, osasunaren eta zaintzaren “industriek” gero eta interes handiagoa izatea adineko pertsona horiek erakartzeko. Hor daude, halaber, “zahartze aktibo eta osasungarri” deritzonoko estrategiak eta programak.

Pertsona bakoitzak bere denbora nola erabili erabakitzeko izan dezakeen autonomia indibiduala gorabehera, agerikoa da aztergai dugun adineko emakumeen belaunaldi horretan eragina dutela egiturazko faktoreek, eta, kasu honetan, faktore kulturalak, sozializaziokoek, bat ez etortze hori desagertzeko erritmoan. LOURDES PÉREZ ORTIZek adierazi bezala, *“adineko asko (...) oso urrun daude oraindik denbora libre izateko eskubidearen etiketik, eta, horrenbestez, haientzat aisiaz gozatzea portaera gaitzesgarria da.”* (2006a:246).

Adineko pertsonak, oro har, eta adineko emakumeak bereziki, zahartze aktiboko estrategietan (ekintzak, programak, jarduerak) sartzeko, ezinbestekoa da egokitze-aldi bat, oraindik orain. Horrenbestez, gogoan izan behar dugu “erritmo” hori dagoela, eta saiatu behar ko genuke ez jartzen abian, interes-taldeen presioa dela-eta, egokitze-aldi hori murrizteko estrategiarik, pertsonak beraien erabakiak hartzeko autonomia murriztea dakarrenik.

Lehen begiradan, pentsa liteke Euskadin bizi diren adineko emakumeen ahalduntze-prozesuaren testuinguruzko interpretazio-eredua, ikerketa aplikatu honek egiten duena, adeitsuegia dela, bigunegia, emakumeen belaunaldi horrekin. Baina ez litzateke logikoa pentsatzea pertsona gehienek, adineko bihurtzen direnean, kopernikar iraultza egingo dutenik, erabat urrunduko direnik beraien bizitza-ibilbidetik. Horregatik dira garrantzitsuak, esaterako, berdintasunaren, ahalduntzearen eta gizarte-antolaketa erantzunkidearen aldeko programak, ekintzak eta estrategiak abian jartzea sozializazio-prozesuetan.

Baina, argudio nagusi gisa onartu arren, oro har, bizi den moduan zahartzen dela (PÉREZ ORTIZ, 2006b:91; FREIXAS eta LUQUE, 2009:194), ez dugu utzi erabat baldintza gaitzan egiturazko baldintza horien pisuak, sozializazio-prozesuen pisuak. Ikusi dugu badirela adineko emakumeen agentetza indibidualerako tartea ahalduntzearen alorrean.

Ahalduntze indibidualaren eta sozialaren adierazpen horiek bi modutakoak dira, helburua zein duten: norberari begirakoak diren, hots, adineko emakumea bera duten helburu; edo beste pertsonaren bati begirakoak diren, ondorengo belaunaldietako emakumeak dituzten helburu.

Ahalduntzearen agerpenaren lehen motari helduz, ikusi dugu Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako lau emakumetik batek jarduera berri bati ekin diola, lehen egiten ez zuen bati, adineko pertsona den egoera horretan.

Gainera, jarduera horrek esperientzia onak dakartzkio, eta ez dio horri uko egin nahi. Jarduera berri horrek dakarkion atsegina edo satisfazioa, entretenimendua, laguntasuna, lagunak izaten jarraitzea, ikasteko grina eta nork bere burua aberastea edota jarduera fisikoa eginez nork bere burua zaintzea dira motibazio nagusiak bizitza-ibilbide horretan jarduera berri horiek egiteko.

Jakina, ez jarduera berri horiek, ez haietarako motibazioak, ez dira per se ahalduntzearen adierazleak, baina, bederen, adierazi egiten dute aktibo egoteko –indibidualki eta sozialki– interesa eta nahia duela Euskadin bizi diren adineko emakume horien zati handi batek, inondik inora homogenea ez den talde horretako emakume askok eta askok.

Ikerketa honek behin eta berriz jarri du agerian Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen talde estatistikoa oso heterogeneoa dela. Adineko emakumeen taldean dagoen aniztasunak, beste ikerketa batzuetan ere agerian jarritakoak –besteak beste eta duela gutxi gure alorreko batean ere bai (EUSKO JAURLARITZA/ GOBIERNO VASCO, 2010:163)–, badu beste eragile bat ere, funtsezkoa: generoa. Ez litzateke, horrenbestez,

emakumeen zahartzeaz (PÉREZ ORTIZ, 2003) hitz egin behar baizik eta emakumeen zenbait motatako zahartzez.

Emakumearen adinak berebiziko garrantzia du adineko emakume horien taldean egoerak bereizteko, eta, horrenbestez, baita autonomia indibidual mailak eta erabakiak hartzeko ahalmenak zer-nolakoak diren bereizteko. Alde handiak daude 75 urte eta hortik gora dituzten emakumeen (1936. urtean edo lehenago jaiotakoak) eta gaur egun 65 urte eta 74 urte bitartean dituzten emakumeen artean (1937. eta 1946. urteen artean jaiotakoak). Bereizi egin behar dira, ezinbestean, hirugarren adina eta laugarren adina –eta, seguruenik, gero eta adin handiagokoak sartuko ditugu azken multzo horretan, bizi-kalitatean gertatzen ari diren hobekuntzei esker–, adineko pertsonentzako ekintza-politikak bultzatu edo abian jarri nahi direnean, eta baita honelako ikerketak egiten direnean ere.

Logika horri jarraituz, ikerketa honetan, Euskadiko etxeetan bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen heterogeneotasun horri erantzuteko, adineko emakumeen bost tipologia sortu dira, kontuan hartuta haien egungo egoera eta aurreko ibilbidea, ahalduntzeari dagokionez. Tipologia hori hiru multzo handitan bil genezake.

Alde batetik, belaunaldi horretako lau emakumetik batek baino zertxobait gehiagok autonomia indibidual handia du, eta gutxiago bada ere, badu autonomia soziala ere. Autonomia-maila hori bizitza-ibilbidean zehar une oro berdin izan dute (1. tipologia), edo handitu egin da adineko emakume bihurtu direnean (2. tipologia). Profil-eredu moduan, 65 urte eta 74 urte bitarteko emakumeek ari gara –adineko emakumeen arteko gazteenak–, lan-merkatuan esperientzia, amaitutako azken ikasketak maila handienekoak, hileko diru-sarrerak handienak eta hautemandako osasuna onena duten emakumeak, bikotean bizi direnak eta adineko izatearen estatusak zenbait jardueratarako dedikazioa handitzea ekarri dienak. Eta emakume horien artean dira ugariak emakumeen mugimenduetan parte hartu dutenak, eta haiek dute genero-eredua aldatzeko interes handiena.

Beste muturrean legoke 65 urteko eta hortik gorako emakumeen beste ia laurden bat. Hautematen dute autonomia indibidual gutxiago dutela gaur egun heldu-bizitzan baino (4. tipologia) edo autonomia txikia izan dutela beti edo bizitza-ibilbide osoan zehar (5. tipologia). Emakume horien eredu-profila 75 urteko eta hortik gorako emakumeek osatuko luke, bakartasun-egoera objektibo handiagoa dutenek (alarguntza) eta eguneroko jarduerak egiteko laguntza-behar handiagoa, hilean 900 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak, lan-esperientzia txikiagoa, amaitutako ikasketen maila txikiagoa, hautemandako osasuna okerragoa, eta lehen baino dedikazio txikiagoa zenbait jardueratarako.

Eta bi talde horien artean legoke 65 urteko eta hortik gorako bi emakumetik bat, horrenbestez Euskadin bizi den emakumeen belaunaldi horretako eredu-profil nagusia (3. tipologia). Txosten honetan behin eta berriro aipatu dugun testuinguru soziohistorikoaren eta genero-sozializazioaren isla da emakume hori, eta hautematen du bere ibilbide biografikoan planteamenduak, interesak, jarduerak eta egitekoak ez direla askorik aldatu, egonkortasuna dela nagusi bere bizitza-ibilbidean.

Ahalduntzea bultzatzeko ekintza edo estrategia oro –zentzu zabalean ulertuta– ondo hartuko luke, a priori, aipatutako lehen segmentuak edo emakume-taldeak, haiekiko oinarria, haiekiko joera baitute. Guztiz bestelakoa da bigarren taldea, horrelako ekintzekiko uzkurragoak baitira, egiturak eraginda edo egoerak eraginda. Horrenbestez, hirugarren segmentuan edo taldean –zabalenean– legoke, zalantzarik gabe, aukera alor hori laguntzeko edo bultzatzeko ekintzak ugaritzeko edo finkatzeko, eta hor legoke erronka ere. “Itxaroten” dauden emakumeen talde moduan kategorizatu dezakegu.

Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeen taldearen heterogeneotasuna norberaren ahalduntzeari edo ahalduntze indibidualari dagokionez, homogeneotasun

bihurtzen da, belaunaldiaren planteamendu bakar, arreta ahalduntzea beste pertsona batzuekiko ikusten dutenean.

Adineko pertsonak gehiago lagundu dute beste belaunaldi batzuen arian ariko ahalduntze-prozesuan beraien belaunaldiarenean baino. Hori litzateke ikerketa honen ondorio nagusietako bat. Ahalduntzearen sozializazioa da, belaunaldiaren eta generoaren ondare garrantzitsu-garrantzitsua, agian oso kontuan izan ez duena esparru ez-formalak, ez-publikoak; hots, egunerokoan ahalduntzea garatu den eta garatzen den inguruneak ez du kontuan hartu.

Badirudi Euskadin bizi diren 65 urteko eta hortik gorako emakumeek esan nahi digutela, haien sozializazio-testuingurua eta bizitza-ibilbidea ikusita, autonomia indibiduala dela ahalduntze-prozesuaren garapenaren adierazle nagusia edo lehentasuneko. Aitzitik, haien alabak, bilobak edo are birbilobak sozializatu diren ingurunean, ahalduntzearen prozesua adieraz daiteke eta, beraz, eskatu ere egin liteke haren dimentsio guztietan, parte hartzen ari baita gizarte-harremanen eta nortasunen eraketa-moduan.

Badirudi ahalduntzearen gizarte- eta politika-dimentsioak, genero-sistema auzitan gero eta gehiago jartzea, emakumeen ondorengo belaunaldietarantz eskualdatu dutela adineko emakumeek. Gertaera hori, paradoxikoki, autonomia indibidualaren belaunaldien arteko alderaketa egitea eskatzen zaienean adierazten da: adineko emakumeek hautematen dute belaunaldi gazteenek autonomia integral handiagoa dutela. Lan-arloan parte hartzea, gainera, sine qua non baldintza bihurtzen da erabakiak hartzeko autonomia hori lortzeko eta horri eusteko.

Interesgarria litzateke jakitea ondorengo belaunaldietako emakumeek ere, emakume gazteagoek ere iritzi bera duten belaunaldi- eta genero-autonomia horri buruz; hots, beraiek amek, amonek edo birramonek, belaunaldi-tarte horretatik ikusita duten iritzi berbera duten ala ez kontu horretaz. Eta hori ikerketa honek zabaltzen duen bideetako bat besterik ez da, garapen sakonagoa behar duena, dela belaunaldi honekin berarekin dela emakumeen beste talde batzuekin egin beharrekoa.

B

BIBLIOGRAFIA

- ARBER, S. ETA GINN, J. *Relación entre género y envejecimiento. Enfoque sociológico*. Narcea. 1996.
- BACHELARD, G. *La poética del espacio*. F.C.E. Mexico. 1981.
- BARBERÁ, E. ET AL. "Más allá del "techo de cristal". Diversidad de género." *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 2002, 40, 55-68. or.
- BAZO, M.T. *La sociedad anciana*. C.I.S. Madril. 1997.
- BAZO, M.T. *La institución social de la jubilación: de la sociedad industrial a la postmodernidad*. Nau Libres. Valentzia. 2001.
- BÓDALO, E. "Aproximación sociológica a las necesidades y al consumo de los "mayores"." *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 2003, 103, 83-111. or.
- BOTT, E. *Familia y red social*. Taurus. Madril. 1990.
- CAREDEC, V. *Sociologie de la Vieillesse et du Vieillissement*. París. Armand Colin. 2001.
- CASTAÑO, C. *Las mujeres y las tecnologías de la información. Internet y la trama de nuestra vida*. Alianza Editorial. Madril. 2005.
- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. *Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondoriak EAEko ekonomia eta gizartean*. Azterlanak eta Txostenak, 8. zk. Bilbao. 2011.
- CORTÉS ALCALÁ, L. *La cuestión residencial: Bases para una sociología del habitar*. Fundamentos. Madril. 1996.
- ELIAS, N. *La sociedad de los individuos*. Gedisa. Bartzelona. 1990.
- ELIZONDO, A. "La participación política de las mujeres en Euskadi: datos y reflexiones." *Feminismo/s*, 2004ko ekaina, 75-88. or.
- EMAKUNDE. *EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legegintzaldiko jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- EMAKUNDE. *Zaintzaren ondorioak. Uztartze estrategiak Euskal Autonomia Erkidegoko gizon-emakumeen eguneroko bizitzan*. 22. txostena. Vitoria-Gasteiz. 2007.
- EMAKUNDE. *EAE-ko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta*. 23. txostena. Vitoria-Gasteiz. 2009.
- EMAKUNDE. *VI. Berdintasunerako gunea / foro para la igualdad 2009*. Vitoria-Gasteiz. 2009.
- EMAKUNDE. *EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako V. Plana. IX. Legegintzaldiko jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz. 2010.
- EUROPEAN COMMISSION. *How to promote active ageing in Europe. EU support to local and regional actors*. September, 2011.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO. OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. *Euskadiko biztanleriaren zahartzea eta horrek ekonomian eta gizartean izango dituen ondorioak*. Argitalpen-zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2005.

- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. INGEMA FUNDAZIOA. *Euskal Autonomia Erkidegoko 60. urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko azterlana*. Vitoria-Gasteiz. 2010.
- EUSTAT-EUSKAL ESTADISTIKA INSTITUTUA. *Proiektzio demografikoak 2020. Eraitzen analisia*. Vitoria-Gasteiz. 2007.
- EUSTAT-EUSKAL ESTADISTIKA INSTITUTUA. *Eszenario demografikoak 2050*. Vitoria-Gasteiz. 2010.
- FERICGLA, J.M. *Envejecer. Una antropología de la ancianidad*. Bartzelona. Anthropos. 1992.
- FLAQUER, LL. *El destino de la familia*. Ariel. Bartzelona. 1998.
- FOLGUERA, P. "Relaciones privadas y cambio social. 1940-1970." *Otras visiones de España*. FOLGUERA, P. (KONP.) Editorial Pablo Iglesias. Madril. 1993.
- FOLGUERA, P. "La construcción de lo cotidiano durante los primeros años del franquismo." *Revista Ayer*, 1995, 19. zk., 165-187. or.
- FOLGUERA, P. "Las mujeres en la España contemporánea." *Historia de las mujeres en España*. GARRIDO, E. (ED.) Síntesis. Madril. 1997.
- FREIXAS, A. "Autopercepción del proceso de envejecimiento en la mujer entre 50 y 60 años." *Anuario de psicología*, 50. zk., 1991, 67-78. or.
- FREIXAS, A. *Mujer y envejecimiento. Aspectos psicosociales*. Fundación La Caixa. Bartzelona. 1993.
- FREIXAS, A. "Envejecimiento y género: otras perspectivas necesarias." *Anuario de psicología*, 73. zk., 1997, 31-42. or.
- FREIXAS, A. "Las mujeres queremos ser "mayores" y poder parecerlo." In MAQUIEIRA D'ANGELO, V. (KONP.) *Mujeres "mayores" en el siglo XXI: de la invisibilidad al protagonismo*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Madril. 2002.
- FREIXAS, A. ETA BOFILL, M. *Abuelas, madres, hijas: la transmisión sociocultural del arte de envejecer*. Icaria. Bartzelona. 2005.
- FREIXAS, A. "Mujeres y dilemas cotidianos a lo largo del ciclo vital." *Crítica*, 56 urtea, 933. zk., 2006, 52-55. or.
- FREIXAS, A. "La vida de las mujeres "mayores" a la luz de la investigación gerontológica feminista." *Anuario de psicología*, 39 lib., 1. zk., 2008, 41-58. or.
- FREIXAS, A. ETA LUQUE, B. "El secreto mejor guardado: la sexualidad de las mujeres "mayores"." *Política y sociedad*, 46. lib., 1-2 zk., 2009, 191-203. or.
- FUNDACIÓN ISONOMÍA PARA LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES. *Poder, poderes y empoderamiento*. Actas 5º Congreso Estatal Isonomía sobre Igualdad entre mujeres y hombres. Universitat Jaume I, 2009.
- IGARTUA, J.J. ETA BADILLO MATOS, A. (KOORD.) *Audiencias y medios de comunicación*. Universidad de Salamanca. Salamanca. 2003.
- IMSERSO. FUNDACIÓN INGEMA. *Las dimensiones subjetivas del envejecimiento*. Madrid. Colección de Estudios "Serie Personas "mayores"" (11.007 zk.), 2009.

- IMSERSO. *Encuesta condiciones de vida de las personas "mayores"*, 2006. Madril. 2010.
- INNOBASQUE. *Euskadi envejece. El ámbito del envejecimiento activo y saludable*. Bilbao. 2011.
